

+

puntua

50 urte euskal unibertsitatea eraikitzen

Jose Mari Larramendiri elkarriketa



BILGUNE FEMINISTAK OÑATIN OSPATUKO DU 20. URTEURRENA

Asteburuan 800 lagun espero dituzte, "jaia, hausnarketak, gozamina eta borroka" uztartzeko asmoz / 2

Astean zehar prestaketa lanetan jardun dute Euskal Herriko Bilgune Feministako kideek.

XABIER URZELAI



Lau aramaioar, bertsolari onena izateko lehian

Arabako Bertsolari Txapelketako finala jokatu dute zapatuan Gasteizen / 41

Bergaran 223 urte igaro eta gero, Mariaren Lagundiko mojak badoaz herritik abuztuan / 25

SINADURAK

 IDIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA / 8	 JOSU ZUBIA / 32
 JOHANNA SANCHEZ / 11	 ANDER ETXEBARRIA / 48



Futbol zelaian jarritako agertokitik atzo ateratako argazkia. JOKIN BEREZIARTUA

Punk eta oi! musika nagusi Agorrosinen, Ekinez jaialdian / 40

'Arrola' kantua estreinatuko du Jose Ramon Vitoriak, Antzuolako mendi taldeari eskainia / 28



CORPUSAK 2022 / 34

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70





Euskal Herriko Bilgune Feministako zenbait kide, Oñatin, karpa atontzen. XABIER URZELAI

Erreplika bila ari den "lurrikara"

'Eztandak dardara gaitzala!' lelopean, Euskal Herriko Bilgune Feministak 20. urteurrena ospatuko du asteburuan Oñatin. 800 lagun inguru espero dituzte, eta egitarau oparoa prestatu dute "jaia, hausnarketak, gozamina eta borroka" uztartzeko

Uxue Igarza Loiola OÑATI

Duela 20 urte abiatu zuen ibilbidea Euskal Herriko Bilgune Feministak, eta, orain arte egin-dako bidea "ospatzeko", Oñatin elkartuko dira ehunka lagun asteburuan.

Alazne Beltran de Lubiano Riaño kideak azaldu du azken urteetan erakundearen eta mugimendu feministaren parte izan direnekin elkartzeko helburuarekin antolatu dutela Topagune Feminista: "Gure sarean daude-ekin elkartzeko gogoz gaude. Gainera, azken bi urteetan apur bat dispersatuta egon gara, eta horrek ere bizitu du gogo hori".

"Ospatzeko, elkartzeko, ikas-teko, dastatzeko, dantzatzeko, jaso eta emateko topatuko gara. Egitarau bete osatu dugu, gaur egun ezinbestekoak diren hainbat gai lantzeko eta Euskal He-

rriko eragile ezberdinekin batera ekiteko", gehitu du Bilgune Feministak Topagunearen inguruan kaleratu duen oharrean.

Asteburu osorako egitaraua

Bi eguneko egitaraua antolatu dute, eta Oñatiko frontoia izango da gune nagusia: "Eskaintza askotarikoa da: zapatuan, egunean zehar, Bilgune Feministak landutako hainbat gairi helduko diegu –formatu ugaritan–; gaua parranda eta gozamenerako espazioa izango da; eta domekan, aisialdi eskaintza egongo da, eta baita herri bazkaria ere, elikadura burujabetzaren aldeko aldarria egiteko".

Egitarauari zehatzago erreparatuta, Topagune Feministari hasiera emateko, 11:00etan, "kokapena" egingo dutela aurreratu dute: "Denontzako plaza bat

sortzea nahi dugu, eta bertan Bilgune Feministaren proiektu politikoa kokatzea". Ondoren, bazkaltzeko aukera izango da –nork berea eramanda edo "taberna laguntzaileetara" jota–.

Zapatu arratsalde, berriz, askotariko mahai-inguru, tailer, saio eta emanaldiek hartuko dute. 17:00etatik 19:30era bitartean izango dira –bakoitzaren gaineko azalpena eta ordutegia, bilgunefeminista.eus-en-.

Beltran de Lubianok adierazi duenez, "azpimarratzeko mahai-ingurua" izango da zaintzaren gainekoa: "Mugimendu feministan dagoen eztabaida gaia da euskal zaintza sistema publiko komunitarioarena, eta horren inguruan jardungo dugu askotariko ikuspegietatik. Halaber, datozen hilabeteetan ere landuko dugu zaintzaren gaia,

eta interesgarria iruditzen zaigure sareko kideak mahai-ingurura gonbidatzea". Bestetik, Elene Lopetegi Olea kideak gehitu du "nabarmentzekoa" izango dela *Zis heteroaraua desobeditu* izeneko mahai-ingurua ere: "Gaia denon ahotan dago –erakundeetara ere iritsi da dagoeneko– eta, gure iritziz, mugimendu feministatik ere arduraz heldu behar diogu horri. Subjektuaren gaineko eztabaidan aritu gara azken urteetan, eta bide horri jarraitzea dagokigu hemendik aurrera ere".

Azaldu dute arratsaldeko ekin-tzetan parte hartzeko ez dela beharrezkoa izango sarrera erosita izatea, eta edukiera bete ahala parte hartu ahalko dela.

Iluntzean, ekitaldi nagusiaren txanda izango da, eta gauean, kontzertuak izango dira frontoiko karpako oholztan. Urteurrenoko abestia sortu duen Ginger talde zarauztarra, Madridlgo IRA rap laukotea, Argentinako Chocolate Remix reggaeton bakarlarria eta DJ Miau dira protagonistak. "Elkarrekin gozatu ahal izateko espazio seguruak sortzeko premia genuen", diote bi kideek. "Gunea mugatuta egongo da; sarrera dute-nentzako bakarrik da", ohartarazi dute.

Lo egiteko, oster, kiroldegia eta furgonetentzako aparkalekua jarri dituzte eskura.

Domeka goizean, *Nomadak Gaittun* izeneko azoka egongo da: "Dinagu elkarrekin batera antolatutako emakume sortzaile eta artisauen azoka da". Eta eguerdi aldera, aisialdirako tartea ere izango da, besteak beste, *marianitada*-rekin. "Ondoren, inguruko elikadura taldeekin batera egindako herri bazkarian elkartu, eta Anari musikariaren kontzertuarekin emango diogu amaiera topaguneari", azaldu dute.

Debagoiendarren parte-hartzea

Topagune Feministako egitarauan, Debagoieneko Antzerki Plataformak eta *Patata soziala* podcasta egiten duten oñatiarrek hartuko dute parte.

Bestetik, antolatzaileek urteurrena Oñatin ospatzearen zergatiak azaldu dituzte: "Azpiegitura handiak dituen herria da, eta erraztasun asko eman dizkigute Topagunea bertan antolatzeko. Horrez gain, uste dugu Euskal Herriaren erdigunean

kokatuta egotea abantaila dela". Elene Lopetegi, berriz, gehitu du horrelako ekimen batek "arrastoa" uzten duela herrian eta inguruan: "Oñatiko eta Debagoieneko mugimendu feministari bultzada eman nahi diogu, eta, ahal den heinean, ekarpena egin".

Saretzen jarraitzeko ahalegina

Sarean antolatzen den antolokunde nazional gisa definitzen du Lopetegi Bilgune Feminista; "esparru ugarietako emakume asko" eta "askotarikoen hausnarketatik" sortutako egitasmo, gisa. "Herria feminismo-tik eraikitzeke helburua dugu, eta mugimendu feministan parte hartzea bilatzen dugu, alor desberdinetan", gehitu du.

Azken urteetako greba feministak, Martxoaren 8ko mobilizazio jendetsuak eta mugimen-

Egitaraua

Zapata, ekainak 11

- **09:30** Izen ematea.
- **11:00 - 13:30** Harrera eta aurkezpena.
- **14:00** Bazkaria. ordua.
- **17:00 - 19:30** Zumba tailerra; artearen historia eta feminismoa; bertso saioa; musikariaren maratoia; *Estallidos* liburuaren aurkezpena; *918 gau* filmaren emanaldia; antzerki tailerra; *Patata soziala* podcast saioa; mahai-ingurua: *Zis heteroaraua desobeditu*, gatatzaren hainbat ikuspegi; mahai-ingurua: *Zaintza erdigunean jartzea burujabetza kontua da*; mahai-ingurua: *Borroka ekologista ekofeminista da*; soinu teknikari tailerra; mugimendu feminista motor, neska* gazteok erregai.

- **21:00** Ekitaldi nagusia.
- **22:00** Kontzertuak: Ginger, IRA, Chocolate Remix eta DJ Miau.

Domeka, ekainak 12

- **10:00** Artisau azoka.
- **11:00** Pilota tailerra, Patri Espinarrekin.
- **12:00** Marianitada.
- **14:00** Herri bazkaria.
- **17:00** Kontzertua: Anari.

du feministaren bilakaera "inflexio puntu" izan direla azaldu dute Beltran de Lubianok eta Lopetegik, eta horiek baliatuz Bilgune Feministako kideek "sare handia" ehundu dutela: "Antolatuta gauden herrietan nahiz antolatuta ez gaudenetan gure proiektu politikoa zabaltzen jardun dugu; aurkezpenak egin ditugu. Eta hemendik aurrera ere, horixe izango da Bilgune Feministaren helburuetako bat: leku gehiagotan antolatuta egoitea eta mugimendu feministako talde eta norbanakoei aliantzak eraikitzen jarraitzea".

Lurrikara, erreplika bila

Topagunera bueltatuta, *Eztandak dardara gaitzala!* leloaz ere aritu dira Bilgune Feministako kideak. "20 urte egin ditugu, eta feminismotik eztanda egiten jardun dugu urte hauetan", azaldu du Elene Lopetegik kideak.

"Eztandek, lurrikarek, beti sortzen dituzte erreplikak, eta hori da, hain zuzen ere, nahi duguna: eztandak jendartea mugiaraztea. Antolatu gaitezen, borroka egin dezagun; baita oraindik eztandaz ohartu ez dena ere!", jarraitu du.

Mezu bertsua helarazten du Topagunerako beren beregi egindako *Paradisuak sutan* abestiak ere: *Paradisuak sutan, ke-errautsak eskutan, eztandak dardara gaitzala!* (...) *Orbain bizien oinordeko, lerroarteak zabaltzeko. Beldur bat biluztu du eztandak kean, ametsak herri egin gintue-*

"ERRAZTASUN ASKO EMAN DIZKIGU OÑATIK TOPAGUNEA ANTOLATZEKO"

ELENE LOPETEGI

nean, plazeraren lubaki den Bilgunean, berjabetzean, erretean. Dardara gara erreplikan. Maddi Gallastegi, Jone Azkoaga, Nerea Altxu, Andrea Lopetegik, Miren Narbaiza eta Miren Aranguren dira kantuaren egileak.

Hain zuzen ere, azpimarratu nahi izan dute horixe dela topaketen beste asmoetako bat: Topagune Feministak eskualdean eta Euskal Herri osoan "arrastoa" uztea. "Bilgune Feministaren barne giharra indartu nahi dugu, eztabaidan eta hausnartzen jarraitu eta horretarako espazioak sortu", adierazi du Beltran de Lubianok. "Helburu nagusia burujabetza feministarako trantsizio hori eragitea da", gehitu du Lopetegik. Eta biek azaldu dute "burujabetza feminista" dela Topagune Feministaren "ildo nagusia" ere.

800 elkartzeko aurreikuspena

Oraindik ez dakite zenbat sarrera saldu diren zehazki, baina, egin dituzten aurreikuspenen arabera, 800 lagun inguru elkartzea aurreikusten dute Bilgune Feministako kideak.

Horri lotuta, tiketak erosteko aukera dagoela gogorarazi dute: "Online eta Euskal Herriko hainbat txokotan daude eskuragarri, 40 euroren truke. Prezio merkatua ere badago aukeran (35 euro), eta furgoneten aparkalekuan tokia gordetzeko bonua ere erosi daiteke (5 euro)". Oñatiko Arrano Tabernan eros daitezke sarrerak.

"BILGUNEAREN BARNE GIHARRA INDARTZEN JARRAITU NAHI DUGU"

ALAZNE BELTRAN DE LUBIANO

Ospitaleko langileek "estortsioa" salatu dute

Debagoieneko Ospitaleko bi langilek iraupen luzeko bitarteko kontratuei "uko" egin dietela azaldu dute, eta erabakien atzean "estortsio sistematikoa" dagoela adierazi dute. Osakidetza, berriz, "gezurtatu" egin ditu ESK eta LAB sindikatuen esanak

U. I. L. ARRASATE

Debagoieneko osasungintzako langileek, ESK eta LAB sindikatuen babespean, Arrasateko Ospitalea zuzentzen dutenen "jarrera" eta "lan eremuko tratatu txarrak" salatu dituzte aste horretan. "Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzaren abalarekin eta bultzadarekin, zuzendaritzak langileriari egiten dion estortsio sistematikoa salatu nahi dugu, zeinak profesional kualifikatuak gure ospitaleko ateratzea eragin baitu", azaldu zuten astelehenean egindako elkarretaratzean.

Zehaztu dute, azken astean, kontratu egonkorra duten bi langilek ospitalea uzteko erabakia hartu dutela; horietako bat da Roberto Sanchez medikua. "Min egiteko jarri izan dizkigute guardiak sei asteburu jarraian izan ditut; espedienteak irekitzearekin mehatxatu gaituzte; grebak egin ditugunean, zerbitzu minimoak ikaragarriak izan dira... Egoera honengatik jazarpen protokoloak aktibatu genituen, baina Osakidetza, ikertu beharrean, gehiago zapaldu gaitu eta espedienteak ireki", esan du Sanchezek.

Sindikatuak diote "urteetako presioa eta jazarpena" pairatzen dutela langileek, eta zuzendari



Astelehenean egindako elkarretaratzea, ospitalearen parean. U. I. L.

medikoa "kargutik kentzeko" eskatu dute. "Langileei inposatzen zaizkien egoerek eta mehatxuek behin betiko geratu behar dute. Egoera honetan normala da profesionalak kontratu egonkorra eduki arren Osakidetza-tzatik ihes egitea. Horrek osasun sistema osoari eragiten dio bete-betean", salatu du Eneko Paskualek, Osakidetza LABeko arduradunak.

Aurrera begirako urratsei dagokien, Paskualek azaldu du une honetan ez dagoela negoziaketa mahairik eta, mahai

sektorialean, sindikatu guztiek bat egiten dutela.

Osakidetza, babesa ospitaleari

Egoera honen aurrean, Osakidetza oharra kaleratu du, eta bertan Debagoieneko Ospitalearen kudeaketa "babesten" duela azaldu: "Osakidetza langile guztiak berdintzatzen ditu, eta erabat faltsua da Debagoieneko ESIko profesional bat bera ere diskriminatzen edo estorsionatzen ari dela". Ospitaleko zuzendaritzak, bestalde, ez du adierazpenik egin nahi izan.



ASKE MAITE ASKE BIZI!

bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus GIPUZKOA 943 903 450



2019an egin zuten azken Auzoko Eguna, Aretxabaletan; irudian, orduan ateratako talde-argazkia. GOIENA

Auzoko Eguna bueltan da; oraingoan, Arrasaten

Ibarrean elkarrekin bizi diren hizkuntza eta kulturen topaketa egingo dute domeka goizetik arratsaldera bitartean Seber Altube plazan, Euskaltzaleen Topaguneak bultzatuta eta tokiko hainbat eragilek lagunduta. Ikasturte bukaerako festa izango da

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Datuak eskuan, bistan da Euskaltzaleen Topagunetik sortutako Auzoko egitasmoak arrasto handia utzi duela Debagoienan: guztira, zortzi herritan daude taldeak martxan, eta Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate dira horietako lau. Herriotan euskara elkarteak arduratzen dira euskararen komunitatera hurbiltzen diren lagunei hizkuntza harrera egiteaz, horixe baita Auzokoren oinarritzko helburua. Hala, Ekin Emakumeak, Loramendi eta Txatxilipurdirekin batera, Donostiako Bagera eta Soraluzeko Pil-pilean elkarteek ere jartzen dute euren alea eginkizun horretan. Ikasturtean zehar auzokide –euskarara hurbildu nahi dutenak– eta auzotarren –auzokideei harrera egiten dietenak– arteko elkarlana sustatzen dute, eta ekain aldera jaialdi bateratua egiten dute komunitate parte hartzaileen arteko kultur aniztasuna ospatzeko.

24 hizkuntzaren batuketa

Bergaran antolatu zuten lehen Auzoko Eguna, 2014an. Geroztik, Eskoriatzan, Oñatin, Antzuolan, Soraluzen eta Aretxabaletan egin dute, eta aurten, Arrasate izango du gaireku. Euskaltzaleen Topaguneko Eider Gurrutxagak azaldu duenez, herri horretan "aniztasunaren aldeko lanketa handia" egiteko ohitura dutelako joango dira Seber Altube plaza. Bertan 90 lagun inguru elkartuko dira, bailaran bizi direnak eta Donostiatik, Gasteiztik, Ibarrik eta Soraluzetik etorriko direnak. 2021ean Auzoko egitasmoan parte hartu zutenen jatorria kontuan hartuta, 24 hizkuntzako hiztunek egingo dute bat, besteak beste, amazi-

90 LAGUN INGURU ELKARTUKO DIRA, EUSKARA ARDATZ DUTEN HARREMANAK ERAIKITZEKO

gera, bereberra, hassaniya, fula, farsia, punjabera, wolofa eta daria menperatzen dutenak.

Jaialdia 11:00 inguruan hasiko dute, ongiatorri ekitaldiarekin. Jarraian, egitasmoaren ardatza diren *euskara, harrera, ama-hizkuntza* eta *herria* kontzeptuetan oinarritutako murala margotuko dute. "Ideia da gure parte hartzaileek lau gai horien inguruan dituzten bizipen, iritzi, pertzepzio, hutsune eta sentipenak jasotzea muralean, norberak nahi duen eta eroso sentitzen den hizkuntzan", azaldu du Gurrutxagak.

Bisita gidatua egingo dute, 12:00etan, alde zaharrean, Arantzeta Otaduiaren azalpenak lagun. Bazkal aurretik, elkar ezagutzeko jolasetan murgilduko dira, eta, 14:15etik aurrera, norberaren jaioterriko kultura gastronomikoan ohikoak diren jakiak dastatuko dituzte.


Eguna bukatzeko, 15:30en bueltan, Donostiako Auzoko taldeko partaideek eurek sortutako abes-

Zertarako baliatuko duzu eguna?



MOHAMMED LAMINE SAHARRA

"Auzoko Egunean parte hartzea aukera polita da guretzako, iritziak partekatzen ditugulako beste komunitate batzuetako kideekin. Euskaldunak, marokoarrak, arabiarak... batuko gara, eta elkar ezagutzeko baliatuko dugu".



FATIMETU DAH SAHARRA

"Hiru urte daramatzat Auzokon parte hartzen, eta aurrez egindako festetan ere parte hartu izan dut. Domekan arrosa, kuskusa, haragia eta tea eramango ditugu eta dantza sahararrak erakutsiko ditugu. Ongietorriak zarete!".

tia joko dute, eta Arrasateko kideek dantza sahararrak eskainiko dituzte.

Modu horretan erakutsiko dute, beste behin, aukera zabala dagoela "herritarrek gure herrietako hizkuntza aniztasunaz jabetzeko eta euskaraz ardatzutako harremanen bidez elkarbizitzarako eta lankidetzarako sareak eraikitzeko". Hori baita Euskaltzaleen Topagunea Auzoko egitasmoaren bidez lortzen ari dena, dinamika gero eta herri gehiagotara zabaltzeko lanean diharduen bitartean.



Joseba Egibar, Aretxabaletan. GOIENA

EAJko kideak Antzuolan elkartuko dira domekan

Alderdikideen arteko harremanak sendotuko dituzte Debagoien mailako ekitaldian

H.L. DEBAGOIENA

Debagoieneko EAJko kideek EAJ Eguna antolatu dute domekarako Antzuolan. Alderdikideak elkartu, haien artean ezohiko aldertean harremanak izan eta, bide batez, Antzuola ezagutzeko aukera izango dute. "Azken bi urteotan Alderdi Egunik ere ezin izan dugu ospatu eta irudititu zitzaigun egokia izan zitekeela halako egun bat egitea eskualde mailan", adierazi du Debagoieneko EAJko arduradun Mikel Letek.

10:30ean elkartuko dira, Antzuolako plazan, eta herria, historia, kaleak, eraikinak... ezagutzeko bisita gidatua egingo die Iñigo Ramirez de Okariz Telleria Antzuolako alderdikide eta historialariak. 12:00etan, berriz, ekitaldi politikoa egingo dute, plazan. Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko presidentek, Aitor Urrutia legebiltzarkide eskoriatzarrek eta Itziar Alonso Gipuzkoako EGIko Erki Kontseiluko kide oñatiarrak hartuko dute parte. Horren ostean, hamaiketako egingo dute, udaletxeko arkupeetan. 14:30ean, oster, bazkaria egingo dute, eskolako patioan, parrillada eta guzti; dagoeneko 70 lagunek eman dute izena. Ondoren, musika emanaldia egingo da.

Aretxabaletan egongo da Behizain Eskola berria

Eusko Jaurlaritzak HAZIren eta Gomiztegi kooperatibaren bidez bultzatuta, Behizain Eskola prestakuntza-ekimen berria aurkeztu dute. Kalitatezko prestakuntzaren bidez esnetarako behien azpisektorea biziberritzeko ibilbidea hasiko duen zentroa

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Oñatin Artzian Eskola nola, hala Aretxabaletan Behizain Eskola. Areantza auzoko Etxebarri baserrian egokituko dute eskola eta esnetarako diren behien inguruko formakuntza jasoko dute hor ikasleek datorren udazkenetik aurrera.

Gainbehera dagoen sektorea da, eta horri buelta eman guran jarri dute martxan eskola hau Eusko Jaurlaritzaren HAZI eta Gomiztegi kooperatibak. Helburua da erreleboa izatea eta errelebo hori ondo prestatukoa izatea. Hala adierazi zuen aurkezpenean Arantza Tapiak, Ekonomia, Garapen, Jasangarritasun



Areantza auzoko Etxebarri baserrian egindako aurkezpenean batutakoak. 0. ELORTZA

eta Ingurumen sailburuak: "Sektore honetan, dauden berrikuntza guztiak aplikatu behar ditugu errentagarriagoak izateko, eta ustiatzeko bizi-kalitatea hobea izateko". Prestaketa horretan, sektore konkretu honen ekoizpena, kudeaketa, merkaturatzea eta praktikak landuko dituzte, besteak beste; jardueran garatzen diren arlo guztiak, azken finean. Aretxabaletako Areantza auzoan dagoen Etxebarri baserrian egongo da eskola, Abasolo anaien etxean, eta haiek kudeatuko dute. 260 esne-behi dituzte egun, eta 80 hektarea lursail.

Matrikula epea zabalik dago

Udazkenean hasiko da abeltzaintzan formatzeko ikasketen ikasturtea, Aretxabaletako Etxebarri baserrian. Aurretik, baina, proba pilotu bat egin dute; bost ikasle hartu dute parte. Ikasle horiek eskertu egin dute egitasmoa aurrera atera izana, "beharrrezkoa" ikusten dute eta. Urrian hasiko den ikasturterako matrikula epea zabalik dago dagoeneko. Horretarako, *hazi.eus* webgunean sartu behar da.

Garaia Parke Teknologikoak 15 urte bete ditu

Arrasateko ekintzailetza eta berrikuntza guneak, hau da, Garaia Parke Teknologikoak, eraikinaren 15. urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu du, eta ekainaren 13an izango da, astelehena, Udaltz auditoriumean, 09:30etik 10:30etara.

60 minutu horietan, besteak beste, Parkeko enpresen zenbait ordezkari emandako testigantzak entzun ahal izango dira –Ategi, Galbain, GSR, Kiro Grifols– eta berrikuntzari buruzko solasaldi batean parte hartzeko aukera izango da. Solasaldian arituko direnak honako hauek izango dira: Mikel Alvarez, Garaia Parke Teknologikoko presidentea; Lander Beloki eta Carlos Garcia, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza eta Ingeniaritza fakultateetako dekanok, hurrenez hurren. Halaber, parkearen urteurrenaren harira antolatutako argazki eta marrazki lehiaketen sariak banatuko dituzte.

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

Neinor HOMES

Bizi nahi
dugun
etorkizuna

Gimnasioa
Gourmet aretoa
Terraza zabalak

ERAIKITZEN



900 11 00 22 • neinorhomes.com

Saltzetik harago doan azoka, enpresen alorrean

28 herrialdeetako 1.446 enpresa izango dira Bilbao Exhibition Centren egingo den makina-erreminta azokan. Debagoieneko enpresek ere plaza hori baliatuko dute euren makinak eta produktuak erakutsi eta bezeroekin hartu-emanak egiteko

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Datorren astean, astelehenetik egubakoitzera bitartean, BIEMH Makina-erremintaren Nazioarteko Bienala izango da BECen. 31. edizioa izango da aurtengoa eta mundu osoko enpresa, kooperatiba eta hornitzaileek hartuko dute parte.

Debagoieneko enpresei dago-kienez, beste urte batez, ordezkari-za zabala izango da Barakaldon. Antzuolako Oerlikon Balzers; Arrasateko Ikerlan, Fagor Automation eta Laboral Kutxa; Elgetako Sisteco; Bergarako Tecnosystem eta Soralue; eta Oñatiko Ulma Embedded Solutions izango dira bertan egongo diren enpresetako batzuk.

Lehenengo ediziotik, ia hutsik egin gabe, BIEMH azokan parte hartu du Oerlikon Balzers Antzuolako enpresak. Nagore Jimenez komunikazio arduradunak azaldu duenez, aurten ere bertan izango dira euren zerbitzuak erakusten. Ikerlan ere bertan izango da, "stand dinamiko" batekin, eta makina-erremintaren sektoreko teknologiararen gaineko hitzaldiak egingo ditu.

Iraunkortasuna oinarri

Bai Ikerlanek eta bai Balzersek "iraunkortasunaren alde" egiten duten "apustua" erakutsiko dute.



Makina-erremintaren azokako aurkezpen ekitaldia, BECen. BIEMH

Antzuolako enpresak PVD bidezko estaldurak erakutsiko ditu; hots, beste enpresa batzuei ematen dien zerbitzuetako bat. "Makina batzuetan gure bezeroen erremintak edo piezak sartzen ditugu, eta metalak eta gasak nahastuta plasma sortzen dugu, bezeroaren elementu horiei itsasteko", azaldu du Jimenezek. Plasma hori milimetro bat baino gutxiago duen geruza bat da. "Altzairua baino gogorragoa da, eta produktuaren bizitza luzatzeko, produktibitatea hobetzeko edota zabor gutxiago sortze-

ko balio du, besteak beste", zehaztu du komunikazio arduradunak.

Ikerlanek, berriz, "fabrika digital eta jasangarria" simulatzen duen postua jarriko du. Bertan, makina-erremintaren sektoreko enpresei zuzendutako hiru proposamen erakutsiko dituzte: Ikerlan Konnekt, Ikerlan Merch eta Ikerlan Energy. "Soluzio oso eraginkor eta adimendunak, trinkoak, sendoak eta iraunkorrak garatzea ahalbidetzen dute, enpresek euren aplikazioetan behar dituzten prestazio guztiak

eskaintzeko gai direnak", azaldu dute. Bestalde, hainbat hitzaldi egingo dituzte, etorkizuneko fabrika digitalerako "arrakasta-kasuak" eta "funtsezko alderdi teknologikoak" aztertzeke.

Bezeroekin egoteko plaza

Haien proiektu eta hausnarketak erakutsi edo saltzeaz gain, enpresen asmoak beste batzuk ere badira BIEMH azokan.

"Gure bezeroekin egoteko baliatzen ditugu egun horiek; haiekin hitz egitea gustatzen zaigu, horrek hobetzen jarraitzeko aukera ematen baitugu. Arazoen berri ematen digute edo bestelako kontuak proposatu", azaldu du Jimenezek.

Ikerlanentzat, esaterako, "talentua erakartzea, prestatzea eta fidelizatzea" da beste erronka eta helburuetako bat: "Gure bat erreserbatu nahi izan dugu azokan, ingeniari-ikasleei aholkularitza eskaintzeko. Ostiralean, stand irekita egongo da zentroak hainbat alorretan eskaintzen dituen aukera profesionalak eta prestakuntzakoak ezagutu nahi dituzten unibertsitateko ikasleentzat".

Azokaren "bertsiorik onena"

BIEMH azokak "bere bertsiorik onena" eskainiko duela ziurtatu dute antolatzaileek: "Enpresa nagusien eta munduko liderren erakustaldia izango da. Funtzionamendu betean dauden makina eta ekipamenduz betetako agertokia erakutsiko dute erakusketariekin". 3.400 makina, produktu, zerbitzu eta berrikuntza baino gehiago egongo dira azokan, eta mundu osoko bisitariak bertaratuko dira. "Ekitaldiak negoziarazko eta ezagutzarazko aukera ugari eskainiko ditu", gehitu dute sustatzaileek.

Jasangarritasunaren ziurtagiria jaso dute bailarako bi eskolak

Eskola Agenda 21 programan parte hartu duten 31 ikastetxe publiko eta itunduk jaso dute *Eskola jasangarria* izeneko ziurtagiria; tartean, Aretxabaletako Kurtzebarri BHIK eta Oñatiko Errekalde Herri Eskolak. Ziurtagiria eskuratzeko, auditoretza bat gainditu dute zentroek, eta azterketa horretan, berrikuntzaren, kalitatearen eta ingurumenarekiko konpromisoaren alde egindako urratsak hartu dira kontuan.

Gobernu Kontseiluaren ondoren banatu zituzten diplomak martitzenean. Ikastetxeek "gizarte iraunkorra lortzeko" egiten duten lana txalotu zuen bertan Urkullu lehendakariak.

Energiaren alorreko proposamenak, D2030en eskutik

Debagoiena 2030 ekimenak trantsizio energetikoa sustatzeko dituen proiektuak aurkeztuko ditu datorren astean Bergaran. "Esku-hartze proposamenak" direla aurreratu dute, eta horien atzean zortzi proiektu eta 46 eragile daudela.

2020. urtean onartutako esku-hartze proposamen hori egiteko, eragile publikoek –udalak, garapen-agentziak eta abar–, eragile espezializatuek –KREAN, Goiener, Ekitermik, H-Enea eta abar– eta eragile komunitarioek –ikastetxeak eta herritarrak– parte hartu dute. Erronkaren "azterketa bateratua" egin eta proposamena elkarrekin diseinatu dutela adierazi dute.

2020an baino %17 gehiago fakturatu du Fagorrek 2021ean

Fagor Taldeko arduradunek "ziurgabetasun egoeran" erakutsitako "moldatze gaitasuna" azpimarratu dute

U. I. L. DEBAGOIENA

Iazko ekitaldian, %104an hazi ziren Fagor Taldearen irabaziak. Hala azaldu zuen Joxean Alustiza presidentek aurreko astean egindako batzar nagusian. "Pandemia bat, Ukrainako gatazka,

energiaren garestitzea... Horiek eragin zuzena izan dute gure jardunean, baina emaitzak aurreko urtekoak baino hobeak izan dira".

Zenbakitan, 1.482 milioi euro fakturatu ziren 2021ean Fagor

Taldeko kooperatibetan –2020an baino %17 gehiago– eta 57,97 milioi eurokoak izan ziren irabaziak –joan den urtean baino %104 gehiago–. "Orain, testuinguru nahasian, oreka bilatzen segitzea dagokigu", gaineratu zuen presidentek.

Bestetik, *Fagor 2030 iraunkortasun estrategia*-z ere jardun zuen presidentek batzar nagusian: "Etorkizuna hobetzeko lanean gabiltza, Fagorreko ki-deekiko, lurraldearekiko, gizartearekiko... konpromisoa".



Alustiza, Batzar Nagusian. FAGOR TALDEA

Alustiza, berrautatua

Batzarrean, lehendakari kargua bozkatu zuten bazkideek, eta Alustiza izan zen berrautatua beste lau urterako.

Erabakia jakin osteko hitzartzean, Alustizak "governantza eredu demokratikoaren eguneraketan" jarri zuen azpimarra. "Funtsezkoa da kooperatiben eta Taldearen garapen ekonomiko, sozial zein instituzional iraunkorra bermatuko duen governantza eredu egokia bilatzea", azaldu zuen.

D2030: ELKARRIZKETA



Iker Urbina teknikari-arkitektoa, Debagoieneko Mankomunitatean. M.A.

"Birgaitzeekin, energia eskaera txikiagoko eraikina lortzeaz gain, aurreztu egiten da"

IKER URBINA SURADESAKO ZUZENDARIA

Suradesa etxebizitzaren birgaitze eta berroneratzea sustatzeko Debagoieneko enpresa publikoa da. Debagoieneko udal guztiak dira bazkideak

Miren Arregi ARRASATE
Debagoiengan eraikinen birgaitzeak sustatzeko erronkari erantzuteko, Birgaitzen proiektua jarri zuen martxan Debagoiena 2030 ekimenak 2020an. Proiektu horren bitartez, H-Eneak gidatuta, Bergarako Bolu auzoan hainbat etxebizitza isolatu ziren. Orain, erronka horri modu sendoan erantzuteko estrategia bateratua diseinatu gura da, betiere elkarlanetik. Hori horrela, sektorean zeresana izan dezaketen hainbat eragilek lanketa bat hasi dute, eraikinen eraberritze energetikoa sustatuz, energia

kontsumoaren murrizketa lortzeko. Asteon egin dute lanketa horren bigarren saioa. Suradesako Iker Urbina prozesu horretako kide da. **Zertan datza Debagoiena Eraberritzen proposamena?** 2030erako eskualde klimatikoki neutroa lortzeko helburu orokorraren barruan, proiektuak eskualdeko etxebizitza-parkearen birgaitze energetikorako ekintza-plan bat garatu nahi du. **Etxebizitzaren birgaitzeak zein erradiografia du Debagoiengan?** Erradiografia positiboa dela uste dut, asko egin da, baina oraindik asko dago egiteko. Ditugun birgaitze-ratioak onak diren arren, eremu batzuetan

are gehiago bultzatu nahi genuke birgaitzea. Esparru horietan jarri dugu fokua antolatutako jardunaldietan: hirigune historikoak, auzo degradatuak eta baserriak. Esparru horietan, birgaitzeko zailtasun handienak aurkitzen ditugu, besteak beste, araudia, laguntza-lerroen ezaugarriak edo ezaugarri morfologiko edo espazialak direla-eta. **Une honetan zeintzuk dira zailtasunak? Eta aldekoak?** Zailtasunak, oro har, ekonomikoak izaten dira, nagusiki. Birgaitze bati aurre egiteko orduan, jabetza horizontalaren legearen ondorioz komunitateetan

lortu behar diren gehiengoak zailtasun erantsi garrantzitsua dira. Alde positibotik, oztopo horiek gainditzen laguntzeko diru-laguntzak ditugu, eta, bereziki, energia-eraginkortasuneko birgaitzeei dagokienez, laster abian jarriko diren Europako Next Funtsak bultzada handia izango direla uste dugu, horrelako obretara bideratutako laguntzak oso garrantzitsuak izango baitira datozen urteetan. **Zein onura dakartza eraberritze batek eraikin bateko efizientzia energetikoan?**

Jarduera horien onurak hainbat motatakoak izaten dira. Jarduketaren ondoren, energia-eskaera txikiagoa duen eraikin bat lortzen da, eta horrek, jakina, bizilagunak ordaintzen duen energia-fakturan aurrezpena ekartzen du. Horrez gain, garrantzitsua da etxeko erosotasuna hobetzen dela, etxebizitzaren barruko tenperatura egonkorra luzaroan mantentzen baita. Ahaztu gabe, halaber, eraikina kanpotik isolatzean barruko hezetasunak eta kondentsazioak eragiten dituzten etxebizitzako zubi termikoak desagertzen direla. **Beste eskualde batzuekin alderatuz, zeintzuk dira desberdintasunak?**

Nire ustez, beste eskualde batzuetan ere antzeko arazoak daude. Lehen aipatutako kasko historikoen, baserrien edo auzo degradatuen kasuak guztiek dituzte neurri handiagoan edo txikiagoan. Gure eskualdean, bereziki aipa genezake ez ditugula ia altuera handiko eraikinak, eta ditugun gehienak energetikoki birgaitu direla dagoeneko. Ditugun komunitateak txikiak dira, hamar etxebizitza ingurukoak, eta horrek ahalegin handiagoa eskatzen digu etxebizitza asko birgaitu nahi baditugu, komunitate handiak dituzten beste eskualde batzuen aldean. **Debagoiena Eraberritzen proiektuaren indargunea zein da?** Proiektu honen bidez, mahai berean jarri ditugu birgaitze energetikoan eta bestelakoetan

inplikaturako eragileak: auzokideak, udal teknikariak, proiektugileak eta enpresak, besteak beste. Errehabilitazioaren erronkei eta zailtasunei elkarrekin aurre egitea, bide berriak aztertuz, oso baliagarri zaigu egunerokotasunean ditugun oztopoak gainditzen joateko. **Elkarlan horri zein balio ikusten diozu?**

Lehen bi jardunaldiak oso positiboak izan dira, eta nire itxaropenak onak dira hurrengorako, eta hasieran finkatu genituen helburuak lortzea espero dut. Nire ustez, proiektuaz haragoko dinamika hauei jarraipena ematea interesgarria izan liteke etorkizunean; betiere, gaur egun eragile horientzako guztientzako dakarren ahalegina eta zailtasunak kontuan hartuta.

Zer lortzea gustatuko litzaizuke?

Gure azken helburua beti da errehabilitazioa bultzatzea, eta auzotarrei prozesu horietan laguntzea eta erraztea; batez ere, zailtasun gehien dutenei. Ekimenaren bidez eraginkorragoak izatea gustatuko litzaizuke, eta pertsona gehiagorengana iristea. Hori esanda, lehenengo jardunalditik zenbait ekimen sortu dira dagoeneko. Adibidez, birgaitze-proiektuen bidez eskualdean etxebizitza kolaboratiboak edo *cohousing*-ak ezartzeko ekimenak jarri dira abian, eta espero dugu proiektuan zehar ekimen nagusiaz gain gerora garatu ahal izango diren beste proiektu batzuk ere sortu ahal izatea.

"EUROPAKO NEXT FUNTSAK BULTZADA HANDIA IZANGO DIRA BIRGAITZEEI DAGOKIENEZ"

"ESKUALDEAN ETXEBIZITZA KOLABORATIBOAK JARTZEKO EKIMENAK ABIATU DIRA"



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

Kontsumo-ohitura ala militantzia?

EAEko egoera sozioekonomikoaren bilakaerari buruzko txosten bat irakurtzeko parada izan duan honetan, arreta deitu eta, era berean, poztu egin nauten emaitza batzuk partekatuta nahi nituzke. Espainiako erkidegoen arteko kultur kontsumo ohituren inguruko datuak alderatzen dituen txostena da, hala nola adin-tarte ezberdinetan liburu-irakurketa eta zinema, kontzertu, museo eta antzerkirako asistentzia ohiturak. *Espainiako estatistika kulturalaren 2021eko urteko txostena*-ren arabera, gure erkidegoa da, beste 3-4 erkidegoekin batera –Madril, Katalunia, Nafarroa...–, liburu-irakurle ratio altuena duena, edota enplegu kultural gehien sortzen duen erkidegoa –Madril, Katalunia eta Balear irlekin batera–. Horrek ez nau harritu, beste sektore batzuen inguruko hainbat adierazletan ere goiko mailetan maiz aurkitu izan ohi dugu-eta gure Herria.

EUSKAL HIZTUNAK EZ DIRENEN ARTEAN BAINO HANDIAGOA DA; HAINBATETAN, NABARMEN ALTUAGOA

aipaturiko kultur kontsumo hori EAEn euskal hiztunak ez direnen artean baino handiagoa dela, eta hainbatetan nabarmen altuagoa, gainera; kontzertu, zine eta antzerkietara asistentzia kasu.

Baina beste konklusio batek zer pentsa eman dit. Kurioso –eta pozgarria– egin zaidana da kasu guzti-guztietan nabarmenezkoa dela euskal-hiztunen artean

Zein da, baina, horren arrazoia? Ohitura ala militantzia?

Bestalde, txostenetik eratorritako informazio honek ez du argi uzten kontsumo horretatik zenbatekoa den euskarazko produktuen kontsumoa, jakin badakigu-eta euskarazko produktu eta zerbitzuen eskaintza areagotu egin den arren, hainbat kasu eta adin-tartetan hutsaren hurrengo izaten jarraitzen duela, erdarazkoarekin alderatuz gero. Baina nire helburua, gaur, ez da euskal kultur sektoreak bizi duen egoera latzean sakontzea, pozgarria iruditu zaidan euskal-hiztunak beste behin bereizten gaituen argi-izpi hori partekatzea baizik; laino ilunak beste baterako utziko ditut.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zein mendetan gaude?

ISA EGIGUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ameriketako Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak herrialdean abortatzeko eskubidea amaitzea erabaki omen du, azken bost hamarkadetan Konstituzioak arautu eta babestu duen eskubidea apurtuz.

Afganistango emakumeak berriz ere ikusezin bihurtu dira.

Talibanek ez diete utziko beren aurpegiak kalean erakusten.

Bakarrik bidaiatzeko edo ikasi ahal izateko ezintasunari gehitzen zaion inposaketa.

Ugandako lehendakariaren semeak bakerako deialdia egin du Twitterren, eta, honekin batera, emakumeak eta behiak zaintzeko beharra. Bai, emakumeak eta... behiak.

Gure herrialdera hurbilduz, alderdi politiko batek, Gubernura iristean, emakumeen eta gizonen eskubideak berdintzen dituzten edo indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesten dituzten legeak bertan behera utziko ditu, 2003. urtetik gizonak 1.139 emakume hil badituzte ere.

Celtako futbolari bati lau urteko kartzela-zigorra ezarri diote neska bati sexu

abusuak egiteagatik, eta *Futbolariaren bizitza suntsitu zuen gaua* bezalako titularrekin topo egin dut.

Bat-batean, abusatzailea biktima izatera pasatzen da, eta benetan bizitza izorratu dioten emakumea zalantzan jartzen da arropa estua zeramalako.

Donostian eta Antsoainen pertsona taldeek otoitz egiten dute kliniken atarian, emakumeak ez abortatzeko konbentzitzen saiatzeko.

Batzuetan, emakume gisa ditugun eskubideetan atzera eginarazten digutela iruditzen zait.

Izan ere, azken boladan, kosta egiten zait XXI. mendean gaudela sinestea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Edurne Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"On Jose Mariak konfiantza handia jarri zuen guregan"

PEDRO MENDIETA COPRECI KOOPERATIBAKO SORTZAILEETAKO BAT

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak antolatuta, Jose Maria Arizmendiarrietaren bizi-ibilbidea eta pentsamendua gizarteratzeko ekimenak daude martxan egunotan. Jose Mari Ortubairekin batera hitzaldia egin zuen atzo Pedro Mendieta (Aretxabaleta, 1938). Copreci kooperatibako sortzaileak dira biak; Arrasatetik kanpo zabaldu zen lehenengo kooperatiba izan zen.

Orain pare bat urte egindako inkesta baten arabera, arrasatearren %10ek bakarrik dakite Arizmendiarieta nor izan zen. Zer iruditzen zaizu?
Ez da samurra ulertzea; izan ere, hark hainbat arlotan egindako lana oso zabala eta oso interesgarria izan zen, eta eragin handia izan zuen bailaran. Baliteke gure errua ere izatea, ez dugulako jakin ezagutza hori zabaltzen.
Nola gogoratzen duzu Arizmendiarieta?



Pedro Mendieta. L.Z.L.

Niretzako On Jose Maria izan zen, batez ere, maisu bat, eta ziur naiz hari zor diogula Copreciren sorrera. Bi ideia nagusi jaso nituen nik harengandik. Eskolan esaten zigun gizakia inperfektua

dela, baina bere burua zein ingurunea eraldatzeko gai. Beste ideia da elkarlanaren garrantzia. Bi ideia horiek elkartu eta zure pentsamenduaren oinarrian jartzen badituzu, horrek

ematen dizu ekintzailatzarako jarrera oso baikorra. Horri gehitzen badiozu formakuntza –eta guk formakuntza duala genuen–, hor sortzen da gaitasun handi bat.

Une historikoak bazuen bere garrantzia.

Noski. Gerra batetik gentozen, gosetetik eta errazionamendu garaitik. Eta beste gauza bat: Arrasaten bertan aurkitu nituen nik hainbat aukera. Lan egin eta ikasketak bukatzeko aukera izan nuen, esaterako, eta horrek ematen dizu konfiantza. On Jose Maria zen izaera oso indartsuko gizona, asko irakurtzen zuen, pentsamendu sakonekoa zen eta ideia oso aurrerakoiak zituen. Ideiak zituen, baina ez hori bakarrik, gero horiek nola gauzatu ere jakiten zuen.

Ze eginkizun izan zuen Copreciren sorreran?

Lehenengo eta behin, formakuntza jaso genuen, eta, gainera, aldi berean, lan egiteko aukera izan genuen. Hori asko zen. Horrez gainera, gureganako izugarrizko konfiantza erakusten zuen On Jose Mariak, eta horrek berak eragiten dizu gehiago egiteko gogo. Esan behar dut oso eroso bizi ginela. Lan baldintza onak genituen, baina sentitzen ginen zerbait

gehiago egiteko gai, eta gogo hori genuen. Hainbat hausnarketa egin ostean erabaki genuen aholkularitza enpresa bat sortzea eta erabaki genuen on Jose Mariarengana jotzea, baina segituan esan zigun bazeudela beste eginkizun batzuk, eta bideratu gintuen Ulgorreko Ormaetxearengana [Jose Maria]. Berehala sortu zen enpatia handia gure artean, eta sortu zen elkarlanerako konpromiso bat. Coprecin, esaterako, Ulgorren babesa izan genuen hasieratik.

Etorkizunera begira zein mezu helaraziko zenieke gazteei?

Ba, ez dakit mezua gazteei edo helduei bideratu behar zaien. Nik beti dut buruan guregan izan zuten konfiantza bai On Jose Mariak bai Ormaetxeak, eta neure buruari egiten diodan galdera da ea arazoa non dagoen, gazteengan ala helduengan. Uste dut gazteekiko konfiantza handiagoa izan beharko genukeela. Gehiago arriskatzeko bagenu, emaitza hobeak lortuko genituzke? Egia esan, ez dakit erantzuna zein den. Nire ustez, gaur egun dauden erakundeekin arazoa ez da kapitala, arazoa da arriskatzeko mentalitatea eta elkarlana oinarri duen jarrera.

ITURRI ONETIK

Boxeo konbateak Bergaran

Boxeo konbateak egingo dituzte Bergaran uztailaren 2an. Sorabox boxeo eskolak eta Ixa Rodriguez eskola horretako sortzaile eta boxeolariak antolatu dituzte, Bergarako Udalaren eta Euskadiko Boxeo Federazioaren laguntzarekin. 18:00etan hasiko da jaialdia eta atea 17:30ean irekiko dituzte. Sarrerak, 15 eurotan –aldezturik erosiz gero– edo 20 eurotan, Udaltaldearen laguntzarekin. 18:00etan hasiko da jaialdia eta atea 17:30ean irekiko dituzte. Sarrerak, 15 eurotan –aldezturik erosiz gero– edo 20 eurotan, Udaltaldearen laguntzarekin. 18:00etan hasiko da jaialdia eta atea 17:30ean irekiko dituzte. Sarrerak, 15 eurotan –aldezturik erosiz gero– edo 20 eurotan, Udaltaldearen laguntzarekin.

ALBISTE IZAN ZEN

2014-06-08

Eskutik oratuta, erabakitzearen alde

Eskurik esku, erabakitzearen aldeko ekimenak antolatuta. Gure Esku Dagok antolatuta. "Egun historikoa". Milaka lagun kateatuta. Durango eta Iruñea arteko 123 kilometroko bidean, debagoiendarrak 7,5 kilometrotan. Kanpanzartik Deskargaraino, Arrasate, Bergara eta Antzuolatik pasata. Ordu erdi iraun zuen kateak. Ostean, Bergaran –jaietan murgilduta– ekitaldi berezia egin zen, plazan.



HAU BE BADOGU!

Saizarbitoria eta euskara

Ramon Saizarbitoriak adierazpenak egin ditu euskarari buruz: "Euskara salbatzekotan, desagertzeko arriskuan baitago, bikaintasunari eta prestigiori lotuta izan daiteke bakarrik, ez baserritarkeriaren eta jatorleriaren bidetik".
Erantzunak etorri dira:
@estropezu: "Hizkuntza, salbatzekotan, darabilenak salbatuko du. Begiratu wolof kasuari. Hor ez da prestigiorik, baina bai hiztun komunitate trinkoa, tartean pobre, baserritar eta langileak... Ingalaterrako erregeek frantsesez hitz egiten zuten orain 250 urte".



Goian, Zapatei koba zaborrez beteta. Behean, garbiketa egin osteko irudia. EUSKAL ESPELEOLOGOEN ELKARGOA

Zapatei kobazulotik 5,6 tona zabor atera dituzte

Meatzerreka auzoko Zapatei kobatik 5,6 tona zabor atera dituzte auzolanean; 60 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte garbiketean, Besaide Mendizale Elkarteak egindako deialdiari erantzunez, 23 espeleologok eta 40 boluntariok; denetarik zegoen

Eneko Azurmendi ARRASATE

Urte luzeetan pilatutako zaborra zegoen koban. Pentsa, 70eko hamarkadako gauzak ere bai –etiketak ikusita jakin dute–. Etxe-ko materialak ziren, gehienbat: kazolak, ortuko nitrato-poltsak, botilak, pilak, jostailuak eta abar. "Badirudi oraindik ere batzuek zabortege moduan erabiltzen dutela", azaldu du Eñaut Iturbek, Besaideko presidentek.

Bere garaian Besaideko espeleologoen topatu zuten Zapatei koba. Aloñakoekin batera topografiatu zuten, eta mendi taldearen egungo arduradunek ikusi zutenean ze egoera tamalgarririko zegoen, auzolana antolatzea erabaki zuten. "Hala ere, zabor asko zegoen eta guk bakarrik egitea gehiegi zen. Beraz, Arrasateko Udalera jo genuen laguntza eske. Udalak ere ez

zuen erraz ikusten, eta Euskal Espeleologoen Elkargoarekin jarri ginen harremanetan", dio Iturbek. "Izan ere, urtean bi kobazulo garbitzen dituzte eta aukera izan dugu haien laguntza edukitzeko". Hala, Udalak 4.000 euro inguruko diru partida bideratu du auzolan horretara.

Boluntarioak, ezinbestekoak

Iturbek eskerrak eman dizkie boluntario guztiei, eta nabarmendu du "funtsezkoa" izan dela haien lana. Joseba Dorado Aloña Mendiko eta Euskal Espeleologia Elkargoko kideak ere hala baieztatu du: "Ezinbestekoa izan da boluntarioen laguntza. Guk soro-spenerako sail bat daukagu. Sail horretako hainbat espeleologo garbiketa egin baino egun bat lehenago hasi ziren sarrerak jartzen, polipastoa jarri eta za-

borra elkarlanean atera ahal izateko. Guztion artean lan bikaina egin dugu".

Naiara Corcuera arrasatearra izan da boluntario lanetan aritu denetako bat. "Kate moduko bat egin dugu zaborra ateratzeko. Batzuek zaborra batu dute poltsetan eta besteek ateratzen lagundu dute", dio. "Lehenengo, zulo txiki batean sartu naiz, eta beirazko poteak zeuden, asko jota. Gero, orde, zulo handiago batean sartu naiz, eta harrituta geratu naiz zenbat zabor zegoen", gaineratu du.

DUELA 50 URTE BAINO GEHIAGOKO GAUZAK AURKITU DITUZTE BARRUAN, BAINA BAITA EGUNGOAK ERE

Hiruzpalau tona zabor zeudela aurreikusten zuten, baina, garbiketa egin ostean, 5,6 tona atera dituzte, azkenean, Mankomunitateak emandako datuen arabera. Halaber, zaborra sailkatzen ere saiatu dira, ahal izan duten heinean. Gainera, fibrozementua ere bazegoen, eta, kutsagarria denez, bereizi eta gorde egin dute. Mankomunitateak kudeatuko du bildutako zabor guztia eta aurrerago jakin ahal izango dute ze kopuru den birziklagarria.

Kontzientzia piztu gura dute

Besaideko presidentek azaldu du Zapatei kobarena ez dela kasu isolatua: "Arrasaten hainbat koba daude zikin". Era berean, Doradok dio "betidanik" egon izan dela joera zaborra kobazuloetara, "ikusten ez den lekue-tara", botatzeko. "Baina kobazuloetatik ura doa eta zaborra- ren edozein substantzia txertatzen da urean. Gero, ur hori akuiferora doa eta guk akuiferotik edaten dugu edo ur hori erabiltzen dugu ganaduarendako". Ildo beretik, Corcuera zera salatu du: "Zaborra dagokion lekura bota beharko genuke, ezin dugu onartu natura daukagun moduan edukitzea. Kobazuloak horrela edukita, geure buruari kalte egiten ari gara, gero guk edaten dugulako iturburu horietatik".

Alde horietatik, kontzientzia piztu gura dute eta kobazuloak zaintzeko dei egin diete herri-tarrei. "Pentsatzen ari gara kartel bat jartzea, garbiketaren berri emanez eta, era berean, errepikatu ez dadila eskatuz", nabarmendu du Iturbek.

Bisitarako moduan geratu da

Garbiketa eginda, bisitarako moduan geratu dela adierazi dute. Kilometro eta erdi inguru ditu kobak, sei sarrerarekin, eta lautan topatu dute zaborra. 45 metroko putzu bat ere badu sakonean. "Garbitu ostean, oso polita dela berretsi dugu".

Era berean, espero dute datozen urteetan koba gehiago garbitu ahal izatea halako auzolanekin, esan bezala, Arrasaten beste koba batzuk zikin daude eta: Arremena eta Sara, esaterako.

Doradok gaineratu du, oro har, jakin ohi dutela ze kobatan dagoen zaborra: "Baina apurka goaz garbitzen, urtean garbike-ta bat edo bi egiten ditugu".

Pirinioetako Bidea ekimenean parte hartzeko, autobusak

Uztailaren 2an, Iparla –mendi-zaleentzat– eta Astate –denentzat aproposa– tontorrek argizatutako dituzte arrasatearrek. Besaidek eta Gure Eskuk autobusak antolatu dituzte hara joateko. Izena emateko, bi bide: Besaideren lokalean, martitzen eta eguaz-tenetan, 19:30etik 20:30era; eta Portaloian, egubakoitzetan 18:30ean eta zapatuetan 11:00etan.

Arizmendi Ikastolaren eguna ospatuko dute gaur Biteri plazan

Egun osoko egitaraua prestatu dute, nahiz eta ekintza gehienak arratsaldean izan. Goizeko ekintzak ginkana eta danborrada izango dira eta arratsaldean, berriz, denetarik egongo da. Era berean, askotariko tailerrak egongo dira: aurpegi margotzea, marrazkiak koloreztatzea, mural kolektiboa eta abar. Egitarau osoa *Goiena.eus*-en dago.

Memoria ibilaldia antolatu du Aurrera Bolie ekimenak

Hilaren 18an egingo dute, 10:00etan Biteri plazatik irtenda. Ziorla, Bakue, Malbe eta abar zeharkatuko dituzte oinez, "duela 60 urte belaualdi oso batek Euskal Herrian bultzatu zuen pizkundearen ibilbidean gelditue bat egiteko". Era berean, zuzeneko lekukotzak jasoko dituzte eta ahots propioz ezagutuko dute orduko testuingurua.

Avesantes elkarteak udalekuak antolatu ditu, ingelesez

Ekintza "dibertigarriak eta sortzaileak" egingo dituzte astebe-tez, ekainaren 27tik uztailaren 1era, ingelesezko udalekuetan. Avesantes elkartearen lokalean eta Santa Teresa ikastolako patioan izango dira saioak, 10:00etatik 13:30era. Izena emateko, *englisharrasate@gmail.com* helbidera idatzi edo 615 39 23 64 telefonora deitu.

Digitalizazioari bultzada emateko, 40.700 euro

Udalak eta Ibai-artek lankidetzak hitzarmena sinatu dute herriko saltokiak sustatzeko, eta 72.000 euroko laguntza emango dio lehenak bigarrenari. Horietatik 40.700 euro izango dira merkatariek digitalizazio estrategia lantzeko eta bide horretan laguntzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Ohiko hitzarmenari dagozkio 31.000 euro, eta hainbat ekintza egiteko bideratuko ditu Ibai-artek: Merkemerkaua, moda desfilea, Arrasate Blues eta abar.

Bestetik, digitalizaziorako estrategia lantzeko, 40.700 euroko laguntza emango dio Udalak Ibai-arteri. Izan ere, azaldu dutenez, pandemiaren ondorioz "agerian" gelditu dira hainbat aspektu: "Denda txikiek mundu digitalera salto egiteko daukaten beharra, teknologiak aurrera egin duela baina txikizkako denden digitalizazioak abiadura motelagoa daramala eta bezeroekiko harremana garatzeko beharra, besteak beste".

Internet, erakusleiho

Jon Apraiz merkatarien elkar-teko kideak adierazi du ez dutela sinisten online salmentetan, "ezinezkoa delako enpresa handiekin lehiatzea". Hori dela eta, azaldu du "produktuak erakus-

teko eta bezeroak komertzioetara erakartzeko" erabili behar dutela digitalizazioa. "Ez dugu gura 50 denda online izatea eta kaleak hutsik egotea. Alderantziz, Internetek erakusleiho izan behar du guretzat, eta bezeroak komertzioetara etortzeko balio dezala horrek".

Horretarako, merkatariek formatu pertsonalizatuak jasotzen ari dira, "bakoitzak ondoen datorkion bidea hartzeko eta dituen beharrei ahalik eta ondoen aurre egiteko". Ideia da komertzio bakoitza modu autonomoan gai izatea produktuak online erakusteko.

Bonu kanpainari ere bultzada

Euskadi Bono-Denda kanpaina martxan da, eta Udalak 30.000 euroko ekarpena egin du. Hala, Arrasaten 3.000 bonu gehiago daude. Bonuak 10 euroko deskontuetan oinarritzen dira 30 eurotik gorako erosketak egiteko. "Baliatu aukera", dio alkateak.



Amaia Cegiaga, Jon Apraiz eta Maria Ubarretxena. E.A.

NIRE USTEZ



JOHANNA SANCHEZ

Itxaronaldia

Azkenean, Kataide pasealekua irekita eta konponduta dago. Azkenean, ia 700 metroko ibiltokia dugu, eraberrituta eta guri egokituta. Azkenik, zuhaitz hostotsuen artean ibil gaitezke paseatzen, parajeak eskaintzen dizkigun ikuspegiez gozatzen, trafikoaren kerik gabe eta edozein ordutan, iluntasunaren beldurrik gabe, argiztapen-sare berriari esker. Azkenean, oinezkoak zein txirrindulariek goza dezakegu.

Argi dago itxaronaldiak beti izaten duela saria, laburra izan arren, betierekoa izan arren. Kasu honetan, hiru hilabeteko itxaronaldia izan da, inbertitutako diru asko; baina merezi izan du, ezta?

Bai, jaun-andreok, Kataide itxaronaldia izan da. Itxarote zoriontsua, etsigarria, bereizgarria... Jaiotzaren aurreko betiko itxaronaldia, lehen urratsekiko betiereko itxaronaldia, lehen hortza erortzearekiko itxaronaldia, eskolako lehen egunekikoa, graduazioarekikoa, lehen maitasun-hitzorduekikoa, lehen lan-elkarrizketarekikoa. Fruituak goiz edo berandu ematen ditu itxaronaldiak, betierekoa izan arren, beti duelako saria.

Ekainak 10 ostirala

Ekainak 11 larunbata

GUZTIAREN

BEZ^{*} + %5 EKO

AURREZPEN GEHIGARRIA^{*}

oparituko dizugu

* (EROSKI Hipermerkatuetan egindako 90 €-tik gorako erosketetan, erosketaren BEZari dagokion zenbatekoa gehi egindako erosketaren % 5 sartuko dizugu zure EROSKI club txartelean. EROSKI club txartelean sar daitekeen gehieneko zenbatekoa: 250 €. Kontuak gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita supermerkadu.eroski.es/esu webgunean ere.

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE

Tel.: 943 71 10 30

Bizilagunen baimena zuntza jartzeko, "gakoa"

Alde zaharreko bizilagun ugari kexatu dira, partikulari edota Zuntza 2021 taldearen izenean, instalakuntza "motelegi" doala iritzita. Udalak eta obrak egiten dabilen Zelen enpresak adierazi dute Erdiko kaleko komunitateen "erantzunen zain" daudela

Hasier Larrea ARRASATE

"Uste baino zailagoa egiten ari zaigu atarteetako bizilagunen komunitateen baimenak jasotzea, obrekin aurrera egin ahal izateko". Horixe adierazi du asteon Zener Plus SL enpresako obra zuzendari Ana Isabel Rodriguezek. Arrazoiak komunitateetako presidenteeekin duten "komunikazio eskasean" datzala dio: "Dei bidez eta atarteetara bertaratu ta saiatu gara orain arte, baina, sarri, ez dugu erantzun garbirik jaso. Horregatik, hemendik aurrera atarte bakoitzean dauzka-gun kontaktuei Whatsapp mezuak bidaltzen hasiko gara, eraikin bakoitzean egiteko asmoa dugun interbentzioen berri eman eta komunitateetako arduradunen oniritzia dugun edo ez jakiteko". Izan ere, ezin dute lanekin aurrera egin erantzunen bat falta baldin bazaie, "derrigorrez" jakin beharrean daudelako lanak planteatzeko orduan zein atartetakoek nahi duten zuntza instalatu eta zeintzuek ez.

Zehazki, Erdiko kaleko 1. eta 32. atarien arteko bizilagunen komunitateei egin diete dei, gune horretan ekin nahi diotelako obren hurrengo faseari. Guztira, bederatzi fasetan banatu dute zuntz optikoa instalatzeko proiektua: "Erdiko kalekoa laugarren fasea izango litzateke; lehenengo hiruretako lanak eginak daude ia erabat, Maala kaleko 27. eta 35. atarien artean eta Ferrerías kale osoan", adierazi du Ander Garayk, Udaleko Tokiko Gobernuako Batzordeko kideak.

Beraz, Udalak espero du dagoeneko lanak eginak dauden guneetako bizilagunek "aurten" izatea zuntz optikoa erabiltzen hasteko aukera. Aurretik, baina, Internet zerbitzuaren estaldura emango duen MasMovil enpresak ikuskatu behar ditu emaitzak, eta "bizpahiru hilabete" behar dute horretarako.



Zuntz optikoa jartzeko lanetan, urtarrilean, Ferrerías kalean. ENEKO AZURMENDI

2023KO AZAROAN AMAITZEN DA UDALAK ETA ZELN ENPRESAK SINATUTAKO LANAK EGITEKO AKORDIOA

Falta diren guneak

Erdiko kaleko gune horretako baimenak jaso ostean hasiko dira beste guneetako bizilagunen komunitateekin harremanetan jartzen. Hurrenez hurren, honela jarraituko luke prozesuak: bosgarren fasea Erdiko kaleko 34tik 60ra eta Gazteluondo kaleko 3tik 13ra garatzeko litzateke, seigarrena Iturriotz kaleko 18tik 30era, zazpigarrena Iturriotz kaleko 1etik 7ra, zortzigarrena Olarte kaleko 18tik 6ra eta bederatzigarrena Maala kaleko 23tik 1era. Udal Gobernuak jakinarazi duenez, fase bakoitzak bi hilabete eta erdi behar ditu exekutatzeko.

Lan konplexuak

Alde zaharrean zuntza instalatzeko lanak iazko azaroan hasi zituzten, eta Udalak 189.253 euro ordainduko dizkio, guztira, Ze-

sel enpresari, fasez fase. Kontratuak bi urteko epea dauka; ondorioz, 2023ko azaroan aurreikusten dute proiektu osoari amaiera ematea. Komeni da gogoratzea Arrasateko alde zaharra monumentu historikotzat daukala Eusko Jaurlaritzak: "Kategoria hori da wifi konexio bizkorra instalatzeko zailtasunen iturburua; debekatuta dago kableak fatxaden kanpoaldeetan kokatzea. Ondorioz, atari eta etxebizitza barrutik interbenitu beharra dago, horrek dakarren konplexutasun guztiarekin".

Hori esanda, Udal Gobernuak pazientzia eskatu die inplikaturak daudenei, eta lanak "erritmo onean" doazela adierazi du.

"Ulergaitza da"

Zuntza2021 taldetik adierazi dute atarteetan baimenak lortzeko kanpaina abiatu zutela "aspaldi", eta lanak egitea onartu zuten komunitateen berri baduela Udalak: "Ez duguna ulertzen da zergatik dauden oraindik erantzunik eman ez dutenen zain, epea amaitu zen. Aitzakia iruditzen zaigu, lanen planifikazio eskasa ezkutatu eta bizilagunak egiteko atzerapenen erantzule".

Sanjuanen bueltan 71 ekintzaz gozatuko dute festazaleek

Txupinazoaren aurretik, hilaren 17, 18, 19 eta 21erako ere antolatu dituzte ekitaldiak, Dantzari Eguna barne

H.L. ARRASATE

Arrasateko Udalak eta txosna batzordeak prest dute aurtengo sanjuanetako egitaraua. Guztira, zortzi egunetarako programatu dituzte jaiei begirako ekitaldiak, datorren barikutik hasita. Egun horretan, Arrasate Musikalek ikasturte bukaerako kontzertua emango du Amaia antzokian, 19:00etan. Une berean, Goikobalu abesbatzak kale-kantua egingo du erdigunean zehar, eta, ordu erdi geroago, Herrixa Dantzan jarriko dute Biteri plazan Portalo elkarteak.

Zapatu goizean, Baserritarren Azoka egingo dute Seber Altuben, eta 19:00etan, haurren danborradak girotuko du erdigunea, musika bandaren doinuekin eta SUDC elkarteak antolatuta.

Domekako egitarauari Dantzari Eguna deitu diote; haurrak protagonista izango dira 11:00etako kalejiran eta 13:00etako Herriko Plazako emanaldian. 19:00etan, Gauargik dantzaldia egingo du, gainera, toki berean.

Ekainaren 21ean, martitzena, AEDk antolatutako 35. Arrasate literatur lehiaketan sari banaketa ekitaldia egingo dute Kulturaten, 19:00etan.

Festa lehertuko da 23an

Ekitaldi mordoak pilatuko dira lau egunez jarraian, sanjuane-tako bezperan hasi eta domekara arte. Eguenean jaurtiko dute txupina txosna batzordeko kideek, 12:00etan. Uarkapen egingo dute herri bazkaria, eta arratsaldean makala jasoko dute, 18:00etan, Herriko Plazan. Errementari dantzari 21:00etan ekingo diote, eta amaitzean piztuko dute San Juan sua. 23:00etatik aurrera, txosnetako kontzertuen eta nagusien danborradaren txanda izango da.

San Juan egunean, entzierroa, meza nagusia, erraldoi eta kili-kien konpartsa, musika bandaren kalejira eta kontzertua, ohorezko aureskua eta 80 urtetik gorakoen omenaldia izango dira goizean zehar; hortik aurrera, kultura ekitaldi ugari izango dute tokia.

Zapatuan, haurren eta gazte-txoen festa eguna izango da, eta *Zeuk in zeuk jan* herri bazkaria egingo dute azoka plazan. Domekan, osteran, Anariren kontzertuak borobilduko ditu sanjuanak Herriko Plazan.

GOIENAK datorren asteeko zenbakian landuko ditu gaiok.

GORA ETA BEHERA



Isurketak Deba ibaian, San Andresen

Herriar batek honako argazki hau bidali zion GOIENari joan den martitzenean, eta gehitu: "Kontrol piloa egiten dizkiete arrantzaleei, baina gero, erreka zikintzen denean, ezer ez".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

ARTren inklusio taldearen eta amen debuta dator

Arrasate Rugby Taldeko inklusio eta amen taldeek zapatuan egingo dute debuta txapelketa ofizialetan. Amen taldeak Master Series txapelketa jokatu du Gasteizen eta inklusio taldeak Hernanin egingo du debuta, Landaren inklusio txapelketan

Danel Alvarez ARRASATE

Zapatuko garrantzi handiko eguna izango da Arrasateko Rugby Taldearentzat; izan ere, egun horretan jokatu dute euren historiako aurreneko partidua bai amen taldeak zein talde inklusiboak ere. Duela gutxi sortutako taldeak dira hauek, eta eguna egutegian gorri markatuta daukate arrasatearrek.

Amak, Gasteizera

Amen taldeak Gasteizen egingo duten Masters Series txapelketan egingo du debuta zapatu goizean. Bertan, Gasteizko Gaztedi Errugbi Elkarte Kama-lehoiak taldearekin eta Mungia-ko hainbat kideekin batera jokatu dituzte 25 minutu iraungo duten hiru partidu. Fase hau irabaziz gero, arratsaldean jokatu dute finala Espainia osotik etorritako beste hainbat talderen aurka.

Amen talde horrek, hain zuzen, errugbi inklusiboko taldearekin gertuko hartu-emana dauka; izan ere, tartean daude gazte horien zenbait ama. Ez dira, baina, denak, klubeko beste zenbait jokalariren amak ere batu dira-eta proiektura. Bada, martxo inguruan osatu zuten taldea; horretarako, ate



Arrasate Rugby Taldeko amen taldea, Gasteizen egindako lan-saioetako batean. ART

irekien zenbait jardunaldi antolatu dituzte, eta eredu gisa hartu dute Gaztedi Errugbi Elkarte Kama-lehoiak taldea, talde hori ere halaxe sortu zuten eta. Era berean, talde horretako kideekin hainbat lan-saio egin dituzte hilabete hauetan Gasteizen bertan, eta erreferentetzat dituzte.

Talde inklusiboa, Hernanin

Talde inklusiboa, berriz, pandemia aurretik sortu zuten, baina oraindik ez dute txapelketa ofizialean debuta egin.

Hala, zapatuan jokatu dute, Hernani Rugby Clubak sortutako Landaren Inklusiboko bosgarren edizioan. Aniztasuna eta inklusibitatea sustatzeko helburua du ekimen horrek. Taldeak mistoak izan ahalko dira, genero zein aniztasun funtzionaleko mugarik gabe, zazpi taldek jokatu dute txapelketa, eta talde bakoitzak 30 minutuko hiru norgehiagoka jokatu ditu.

Txapelketa jokatu ostean, berriz, garagardo azokan bazkalduko dute elkarrekin.

Ekainaren 15era arte eman daiteke botoa AKS sariketan

Hilaren 16an egingo duten ekitaldian banatuko dituzte sariak; Udalaren webgunean eman daitezke botoa

X.U. ARRASATE

"Pandemia dela-eta bi urtez geldi egon gara, baina uste dugu herriko kirolaren alde lanean ibili diren kirol elkarteetako ordezkariak, eta kirolariei euren errekonozimendua egitea garrantzitsua dela. Eta denbora tarte honetan bistan geratu da zenbat kirol egiten den Arrasaten, ze kirol jardura ezberdin dauden, eta, gainera, zer-nolako emaitzak izan dituzten. Bada, AKSak lan hori txalotzeko eta errekonozitzeko asmoarekin datoz", adierazi du Ander Garayk, Kirol zinegotziak, aste barruan.

Hala, AKSak irabazteko hautagaiak aurkeztu zituzten Udaleko ordezkariak prentsaurrekoan, baina sariketaren gaineko xehetasun gehiago emango dituzte datorren astelehenean. Herritarrek, hala ere, dagoeneko egin dezakete hautagaien arteko au-


keraketa boto bidez; Arrasateko Udaleko webgunean dute horretarako aukera: arrasate.eus.

Bederatzi hautagai

Kirolari onenaren sarirako bederatzi hautagai daude herritarren botoen zain, eta hor daude Ander Murua pilotaria, Maria Jose Gil atleta, Miren Apraiz triatleta, Yaman Mjahed borrokalari, Beasain futbol taldeko ordezkari Mikel Aizpurua eta Igor Gordobil, Malen Ruiz de Azua atleta, Mondrate areto futbol taldea eta Ointxe!-ko bai emakumezkoen eta baita gizonen talde nagusiak ere. Ibilbidearen saria ere herritarrek aukeratu dute, eta hautagaiak dira Mariano Arrieta eta Joxe Antonio Aranburuzabala –hilotzoko titulu bezala–, Karmelo Bergaratxe, Jon Basurko eta Maria Jose Gil.

Sailkapen fasea Madrilen

Amateur mailako borroka arte mistoetako Espainiako Txapelketa jokatu dute ekainaren 25ean Madrilen, eta hitzordu horretara begira Yaman *Diamante* Majhed-ek kanporaketa borrokaldia du asteburuan. Arrasatekoak WOW6 jaialdian hartu zuen esku duela hilabete, eta irabazi egin zuen borrokaldia. Arrasatekoak kontratua sinatu du WOW etxearekin.



WOW

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

arbolapeta

beinke

arrasate

Pandeiretak panderoekin batuko dira domekan

Euskal Herriarekin lotura estua duen Faltriqueira talde galiziarra izango da Arrasateko bigarren pandero jaialdiko gonbidatuetakoa bat; gainontzeko bostak jatorri euskaldunekoak dira. Emanaldia Amaia antzokian egingo dute, 18:30ean hasita

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasateko Trikitixa Eskolak, Udalarekin elkarlanean, ordu eta erdi inguru iraungo duen jaialdia antolatu du etzirako. Panderoa erdigunean jartzen duten bost talde igoko dira ohol-tzara, bakoitzak hiru abesti jotzeko. Maixa Lizarribar antolatzaileak Arrasate Irratian adierazi duenez, "gogotsu eta pozik" jaso dute gonbidapena parte hartzaileek.

Lau euskal talde

Hala, panderoa jotzeko hainbat estilo uztartuko ditu jaialdiak. Musika klasiko eta modernoko goi-mailako ikasketak dituzte, esaterako, Iparraldeko Maider eta Jerome Martineau lehengusuek. "Beti ezagutu dugun panderoa jotzeko modua erakutsiko du, berriz, Laja II.a eta Lutxur-dio bikoteak". Kopla berriekin etorriko dira, oster, Imanol, Motriko eta Leturia: "Plaza asko dituzte bizkarrean, trikitilari handien pandero-joleak izandakoak baitira hirurak; gainera, Arrasateri eskainitako kopla bat joko dute", aurreratu du Lizarribarrek. Ekitaldiari dantza ukitua erantsiko diote, gainera, Kimua dantza kolektiboko kideek; Trikitixa Eskolako irakaslearen hitzetan, dantzari "trebeak" dira, "eskarmentu handikoak". Kimuak taldekoek panderoa joz egingo dute dantza oraingoan, eta, besteak beste, Kepa Junkeraren eta Xabi Solanoren ikuskizunetan ibilitakoak dira.

Faltriqueira, berriz hemen

Galiziarrek ere badakite zer den panderoa astintzea Junkerak trikitia jo bitartean, Maria Lopez taldekideak baieztatu bezala, Euskal Herria eta Galizia artean garatu baitute euren musika ibilbidea. Korrontzi eta Oskorri taldeekin aritu izan dira, gainera, eta Pascal Gaigne zinema



Faltriqueira taldeko hiru kide, zuzenekoan. LA VOZ DE GALICIA

SARRERAK 'ARRASATE.EUS' ATARIAN DAUDE ESKURAGARRI, 10 EUROKO PREZIOAN

konpositorea da euren diskoen ekoizlea. Lopezek sareetan argitaratuak dituzten lanak entzuteko gonbidapena egin du, Gaignek abesti bakoitza film baten mailara igotzen duela argudiatuta: "Kolareak, ñabardurak eta sonoritate goxoak erasten dizkio".

Kantuen kalitatearen meritu handiena, baina, boskotearena da. 20 urte eskasekin sortu zuten Faltriqueira Pontedeume herrian, 2000ko hamarkadan: "Hasieratik izan genuen garapen itzela, eta esku artean itsatsita dugun pandeiretak ireki zizkigun kanpora irteteko atek. Urteak pasata, amatasuna eta proiektu pertsonalak tarteko, pultsua jaitsi genuen, 2008ko krisiak folk jaialdiak gogor kolpatu zituela ahaztu gabe". Hala ere, inoiz ez diote elkartzeari utzi, "iraungitze datarik gabeko" taldea osatzen

dute eta. Arrasaten hiru kide azalduko dira, eta Galiziako musika tradizionalen inspiratutako abestiak joko dituzte, "maitasuna, askatasuna, bizitza, heriotza eta halako gaiak ikuspuntu humanistarekin" aurkeztuta.

Esku-kolpe berezia

Pandeireta jotzeko modua, bestalde, estilo euskaldunaren kontrakoa da: "Mugimendua eskuin eskuarekin egiten dugu; hau da, pandeireta hartzen dugun eskuarekin. Ezker eskua, berriz, estatikoago dago. Euskal Herrian alderantziz egiten dute, libre dagoen eskuak egiten baitu mugimendua".

Bi herrialdeetako erritmo folklorikoak ere "desberdinak" direla aipatu du Lopezek, hementxoak, "beste arlo kultural askorekin gertatzen den bezala, parekorik ez duela" gaineratuta.

Nolanahi ere, badago oinarriko zerbait euskal eta galiziar musika tradizionalak partekatzen dutena: lanetik eratorritako kolpeak. "Garia ehotzetik, arropa garbitzetik edota harrobiko harria txikitzetik sortu izan dira erritmoak".



Arrasate Musikaleko, Donostiako Orfeoiko eta Kultura Saileko arduradunak. GOIENA

Donostiako Orfeoiarekin, 'Carmina Burana' lantzeko

250 musikarik, herrikoen presentzia nabarmenarekin, obra ezaguna joko dute Uarkapen, uztailaren 2an

H.L. ARRASATE

Aurten, Arrasate Musikalek 50 urte beteko ditu, eta Donostiako Orfeoia 125. urtemugako ospakizunetan murgilduta dago. Testuinguru horretan, bi taldeek bat egitea hitzartu dute, XII. eta XIII. mendeen artean idatzitako bertsoak oinarri dituen *Carmina Burana* obra zuzenekoan jotzeko. Bai musika eskolako eta baita orfeoiko ordezkariak "oso pozik" azaldu dira jadanik garatzen hasi diren elkarlanaz. Orfeoiko korularien ahotsei gehituko zaizkie, gainera, Gokobalu abesbatzako eta Txorbe-

la otxoteko kantarienak. Hitzordua uztailaren 2rako programatu dute, zapatua, 20:00etan hasita. Guztira 1.042 ikus-entzulerendako tokia egongo da udal pilotalekuan. 20 euro balioko duten sarrerak Monterrongo musika eskolan, Amaia antzokian eta Monte, Kajoi eta Ezkiña ta-bernetan eskura daitezke.

50. urtemugako logoa

Arrasate Musikalek mende erdiko ibilbideari eskainitako logotipo berria aurkeztu du, bestalde, eta kamisetak aterako dituzte laster.

Arrasate Blues jaialdiaren lehen mokadua bihar

Ibai-artek antolatuta, Herriko Plazan egingo dute lehen kontzertua, ekaineko bakarra. Wax & Boogie taldea izango da protagonista, 19:00etan hasita; azkenaldian, bluesaren, rhythm and bluesaren eta boogie-woogiearen panoraman formatu onenetako eta baloratuenetako bat bihurtu da. 2019an, esaterako, bigarren talde onenaren saria jaso zuen Asconako (Suitza) Jazzaldi Internazionalen. Taldekideek musika beltzaren hizkuntzaren "ezagutza zabala, aberatsa eta askotarikoa dute", antolatzaileen esanetan. Ekitaldia Arrasate Blues zigilua daramaten poloak eta garagardoak aurkezteko ere baliatuko dute.

Doke antzerki eskolako ikasleen obrak, taulara

Bigarren urtez jarraian aurkeztuko dizkiote publikoari Doke antzerki eskolako gaztetxoek ikasturte osoan zehar landutako antzezlanak Amaia antzokian. Astelehenean, hilak 13, 18:00etan hasita, *Barrerik egiten ez zekien printzesa* taularatuko dute, eta, jarraian, 19:00etan, *Kukubel* izeneko obra; bi horiek ipuin tradizionalen oinarritutako lanak dira. Martitzenean, ordu berean, beste bi talde igoko dira ohol-tzara, *Badago ala ez dago* eta *Denboraren lerroa* izeneko antzezlanak interpretatzeko. Lehenengo Yolanda Arrieta ipuin kontalariaren istorioan dago oinarrituta, eta bigarrena ikasleek eurek sortutako testua da.

SUV gama Hibridoa eta elektrikoa

Merkatuko ECO gama osatuena



Hyundai BAYON
Hilean

130 €-tik aurrera

- 130 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 3.285
- Azken kuota: 9.608,49
- UTB: %9,01*
- TIN: %7,50



Hyundain badakigu zein garrantzitsua den zuretzat modu iraunkorrean mugitzea.

Horregatik aurkezten dizugu merkatuko **SUV Gama Hibrido eta Elektrikorik** osoena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

Bayon Hibridoa (48V): merkatuko osatuena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

KONA Gama: ezagutu Hyundai KONA Gamaren aldakortasun harrigarria eta gozatu haren bertsio hibrido eta elektrikoarekin.

TUCSON Gama: ohikotasunetik haratago joango zara TUCSON Hibridoaren eta TUCSON Hibrido entxufagarriaren diseinu ausartarekin eta azken teknologiarekin.

SANTA FE Gama: gozatu beste maila batean SANTA FE Hibridoarekin eta SANTA FE Hibrido entxufagarriarekin, eta haien 7 plaza zabalekin.

Hyundain lanean ari gara karbono-aztarna ezabatzeke. %100 gama elektrikoa European 2035erako.



HYUNDAI MUGARRI OARSO CAR
San Andres kalea 6 • Arrasate
943 79 70 06



5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

8 URTE **Bateriaren**
bermea

'Aita Mari' bultzatzeko olatu solidarioa bihar

Aramaixo Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia egingo du bihar. Betiko moduan, jaia baino zerbait gehiago izango da: ekintza bera elkartasun jai bihurtu ohi dute. Aurten, Izaskun Arriaran aramaioarra boluntario den proiektua bultzatuko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Aramaixo Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia egingo du bihar, zapatua. Ospakizuna elkartasun jai bilakatuko dute olatu solidarioaren bitartez. Eskolatik hasi eta herriko plazaraino bultzatuko dute *Aita Mari* ontzia –sinbolikoki, maketa bat izango da–.

10:30ean elkartuko dira eskolan. "Gura duenak izango du *Aita Mari*-ri laguntzeko aukera, ekarpen ekonomikoa eginez", azaldu du eskolako zuzendari Saioa Uriartek. Hala, eskumuturreko solidarioak banatuko dituzte borondatearen truke. Ondoren, eskolatik plazaraino jarriko dira ilaran eta *Aita Mari* itsasontziaren maketa bultzatuko dute eskolatik plazaraino.

Proiektua lantzen

Eskolako ikasleek asteon landu dituzte *Aita Mari* proiektuaren nondik norakoak. "Izaskun Arriaranekin harremanetan jarri gara eta hango bideoak ikusi ditugu", dio Uriartek.

Gainera, atzo, eguna, bideo-konferentzia egin zuten *Aita Mari* ontziarekin. Eskolako 102 ikasleak lau gunetan banatuta egon ziren eta ontzian egiten dituzten lanak ikusi eta galderak egiteko aukera izan zuten.



Atzo, eguna, *Aita Mari*-rekin egindako bideo-konferentzia. A.E.G.

OLATU SOLIDARIOA AMAITUTAKOAN ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK IRTENGO DIRA

Jaia eta bazkaria

Olatu solidarioa amaitutakoan, eskolako buruhandiak eta erraldoiak aterako dituzte eta kalejiran joango dira berriro ere eskolara. Bazkaria eskolako jangelan egingo dute: "90 bat

lagun elkartuko gara", esan du Uriartek. Ondoren, bingoa eta euskal jolasak izango dituzte eta 17:30erako amaituko dute.

Azken bi urteetako geldialdiaren ondoren, ikasturtea normal egin dute aurten Aramaion: "Ohiko erritmora bueltatu gara eta aurrera egin dugu guztiarekin". Maiatzaren 27an, esaterako, *Ir a Kurrin Kurrin* irakurketa dialogiko saioa egin zuten Andra Marin: "90 lagun elkartu ginen eta, hain zuzen, *Venezia-ko misterioa* liburuaren inguruan jardun genuen".



IMANOL SORIANO

Orixol, ospakizun betean

50. urteurreneko ospakizunekin jarraitzen dute Orixol Mendizale Elkartek. Mendi Astea amaitzeko, kale erronkak egingo dituzte gaur, 19:00etan; eta domekan, mendiko filmen emanaldia izango dute, 18:30ean, kultura etxean. Urteurreneko ekitaldi nagusia joan den zapatuan izan zuten, familia argazkiarekin eta bazkariarekin.

Zarzueta emanaldia egingo dute gaur kultura etxean

Titania konpainiak *Chateau Margaux* zarzueta egingo du gaur, barikua, kultura etxean, 19:00etan. Virginia Mauleon piano-jotzailearekin batera bost abeslari igoko dira taulara: Montserrat Sanchez, Alfredo Cortes, Iñaki Barrio, Charo Martinez eta Jose Ruiz de Azua. Manuel Fernandez Caballeroren musika interpretatuko dute.

Domekan Gorbeialdeko Musika Topaketa egingo dute

Gorbeialdeko Kuadrillako musika topaketa egingo dute domekan Ondategin. 10:30ean hasiko dute eguna, aurkezpenarekin, eta ondoren, egun osoko jaia izango dute. Aramaioko Musika Eskolak jaialdian parte hartuko du. Bi emanaldi egingo dituzte: 11:00etan eta 13:30ean. 16:00etan amaituko dira ekitaldiak Ondategin.

GORA ETA BEHERA



Poetak Maiatzean ekimena baita Aramaion ere

Irakurle batek txalotu eta eskertu egin du 2022ko Poetak Maiatzean ekimenaren ekintzak herriraino iritsi izana. *Kristalezko orrialdeak* sailarekin, Arabako lurraldeko hainbat erakuslehoi apaindu dituzte idatzizko bertsoekin; irudian, *El paso* poema.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Kamisetak berriak salgai

Aramaixo Herri Eskolak izen eta logotipo berria dauka. Hori horrela, irudi berria duten kamisetak atera ditu Guraso Elkartek. Kamisetak bertatik bertara ikusi eta probatzeko aukera egongo da bihar. Kamiseten eskaera egiten den unean ordaindu beharko da: 10 euro. Edurne Kortabarriak egin du diseinua eta bi koloretan atera dituzte: urdina eta grisa.



Mahuka motzeko kamiseta urdina. GURASO ELKARTEA

"Samurrago sartzen dira golak ondo jokatuz gero"

ASIER DEL CAMPO ARETO FUTBOL JOKALARIA

Pilota utzi eta arteto futboleant hasi da aurten Del Campo. Liga borobila egin du Aramaioko taldeak: igoera lortu du; horren isla izan da Del Camporen 'Pitxitxi' saria

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Arabako Zilarrezko Ligan, 2021-2022 denboraldian, gol gehien sartu dituen jokalaria izan da Asier del Campo aramaiarra. Denboraldia hasita sartu zen taldean, bosgarren jardunaldian. **Golegile onenaren saria irabazi duzu Zilarrezko Ligan. Espero zenuen?** 36 gol sartu ditut ligan, eta, egia esan, ondo ibili gara, baina lehia-tua izan da saria. Izan ere, bazegoen beste jokalaria bat, Andoni Infante, Lakuabizkarra taldekoa. Azken aurreko jardunaldian 35-36 gol genituen... Beraz, azkeneko jardunaldian erabaki da txapelketa.

Golegile onenaren sariatz gain, Aramaioko futbol taldeak liga ere irabazi du. Denboraldi hasieran jarritako helburuak bete dituzue?

Uste dut talde ona izan dugula. Hala ere, Dinamo Lakuabizkarrak talde ona izan du eta bien arteko lehia polita izan da denboraldi osoan zehar. Azken finean, *Pitxitxi* saria eta liga lotuta doaz. Liga ona egin dugunez, erraztasun gehiago izan ditut golak sartzeko. Gure artean ere motibazioa izan dugu, eta, liga txapelketa izatea espero genuen arren, zail izan dugu.

Non egon da garaipenaren gakoa? Taldean baditugu 25-26 urte bitarteko jokalariek, eta horiek lagundu digute momentu zailetan burua bere lekuan izaten eta erabaki onak hartzen. Uste dut hori izan dela liga irabazteko gako nagusia.

Noiz sortu zen Aramaioko taldea? Orain dela hiru urte sortu zen. Brontze Mailan hasi genuen liga eta hortik Bigarren Mailara pasatu ginen. Iaz, ezin izan ginen igo, eta aurten berriro ere jokatut dugu maila berean eta igoera lortu dugu. Hiru urteko ibilbidean bi igoera lortu ditugu; hortaz, pozik egoteko modukoa dela esan daiteke.

Denboraldi berrian Arabako Lehenengo Mailan jokatuko duzue.



Asier del Campo ligako garaikurrarekin eta golegile onenaren garaikurrarekin. A.E.G.

"TALDEKO BETERANOEN LAGUNDU DIGUTE BURUA BERE LEKUAN IZATEN"

Mailari dagokionez, igarriko da aldea?

Arabian talde lehiakorrenak direnak egongo dira Urrezko Liga horretan; horregatik, uste dut igarriko dugula aldea. Aurten, Zilarrezko Ligan bost talde izan gara lehiakorrak; uste dut datorren denboraldian beste era batera izango direla gauzak.

Taldeari begira, herriko jendearekin jarraituko duzue ala beste herri batzuetako jokalariek ere izango dituzue?

Berez, herriko jokalariek bakarrik gaude taldean, eta entrenamenduetan jende faltan gaude. Hurrengo denboraldiari begira, herrikoekin hasteko asmoa dugu; gainera, nabarmendu behar da gazteak oso gogotsu daudela futboleant egiteko. Hortaz, alde horretatik, pozik gaudela esan daiteke.

Beteranoek taldea uzteko asmoa dutela diozu. Nola eragingo du horrek?

Bai, pena da. Ondo etortzen da esperientzia duen jendea izatea taldean, baina gazteekin egin beharko dugu aurrera.

Etxean jokatzen dituzuen partiduetan, harmailak bete egiten dira?

Bai; domeka arratsaldeetan jokatzen dugu, eta uste dut plan polita izaten dela herriko jendearendako futbol partidua ikustera etortzea. Harmailak bete egiten dira eta giro polita egoten da.

Aramaioko mailan, egun, gehien jarraitzen den kirola da areto futbola?

Pilotan ez dabilta neska-mutiko asko, eta gero eta partidu gutxiago jokatzen dituzte. Hain zuzen ere, areto futbola da gehien jokatu eta ikusten dena herrian.

Bailara mailan, Eskoriatza eta Arrasate Euskadiko Ligan dabilta. Horien aurkako derbiak jokatzea amesten duzue?

Oso ondo egongo litzateke derbiak jokatzea, nahiz eta oraindik bide luzea dugun egiteko. Hala ere, ondo jokatuz gero lortu ahal izango dugu.



Gurasolagun taldeak San Bittorrera egindako irteera. JONE GOITIA

Gorbeialdeko Mintza Eguna ekainaren 18an izango da

Euskara ardatz hartuta egun osoko egitaraua antolatu dute mintzalagun guztientzat; Izarran izango da jaia

A.E.G. ARAMAIO

Gorbeialdeko Mintzalagunen eta Gurasolegunen topagune izango da Izarra ekainaren 18an. Euskara ardatz hartuta egun osoko jaia antolatu dute Gorbeialdeko Mintza Eguna ospatzeko.

Askotariko planak

10:30ean, plazan elkartuko dira eta bi plan izango dituzte aurretik: Gurasolegunek antolatuta jolasak edo Goiuriko ur-jauzira ibilaldia.

12:30ean, dantza erakustaldia izango dute Haize, Arantzabe-

lako, Orbela eta Triskari dantza taldeen eskutik. Dantzak amaitutakoan, mintza-poteoa egingo dute herrian zehar.

15:00etan, herri bazkaria egingo dute; eguraldi ona bada Ostuñon eta txarra bada frontoian. Parte hartu gura duenak izena eman beharko du ekainaren 13a baino lehen, horretarako prestatu duten galdetegi beteta. Bazkariaren prezioa izango da 15 euro nagusiendako eta 10 euro 12 urtetik beherakoendako. Bazkalostean, kantu-saioa izango dute Joxe Mendizabalekin.

Aramaioko pilota txapelketan sei bikote lehiatuko dira

Sei bikoteak bi taldetan banatu dituzte eta liga eran jokatuko dute, gaur, barikua, 18:00etan hasita

A.E.G. ARAMAIO

Gaur hasiko dute Aramaioko pilota txapelketa. Hamabik eman dute izena; bikoteka jokatuko dute txapelketa. Bi multzo egin dituzte: A multzoan, Endika-Ander, Edorta-Mikel, Kuku-Jon Ander bikoteak lehiatuko dira; eta B multzoan Beñat-Asier, Julen-Sarabia eta Mikel-Markel.

Txapelketan izena eman duten hamabi pilotari horietatik hiru federatutakoak dira.

Txapelketa ligaxka eran jokatuko dute, gaur hasita. 18:00etan izango dira partidua, frontoian,

barikuetan –ezin denean, zapatu goizetan jokatuko dute–. Multzo bakoitzeko bikoteek ligaxka eran jokatuko dute elkarren aurka.

Finalak San Martin jaietan jokatuko dituzte. Hala, jaietan, uztailaren 2an, izango da finala. Multzo bakoitzeko lehenengo bikoteak jokatuko du txapelketako finala. Horrez gain, egun horretan, hirugarren eta laugarren postuak ere erabakiko dituzte: multzo bakoitzeko bigarren sailkatuak jokatuko du hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke lehia.



Unai Elgoro alkatea, Ibai Larrabe arkitektoa eta Koldo Zubillaga zinegotzia proiektuak aurkezten. MIRARI ALTUBE

Hiru proiekturen artean hautatzeko epea, zabalik

Ibarra kiroldegiaurrealdeko berdegunean zer egin erabakitzekeo prozesuaren baitan zehaztu dituzte hiru proposamenak eta ekainaren 13tik 17ra bitartean botoa emateko aukera izango dute 6 urtetik gorako herritarrek, Arkupen edo online

Mirari Altube ARETXABALETA

Maiatzaren 12an hasitako parte-hartze prozesuaren xehetasunak eman dituzte Unai Elgoro alkateak, Koldo Zubillaga Kirol zinegotziak eta Ibai Larrabe udal arkitektoak, eta datorren astekeo bozketa iragarri. Bilera hartan parte hartutako herritarrek askotariko aukerak proposatu zituzten. "Proposamen horiek ikuspuntu teknikitik aztertu dira, bideragarritasuna ebaluatuz eta hiru aukera posibletan egokituz", azaldu du alkateak.

Zubillagak gogoratu gura izan du 2021eko aurrekontuetan jaso zutela parte-hartze prozesu hori, baina atzeratu egin behar izan zutela, "pandemiak aurrekontuak berrantolatzea eta lehen-tasunak ezartzea behartu zuelako". Aurten, proiektuari heldu gura izan diote: "Parte-hartze prozesu berri baten barruan, aisialdiaz eta kirolaz gozatzeko espazio honen erabilerak nola osatu adosteko". Gaineratu du bozketaren emai-

tzak zehaztuko dituela ondo-rengo pausoak: "Emaizta jakin arte itxaron beharko da exekuzio-epeen estimazioa egin ahal izateko, alternatiba bakoitzaren dimentsioa eta kostua ezberdina dira eta".

Hiru aukera

Hiru proposamenen artetik bakarra hautatu beharko da. Lehenengoan proposatu dituzte berdegunean egokitzea zuhaiztia, ur-jolasak, mahaia eta lasai egoteko lekua; kirol ekipamendu txikiak ere sartu dira: kalistenia, ping-ponga eta mahai-jokoak. Bigarrenean, kirolari eman diote lehentasuna, honako hauek jarrita: kirol askotariko pista ireki bat eta beste bat estalia,

BI AUKERA ZELAIRA MUGATU DIRA ETA HIRUGARRENAK JASO DU OINEZKOENTZAT EGOKITZEA INGURUA

ping-pong mahaia, kalistenia, minibasket kantxa bat eta padel pista estaliak. Eta hirugarrenean planteatu dute lasai egoteko gune bat egokitzea berdegunean, zuhaitzekin, mahaiekin, ur-jolasekin eta kirol ekipamendu txikiekin. Eta, era berean, Markole auzoaren inguru hori oinezkoentzat egokitzea proposatu da; hala, padelerako edo beste kirol modalitate batzuetarako ekipamendu estaliak kokatu ahal izango dira futbol zelaiaren ondoan –zirkulazioarendako itxita eta aparkalekuak kenduta–.

Astebete botoa emateko

Botoa emateko epea zabalik izango da ekainaren 13tik 17ra bitartean. 6 urtetik gorakoek –2016an jaiotakoak barne– bozkatu ahal izango dute –Aretxabaletan erroldatutakoak–. Arkupen eman ahal izango da botoa, edo online –lotura, *aretxabaleta.eus* webgunean–, norberaren datuak beteta.

Euskararen partidua irabaztea helburu UDAk eta Auzokok

Futbol partidua antolatu dute ekainaren 16rako, 16 urtetik gorakoendako, eta izena aurrez eman behar da

M.A. ARETXABALETA

Euskara ardatz izango duen futbol partidua antolatu dute UDAk eta Loramendi euskara elkarteak Auzoko ekimenak, Udalaren laguntzarekin. Ekainaren 16an, eguna, jokatu da (18:00-19:00), Ibarrako futbol zelai txikian, eta izena aldeztu aurretik eman behar da; hona hemen bideak: 645 70 88 63 edo *auzoko.loramendielkartea@gmail.com*. Horretarako azken eguna ekainaren 14a da.

"Partidua euskaraz jokatu da, baina bertaratu daitezkeen beste hizkuntza guztiak ere ongi gietorriak izango dira", adierazi dute antolatzaileek. Herritar guztiei –16 urtetik gorakoak– zabaldu dizkiete ateak eta asmoa da hamabost laguneko bi talde osatzea; hala, 30 lagunek izena emandakoan itxi egingo dute –itxarote-zerrenda zabalduko da–.

Partiduak hogeit minutuko bi denbora izango ditu, tartean hamar minutuko atsedendia-rekin. Ez jokatu arren animatza joateko gonbidapena egin diete herritarrei.

'Euskara jalgi hadi plazara'

Bestetik, euskara kirolean sustatzea helburu duen *Euskara jalgi hadi plazara* futbol txapelketaren lehen edizioan izango da UDA. Bihar, ekainak 11, jokatu dute, Lezaman (Bizkaia), lau talderen artean, eta harekin batera izango dira Bilboko Hamabi Futbol Kluba (Bizkaia), Tuterako Union Tuter (Nafarroa) eta Ortzaizko Arranoak (Nafarroa Beherea). Bertsolariak ere izango dira txapelketa girotzen, eta antolatzaileek jakinarazi dute sari berezia emango diotela euskara gehien erabiltzen duen taldeari.

Zahartzaroa aukera gisa lantzeko bi hitzaldi egongo dira

Adinekoen bakardadeari aurre egiteko programaren barruan hitzaldi bi antolatu ditu Udalak; hain zuzen ere erretiratuek osatutako Aretxabaleta Lagunkoia-rekin batera lantzen diharduen proiektua da hori.

Javier Yanguas gerontologo eta psikologian doktoreak eta Marije Goikoetxea Iturregui psikologo eta teologoak ekaina-

ren 14an eta 20an emango dituzten bi hitzaldien gai nagusia zahartzaroa aukera gisa lantzea izango da; Arkupen izango dira biak, 17:30ean.

Zahartzaroa bizitzeko modu berri baterantz da Yanguasen hitzaldiaren izena, eta erretiroa hartzean aurre egin beharreko erronkei erantzuten saiatuko da aditua. Deustuko Unibertsitateko irakasle den Goikoetxeak, ostera, *Bizitza irautea eta entrenitza baina gehiago* da izenpean jardungo du.

Musika eskolako ikasleak emanaldiak egiten dabilta

Gaur, egubakoitza, konbo taldeak emanaldia egingo du Arkupen (19:00), eta martitzenean, hilaren 14an, kantu taldearen txanda izango da (19:00).

Era berean, zabalik dago musika eskolaren matrikulazio kanpaina. Bertako bulegotik pasatu behar da –17:00-19:00–, edo helbide honetara idatzi: *leizarra.matrikulazioa@gmail.com*.

Ikasturtea agurtzeko jaia egingo dute bihar Kurtzebarrikoek

Murala margotzen ekingo diote egunari (09:00) Kurtzebarri eskolakoek bihar eta altxorraren bila erraldoiarekin jarraitu (11:00). Batukadak ez du hutsik egingo, eta buruhandiak eta erraldoiak izango dituzte lagun (12:30). Pilotalekuan elkartuko dira bazkaltzeko (14:30), eta arratsaldean (16:00), ur jolasak, musika eta bolo txapelketa izango dira.

Migel Elorzak jarraituko du Basotxoko presidente

Zuzendaritza batzordea berritu dute erretiratuek eta "lanerako gogotsu" agertu dira sartu diren kideak; ildo horretatik, datozen asteetan jarduera berri bat jarriko dute abian, pertsonen arteko harremanak sustatzeko helburuarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Ia 900 bazkide dituen erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin du, eta zuzendaritza batzordea berritu; diru-kontuak ere onartu dituzte eta aurtengo jarduerak iragarri: helburua da pandemia sasoian bertan behera utzitakoak berreskuratzeko; 90 urtekoei omenaldia, esaterako.

Lanerako "gogoz"

Batzordean zuten ardurari agur esan diote hiru lagunek –Aitor Alberdi, Vicente Vicario eta Luis Unamuno– eta horien ordeztu beste hiru sartu dira. Hortaz, honako kide hauek osatzen dute orain zuzendaritza: Migel Elorza, presidentea; Kontxi Romano, presidenteordea; Ramiro Gomez, diruzaina; Jose Ramon Prieto, idazkaria; Pedro Etxebarria eta Juan Tomas Zabala, Aretxabaleta Lagunkoiaren arduraduna eta Agijupenseko ordezkaria; Emilio Inda, hitzaldien antolatzailea; Mari Carmen Corres, komunikazio arduraduna; Nieves Gonzalez, bidaien arduraduna; eta Juan Cruz Diez, kultura eta jai kontuen antolatzailea.

Elorza presidentea pozik agertu da kide berriak –Prieto, Zabala eta Diez– "lanerako eta ekimen berriak abian jartzeko



Zuzendaritza batzordeko hainbat kide bileran, Elorza eskuinaldean dela. MIRARI ALTUBE

gogoz" sartu direlako. Gainera, erabaki garrantzitsua hartu beharko dute datozen asteetan: Basotxoren eraikinean lanak hasten dituztenean elkartearen egoitza non kokatu.

Zuzendaritzan sartu direnen eta irten direnen arteko bazkaria, hainbat udal ordezkarekin batera, ekainaren 22an egingo dute.

Harremanak sustatzea

Jarduera berri bat jarri gura du abian zuzendaritza batzordeak datozen asteetan. Ariketa fisikoa

egin eta elkarren arteko harremanak sustatuko ditu horrek eta Atxabalta Mugi ekimeneko aditu baten laguntza izango dute horretarako. Zuzendaritzaren asmoa da astean behin Basotxon elkartzea kafea hartzeko (10:00); ondoren (10:30), arnas ariketak egitea komentuko lorategian; eta bukatutakoan, paseoan jardutea ibaiaren ertzean (11:00). Interesa duenak aldeztu aurretik eman behar du izena Basotxoko bulegoan –astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 12:00etara–, ekainaren 23a baino lehen.

Harresian Zulo taldearen doinu dantzagarriak etzi

Euskal abestiak eta doinu afrikarrak reggae musikarekin, folkarekin eta runbarekin uztartzen dituen Harresian Zulo taldeak *Ezinbestean kolorez* diskoa aurkeztuko du aretxabaletarren aurrean domekan. Herriko Plazan izango da kontzertua (19:00) eta txalapartak, albokak, djembeak, kaxoiak, darbukak eta tamak, besteak beste, bat egingo dute gorputza astintzeko musika sortuz.

Eguaztenean, hilaren 15ean, ostera, Hutsun + Ortzi konpainiak *Urbasa* ikuskizuna egingo du Herriko Plazan (19:00). Txalaparta doinuak eta zirkuko joko eta akrobaziak bateratuko dituzte ezohiko emanaldian.

Degurixa ingurua gertu mendizaleak hartzeko domekan

XI. mendi martxa antolatu du Murrukixoko mendizale elkarteak, UDArekin batera, domekarako, eta 28 kilometro pasatxoko ibilbidea gertatu die mendizaleei. Herriko Plazatik abiatuko dira horiek (07:00), eta izena egunean, han bertan, eman beharko dute.

Honako hau izango da ibilbidea: Urkulutik Ugastegira –anoa postua egongo da–; GR-121 ibilbidea hartuta Arantzazu aldera, eta gero, Degurixara –anoa postua egongo da–; eta Kurtzebarritik bueltan Aretxabaletara. Murrukixoko kideek adierazi dutenez, ez du aparteko zailtasunik ibilbideak: "Mendian ibiltzera ohituta daudenek ez dute arazorik izango".

GORA ETA BEHERA



Belarra hazita eta sugeen bizitoki

Herriar batek salatu gura izan du Olazabal lantegiko zubi alboan sugeak agertzen direla sarri: "Horregatik, eskatzen dugu inguru horretan hazten den belarra moztea urtean hainbatetan".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

San Pedro jaietako berritasunak, aurkeztuta

Sanpedroek egun bat gehiago izango dute; pregoilariak osasun langileak izango dira; urrezko axtrokien erreplika berriak egin eta erakusketa izango da... Gainera, San Inazio bezperan izango den ikuskizun piromusikalaren berri eman dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

San Pedro jaiak ekainaren 28an hasiko dira, eta, jaietarako pres-tatutako egitarau osoa laster aurkeztuko duten arren, udal ordezkariak jaietarako hitzordu garrantzitsuen eta berritasunen gaineko prentsaurrekoa egin dute asteon.

Aurten, San Pedro jaiak ekainaren 28an hasiko dira eta egun bat gehiago izango dute, uztailaren 2ra arte, hala, asteburua ere ondo aprobetxatzeko. Jaiei hasiera emateko ardura osasun arloan lan egiten duten hainbat eskoriatzarrek izango dute. "Aurten, pandemia ondorengo lehenengo jaiak izango dira, baina ez ditugu iraganeko uneak ahaztu nahi. Pandemian sektore soziosanitarioek egin duten lana aitortu nahi dugu. Horregatik, jaietako pregoilariak izango dira. Pandemiaren unerik gogorrenean lehen lerroan egon ziren, pandemiaren unerik gogorrenetan lehen borroka



Joserra Zubizarreta, Vulcanoko ordezkariak, Haritz Zubia eta Antonio Regaño. I.B.

lerroan egon ziren, haien bizi-tzak arriskuan jarritz beste batzuk salbatzen laguntzeko. Hilabete haietan orduak, ametsak eta senideen besarkadak eta musuak sakrifikatu zituzten. Gizarteak lan hori aintzat har-

tu eta baloratzen jakin zuen. Udalak ere parte hartu nahi du esker on horretan, eta herri osoaren aurrean egin nahi dugu, San Pedro jaien hasieran", adierazi zuen Antonio Regaño, Eskoriatzako Udaleko jaien

arloko zinegotziak. Pregoiaren ostean egingo den brindiserako, gainera, Eskoriatzako merkataria ere gonbidatuko dituzte udal ordezkariak, pandemian egindako lana eskertzeko.

Ekintza berriak

Sanpedroetako programan, berritasunen artean azpimarratzekoak bi hitzordu hauek dira: batetik, ekainaren 28an, 17:00etan, 2021ean jaietako haurrei ongietorria egingo zaie udaletxean, eta haien lehenengo txupinazorako gertu egoteko jaietako zapia oroigarri gisa eman eta talde argazkia aterako da. Bestetik, ekainaren 30ean, dastatze solidarioa izango da, eta bertan haragi tapa txiki bat dastatu ahal izango da; Eskoriatzako elkarte gastronomikoetako ki-deek eginga. Dirua, berriz, Ukrainako gerrako kaltetutakoentzat izango da.

Axtrorien erreplika berriak

Jaietako beste hainbat hitzordu esanguratsu aipatzeaz gain, San Pedro egunaren bezperan, ekainaren 27an, Ibarraundi museoan irekiko den erakusketaren berri ere eman zuten. Izan ere, Axtrorikiko ontziak aurkitu zituzten 50. urteurrena izanda, erreplika berriak egin dituzte, eta horiek ikusteko bisita gidatuak egingo dira. Bisitak San Pedro jaien egunetan izango dira, eta baita ere uztail osoan zehar, martitzenetan.

San Inazio bezperan, ikuskizuna

Jaien gaineko nondik norakoak aurkezteaz batera, San Inazio bezpera egunerako antolatu duten ikuskizun piromusikalaren berri emateko ere aprobetxatu zuten udal ordezkariak, horretaz arduratuko diren Vulcano pirotekniko ordezkariak bertan zirela aprobetxatuta. Juan Karlos Zubia arduratzen zen ikuskizun honetaz, eta haren omenez egingo dute ikuskizuna. "Guretzat galera garrantzitsua izan zen Juan Karlos Zubiarena, eta hasieratik garbi genuen omenaldi handi bat antolatu beharra geneukala. Hark herriari asko eman zion, eta ekitaldi berezia izango da", adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkateak.

Uztailaren 30ean 22:45ean izango da piromusikala, eta kultura etxeko eraikinaren atzean behar-rean –piromusikala egiten zen ohiko lekua–, estazio zaharrean izango da ikuskizuna. Aurkezpenean Haritz Zubia, Juan Karlos Zubiaren semea, izan zen; eskerrak eman zizkien Eskoriatzako udal ordezkariak, herriari, eta baita ikuskizunaz arduratuko diren Vulcano pirotekniko kideei.

SEKTORE SOZIOSANITARIOAN LANEAN ARI DIREN ZENBAIT HERRITARREK EGINGO DUTE PREGOIA

Kamiseta arrosak jantzita, Herri Eskolako jaia ospatzera

Zapatu honetan, goizetik iluntzera arte bitartean ekintza ugari izango dira plazan eta eskolako patioan

I.B. ESKORIATZA

Urtero bezala, ekaineko bigarren zapatuan ospatuko da Luis Ezeiza Eskoriatzako Herri Eskolako jaia. Adin guztietarako jardueraz betetako eguna izango da, eta herritar guztiak animatu nahi dituzte eskolako jaira, hala, bide batez, ikasturteari amaiera emateko, eta baita egun eder bat ondo pasatzeko.

Jolas eta tailer ugari

10:00etan hasiko dira, pregoiarekin, eta trikiti eta pandero doinuekin kalejira egingo dute

herrian zehar, Luis Ezeiza Herri Eskolako jaia dela herritar guztiei ohartarazteko. 11:00etan, berriz, Fernando Eskoriatza plazan eskolako ikasleen emanaldiak izango dira, batez ere, guraso eta lagunei zuzendutakoak, eta ondoren, jolasak, tailerrak eta buruhandiak izango dira. Horietan, aurpegi margoketa, maskarak, txapak, papiroflexia, eskumuturreko tailerra eta karaokea izango dira, haurren gozamenerako. Baita hegazkin jaurtiketa, lokotx bilketa, zibak eta sokatira ere.

Goizeko jarduerak amaitzean, 14:00etan, herri bazkaria egingo da Luis Ezeiza Herri Eskolako patioan, eraikinaren arkupeetan. Arratsaldean, berriz, puzgarriak, egurrezko jokoak, bingoa, karaokea, apar festa eta DJ Arkozen animazioa izango dira. Azken hau 18:30ean hasiko da eta 21:30ak bitartean musika ezberdina entzun ahal izango dute bertaratuek.

Marea arrosak koloreztatuta

Zapatu honetan, Eskoriatzan, marea arrosa sortu nahian, zapatuko eskolako jaia koloreztatzeko asmoa dute antolatzaileek. Hori horrela, *Hezi eta hazi* lelopean Herri Eskola publikoa indartzeko eta bultzatzeko egingo dako kamisetak jantzita irteteko animatu nahi dituzte eskolako ordezkariak herritarrek.

EGA azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa irailean

Uztailaren 5a izango da izena emateko azkeneko eguna, eta plaza kopurua mugatua dela azpimarratu dute

I.B. ESKORIATZA

EGA izenez ezagutzen den eta Europako Erreferentzia Marko Estandarrean C1 maila parekatzen duen azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa eskainiko dute Leintz Udal Euskaltegiak aurtengo irailean.

Batxilergo arteko ikas-prozesu osoa euskaraz egin duten ikasleek euskarazko B2 mailaren egiaztatzea jasotzen dute. Baina aisialdian aritzeko nahiz lan munduko lanpostu askotarako euskara maila bat gehiago egiaztatzea eskatzen da, hain zuzen

ere, C1 maila, eta, jakinik gazte askok maila hori egiaztatzen gertu egon arren egiaztatu barik dutela, azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa egingo du Leintz Udal Euskaltegiak.

Ikastaroak bi atal izango ditu, lehena idatzizkoa prestatzeko eta bigarrena ahozkoa prestatzeko; baina ez da derrigorrez biatarako izena eman behar, baterako zein besterako eman daiteke. EGA azterketaren idatzizko zatia urri hasieran izango denez, prestakuntza ikastaroa irailean egingo da.

Elkarlana eta maitasuna ardatz, astea antolatuta

Aste Zapatistari astelehenean emango diote hasiera EskoZap elkarteko kideek. Datorren zapatuta arte orotariko ekintzak izango dituzte, eta, horiek aurrera eramateko, norbanakoen eta herriko hainbat elkartetako kideen laguntza izango dute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Egoiliarrei bisita eta haiekin herrigunean paseoa, hitzaldiak, herri bazkaria, musika eta bestelakoak izango dira Eskoriatzako Aste Zapatistaren barruan. Betiere, "maitasunez egindako festa hau, beste mundu bat eta hobeago bat izan dezakegula adierazteko helburuarekin", EskoZap elkarteko kideen esanetan.

Programari hasiera emateko, *Euskara, jatorrizko hizkuntza eta sorkuntzaren soinua* hitzaldia egingo du Xebe Diez euskal aktore, eguraldi iragarle eta polifazetikoak. Kultura etxean izango da hitzordua, eta Chiapasko kafea eta pastak ere egongo dira bertaratuentzat. Martitzenean, berriz, Jose Arana nagusien egoitzako egoiliarrek bisitatu eta herrian zehar paseoa egingo da trikiti doinuekin, haurrentzako piñatak jarriko dituzte eta Dorleta Kortazar eskoriatzarraren ipuin kontaketa ere egingo da. Asteko ekintzen artean, azpimarratzeko hitzorduak izango dira, bestalde, *Construcción de justicia para las mujeres de Chiapas* izenpean Mexikoko Colectiva Cereza-koekin bideokonferentzia.

Hildakoak oroitzuz

Egubakoitzean, aldiz, aipatzekoa da Tzonpantli Margoketa eta Cempazutzi loreen tailerra. "Aste Zapatista antolatzen urte askoan laguntzen aritu den lagun bat hil da, eta, hura gogoan, aldare bat egingo dugu, Mexikon oso ohikoa dena. Garezurak margotuko ditugu, paperezko loreak ere egingo ditugu...", adierazi du Oihana Irazuk, EskoZapeko kideak. Zapatuan, besteak beste, herri bazkari mexikarra egingo da plazan, eta txartelak hamabost eurotan erosi daitezke Eskoriatzan, Inker-nun, Nairan eta Urrestillan, eta Aretxabaletan, Txikibarren.

Laguntza eskertuta

Aurtengo programa prestatzeko laguntza handia izan dute, eta eskerrak emateko aprobetxatu dute EskoZapetik: "Eskoriatzan Feminismo Bizirik taldekoen eta Atxorrotx Kultura Elkarteko laguntza eskertu nahi izan dugu. Beti behar dugu laguntza, eta aurren, bereziki. Izan ere, gure elkarteko hainbatek ezin izan dute oraingoan lagundu, eta beste elkarte batzuen babesa izatea izugarria da".



2018ko Aste Zapatistan, Ahinara Zubizarreta eta Rosa Sanchez. IMANOL SORIANO

Egitaraua

Astelehena, 13

- **19:00** Xebe Diezen hitzaldia, kultura etxean.

Martitzena, 14

- **17:00** *Udaberri paseoa* egoiliarrekin.
- **17:30** Piñatak, plazan.
- **18:00** Dorleta Kortazarren ipuin kontaketa, Gernika plazan.

Eguaztena, 15

- **19:00** Colectiva Cerezakoekin bideokonferentzia, Zaldibar antzokian.

Eguena, 16

- **17:00** Mural parte-hartzailea Ibai Urretarekin, Kimu ile-apaindegiko paretan.
- **18:30** Piñatak, plazan.

Egubakoitza, 17

- **11:00** *Beste mundu bat posible delako* lurre Romaretazabalarren hitzaldia, Luis Ezeizan.
- **18:00** Gaztetxer lehiaketa, plazan.
- **19:30** Loreen tailerra, plazan.
- **23:30** Oihu taldearen kontzertua, Inker-nun.

Zapatua, 18

- **11:00** Bigarren eskuko azoka, plazan.
- **12:00** Rosa Sanchez musikariarekin poteo musikatua.
- **14:30** Herri bazkari mexikarra, plazan.
- **16:00** Magia saioa eta tonbola, plazan.
- Goizean eta arratsaldean elektrotxaranga.

LEINTZ GATZAGA | 21



Hegoko iparra kantuaren sortzaileak abestia aurkezten. IMANOL SORIANO

Herriari eskainitako 'Hegoko iparra' kantua aurkeztu dute

Gatz Bidearen gaineko abestia estudioan grabatu eta bideoklipa egiteko asmoa agertu dute sortzaileek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA Gatz Bidea atontzeko lanetan jarraitzen dute Leintz Lotzen herri egitasmoko kideek, gutz-tiontzako irisgarria izateko asmoz. Bidea egoki jartzea, zaintzea, erabiltzea eta ezagutzera ematea da helburua, aurrera begira galduko ez den ibilbide bat izateko. Gatz Bidearen garrantzia aldarrikatzeko gogoz, *Hegoko iparra* kantua aurkeztu zuten domekan.

Herriari eskainitako kantua

Aitor Zilardegi Aretxabaletako musikariari eskatu zioten kan-

tua egiteko, eta herriko zein eskualdeko hainbat musikarik lagunduta egin zuten aurkezpena. "Gatz Bidearen garrantzia aldarrikatzeko eta ezagutzera emateko kantu bat egitea proposatu zidaten, eta hala sortu nituen doinua eta hitzak. Leintz Gatzaga herriari eskainitako kantua da, herriko eta eskualdeko bederatzi musikarik lagunduta osatu duguna eta herrian aurkeztu duguna. Laster estudioan grabatuko dugu eta ondoren bideoklip bat egiteko asmoa ere badugu", azaldu du Aitor Zilardegik.

"Atmosfera magikoaren" bila, Ana Bello piano-jolearen saioa

Dorleta Santutegiko zuhaizpean, domekan, 18:00etan izango da musikari madrildarraren kontzertua

I.B. ESKORIATZA

Ana Bello piano-jole madrildarrak kontzertua emango du domekan, Dorleta Santutegiko zuhaizpean. Emanaldia 18:00etan izango da, eta sarrera libre izango da, alderantzizko lehiatzaileekin. Hau da, kontzertua bukatzerakoan ikus-entzule bakoitzak jarriko dio prezioa emanaldiari.

Errepertorioaren barruan, Tiersenn, Einaudi, Beethoven, Debussy eta Albeniz konpositoreen pieza klasikoak sartzen ditu, besteak beste, eta horiek

eskainiko ditu domekan Leintz Gatzagan, egunerako prestatuko duten eszenatoki berezian.

Izan ere, kontserbatorioan piano ikasketak egin eta gero erabaki zuen Bellok ez zuela aretoetan piano emanaldirik eskaini nahi. Ingurune naturalean publikoarekin gehiago konektatzen dela adieraziz, atmosfera magikoa bilatu nahian, aire librean eskaintzen ditu emanaldiak: basoan, hondartzan, laku baten inguruan, kanpinean... eta orain, Dorletako Santutegiko zuhaizpean.

PENTEKOSTEAK 2022



Iazko jaietatik jaietako bergararrak eta Bergararekin lotura dutenak, familia argazkian. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO, IMANOL SORIANO ETA XAXAU



Kudrillen olinpiadetan txiki geratu zen zezen-plaza; Billegas izan zen garailea.



Aspaceko ordezkariak, suziria botatzeko gertu.



19 parte hartzaile goitibeheretan.



Zapatu goizean, gaupasa egin zutenen argazkia, Xaxauren arabera, "inoizko jendetsuena".

Jokin Bereziartua BERGARA

"Aurten, azkenean, bai, ezta? Pare bat urtez zain egon eta gero, azkenean, ospatu ahal izango ditugu Pentekoste jaiak behar den moduan, ezta? Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiet aspalditik ni hemen egon nadin laguntzaile ditudan Ibon Unamunori eta Alberto Mendikute-ri [...]. Txalo bero bat ere eskatuko dizuet Aspacekoentzat, aurten eurek izango dute-eta jaietari hasiera emateko ardura. Eta agur bero bat azterketak tarteko edo beste arrazoiaren bategatik jaiak ospatu ezingo dituzten bergarar guztiei. Gora Bergara! Gora Pentekoste jaiak!". Hitz horiek izan zituen hezur eta haragizko Bitorianatzok – aurten Ainara Uribesalgo bergararren ahotik, lehen aldiz –, panpinazko Bitorianatzok udal-letxe bakoian lur hartu eta berehala; gero, Aspaceko Eneko Ziarsolori, Agustín Toledori eta Aritz Bikuñari eman zien zientzia Uribesalgok. Aspaceko ordezkariak hunkituta bezain urduri hartu zuten hitza, suziria jaurti eta jaietari hasiera ofiziala emateko: "Ondo pasatu denok; betiere, errespetuz. Gora Bergara!".

Inoizko aje onena utzita itzuli dira

Bi urtez ezin gozatu egon ostean, igarri da herritarrak bereziki gogotsu zeudela aurtengo Pentekosteetarako. Aurreikusitako ekitaldi guztiak egin dira eta ia guztietan elkartu da jendetza; suziriaz harago, protagonismo berezia izan dute Aspacekoek

Jendea, "garai batean bezala"

Jaien biharamunean egindako lehen balorazioan, oso pozik azaldu da Gorka Artola alkatea: "Balorazio sakonagoa datozen egunetan egingo bada ere, esan daiteke aurreikusitako ekintza guztiak egin direla, eta giro ona egon dela herrian. Jaiak aurkeztu genituenean esan genuen jendea gogotsu zegoela, guztiok ere behar genuela kaleko bizitza berreskuratu, elkarrekin egon, eta horretarako baliatu ditugu bergararrok egun hauek. Ikusi dugu jendea pozik, disfrutatzen, garai batean bezala. Eta hori oso polita izan

da. Jende askok esan digu aspaldiko jairik onenak izan direla, beharra zegoen seinale". Horrez gain, bergararrek zein kanpotik etorritakoek oro har izandako jarrera positiboa azpimarratu du Artolak: "Elkar zaintzeko deialdia ere egin genien herritarrei, eta uste dugu hori horrela izan dela, eta bergararrek zein kanpotik etorri direnek oro har izan duten jarrera positiboari esker izan dela". Amaitzeko, jaiak posible egiteko lanean jardun duten guztiei esker ona adierazi die alkateak, Udal Gobernuaren izenean.

Txosnak: egunero hornitu behar

Aurtengo nobedade esanguratsuenetako bat izan da Xaxau jai herrikoien konpartsak kudeatzen duen txosnagunea Bideberritik Oxirondo azokako parkingera lekualdatu dela. Xaxaukoek bazuten kezka aldatek nola eragingo zuen, baina euren aurreikuspen guztiak gainditu dituzte aurtengo Pentekosteek: "Oso balorazio ona egiten dugu. Espektatiba guztiak gainditu dira, jaietako egun guztietan egon da beteta txosnagunea. Ekintza guztietan egon da jendetza; azokako parkingak oso ondo funtzionatu du". Kon-

tzertuez eta bestelako ekitaldi jendetsuez harago, astelehen gaueko karaokea aipatu dute Xaxaukoek: "Aurten inoiz baino jende gehiago animatu da karaokean parte hartzera, eta uste dugu horrek erakusten duela aurten bereziki gogotsu zegoela jendea". Eta beste datu esanguratsu bat da orain arte ohiko jaietan egin izan diren eskaerak egin dituztela edariei dagokienez, eta aurten egunero hornitzen aritu behar izan dutela: "Ia dena agortzen zen egunero".

Esker on hitzak ere izan dituzte: "Une batzuetan egon den jendetzarekin lan egitea ez da erraza izan, eta zoramen une batzuk bizi izan ditugu barra barruan. Txosnak aurreikusitako ordu tarte guztietan egon dira zabalik". Eta, intzidentzia esanguratsurik egon ez bada ere, itzalen bat edo beste egon da: "Domeka goizean konturatu

GORKA ARTOLA:
"IKUSI DUGU JENDEA POZIK, DISFRUTATZEN, GARAI BATEKO JAIETAN BEZALA"



Kerobia indartsu aritu zen, ama bergararra duen Xabi Bandini gidari.



Barrakak astebete lehenago ireki zituzten.



Kataluniako, Bilboko, Urretxuko eta Oñatiko erraldoiak ere aurten.



Banda frontoian, euri arriskuagatik.



Pertxa elkartearena, bakailao onena.



Mokoloblock: "Oso giro polita" sortu zen.



Paulo Azpiazu bergararra harri borobilarekin, martitzeneko erakustaldian.

ginen baten batek kartel batzuk apurtu zituela; halako jarrerarik ez dugu onartzen". Datorren urteko jaien prestaketarako laguntza beharko dutela gogora ekarri dute: "Jende berririk ez bada batzen antolaketa lanerako, hurrengo jaietan ezingo dugu txosnagunea jarri".

Zezen-plazaren arrakasta
Zapatuko errektadoreen txapelketan izan edo asteleheneko kuadrillen arteko olinpiadetan, zezen-plaza goraino bete zen. Unai Arana *Xurra* bergararra

nagusitu zen errektadoreen erakustaldi ikusgarrian eta aipatzekoa da Anartz Almortza gazte bergararak debuta egin zuela. Txapelketari hasiera eman aurretik, hamabi errektadoreek prestatuta zuten omenaldi txikia egin zioten Bergarako Zezenak

XAXAU: "JENDETZA EGON DA EGUNERO, GURE AURREIKUSPEN GUZTIAK GAINDITU DIRA; ESKERRIK ASKO"

ganadutegiari eta Bergarako errektadore eskolari. Esker oneko hitzak izan zituzten Iñigo Almorzarendako eta Blas Cruzendako, eta oroigarri bana eman zieten. Olinpiadetakarako, bestalde, inoiz baino gogotsuago eta ausartago itzuli ziren kuadrillak, harmailak bereziki beteta zituen zezen-plazan askotariko probak egiteko; *Billegas* kuadrillak irabazi zuen 300 euroko saria.

Jana, kontzertuak, erraldoiak...
Ohiko otordu masiboak ere itzuli dira, egunero egon da

herri bazkariren bat. Astelehenekoa Seminarioko patioan egin behar izan zuten, euri arriskuagatik; euriagatik frontoira aldatu zuten, era berean, domekan bandak Espoloian eman behar zuen kontzertua. Bertaratu zirenek gozatu ederra hartu zuten. Lehiaketa gastronomikoak ere ezin falta jaietan; aurtengo bakailao onena Pertxa elkarteko Ander Errastirena eta Fernando Karasatorrerena izan da; Aspacekoek eman zieten saria. Kontzertu zerrenda luzea ere bazuen egitarauak,

eta oso jendetsuak izan dira, besteak beste, San Martin plazako Kerobiarena; azokako txosnaguneko Los Zopilotes Txirriaos, Añube, Lukiek, Ezpalak eta Laketenak; eta Irala kaleko Voces Navarras taldearen jotak.
Erraldoien familia ere ohikoa baino handiagoa izan da; izan ere, herrikoiez gainera, Kataluniako, Bilboko, Urretxuko eta Oñatikoak ere batu dira aurten. Guztira, 40 bat erraldoi ibili ziren jira eta bira kaleak alaitzen, umeen gozamenerako.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

121
K
KALITATEA

Enpresa Registrada Vº900525

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

San Martin Agirre eskolaren jaia gaur

Pandemiako etenaren ostean, formatu berriarekin dator festa: barikuz ospatuko dute, zapatuan beharrean, eta, egitarau zabal baten ostean, parrillada eta DJ Zangituren musikarekin emango diote amaiera. "Oso gogotsu gaude", diote Guraso Elkartetik

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA
Bergarako herri eskola, "guztio-na eta euskalduna", ikusarazi nahi dute ikastetxearen eta Guraso Elkartearen artean antolatutako festaren bitartez –izan ere, egun osoko festa izango da gaurkoa: eskola orduetako ekintzak ikastetxeak antolatu ditu; arratsaldekoak, ostera, Guraso Elkartek–.

Festa egun osokoa izango da, eta zapatuan beharrean barikuz –gaur– egingo dela da berrikuntza. "Pandemiak eragindako bi urteko etenaren ostean, oso gogotsu gaude gure eskolako jaia ospatzeko. Aurtun, gainera, barikuz egingo dugu, ekaina asteburuko planetarako sasoi aproposa dela kontuan hartuta, jende gehiagok parte har dezan", dio Guraso Elkarteko kide Lide Sebaiek.

Eta parte-hartzea polita izango da: 400 txartel saldu dituzte, esaterako, festa amaierako parrilladarako. 20:00etan izango da, eta askotariko haragia erreko dute parrillan. Bapojan ostean, dantzarako modua egongo da, "22:30ak edo 23:00ak aldera arte", DJ Zangiturekin.

Egitarau zabala

Amaierara iristerako, baina, makina bat ekintza izango da San Martin Agirre eskolako festan. Txupinazoak 09:15ean –LHn– eta 10:15ean –HHn– egingo dituzte. Trikitilariarekin kalejira egingo dute 09:30ean, eta 10:00etarako dago aurreikusita LHko ikasleen krosaren hasiera, Usondo parkean. Hamarretako osasuntsua egingo dute ondoren, fruta brotxetekin.

Ikasle guztiak festara batuta, tailerrak izango dira 11:00etan HHko eraikinean, eta 15:15ean jolasak HHko eta LHko neska-mutikoen artean. Musika talde bat ere osatu dute eskolako irakasle, ikasle eta senideen



Ume kuadrilla, 2019ko eskolako jaian. GOIENA

artearen, eta lau abestiko errepertorioa eskainiko dute 16:30ean.

Ordu berean, azoka –Ndank Ndank eta Larramendiko Arnasa elkarteetako postuekin–, tailerrak eta San Martin Agirren eskolaz kanpoko ekintza modura egiten diren pintura klaseak

MUSIKA, TAILERRAK, KROSA, AZOKA... ASKOTARIKO EKINTZAK DITUZTE EGITARAUAN

tako margolanekin erakusketa izango dira, eta txokolatada 17:00etan; 18:00etan, berriz, apar-festa eta jolasak –DBHko hamabi ikasle ariko dira umeei aurpegia margotzen, ponpa erraldoiak egiten...–. Honetaz guztiaz gain, festan zehar zozkatuko dituzte jairako ateratako txartelak.

Eskola komunitate osoa inplikatu da gaurko festaren antolaketan, Guraso Elkartetik adierazi dutenez, eta eurek ere ilusio handia jarri dutela diote. San Martin eskolak 420 ikasle ditu gaur egun, HH eta LH artean.



Ehundu ekimenaren aurreko saio bat. GOIENA

Lau saio egingo ditu Ehunduk hil honetan, martitzenean hasita

'Talde kudeaketa, antolaketa eta parte-hartze inklusiborako tresnak' izenekoak izango da lehen saioa

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA
Eraldaketa sozialerako jaio zen Ehundu dinamika lau saio antolatu ditu ekainerako, UNEDen. Farapi kooperatibako Nerea Elias izango da lehen saioan hizlari, eta *Talde kudeaketa, antolaketa eta parte-hartze inklusiborako tresnak* izango dira formakuntza saioan jorratuko dituzten gaiak. Martitzenean, hilak 14, izango da, 17:00etan.

Biharamunean izango da hurrengo saioa. Eguaztenarekin, Aiaraldea Ekintzen Faktoriako esperientzia ezagutuko dute Gartzzen Garaioaren eskutik.

18:30ean hasiko da hitzaldia. Aiaraldea Kooperatiba Elkartearen ekimena da Faktoria, euskara eta balio eraldatzaileak ardatz dituen.

Hurrengo bi asteetan

Beste bi saioak hurrengo bi asteetan izango dira, martitzenez, eta biak 18:30ean. Ekainaren 21ekoa Energia Berriztagarrien Komunitatearen lan saio irekia izango da. Astebete geroago, berriz, *Finantza etiko burujabeak* izenburudun hitzaldia egingo dute. Koop57-ko kideen ardura izango da azkeneko saio hori.

GORA ETA BEHERA



Garaguneko loreak ostu dituzte

Garaguneko langile batek bidalitako argazkia da, eta mezua ere igorri du: "Loreontzi horretan loreak landatu genituen maiatz hasieran. Oso politak zeuden. Joan den astean, ostegunetik ostiralera, harrapatu egin zituzten". Horixe salatu nahi izan du Garaguneko kideak mezu horren bidez.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





Koldo Eceolaza eta Pepita Letamendia, Bergarako Mariaren Lagundiko bi moja. M.L.

"Oso pobre gaude; jarraipenik ez dugu eta lan asko dago egiteko"

223 urte igaro eta gero, Bergarako Mariaren Lagundiak agur esango du, abuztuan Iruneko zentrorra lekualdatuko baitituzte; zazpi moja geratzen dira eta erabakia "penaz" jaso dutela adierazi dute Koldo Eceolaza eta Pepita Letamendia mojek

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
223 urteren ostean, agur esango du Bergarako Mariaren Lagundiaren komunitateak. Hain zuzen, zazpi moja geratzen dira herriko komentuan, eta guztiak Irunera lekualdatuko dituzte abuztuan. Horietako bi dira Koldo Eceolaza oñatiarra eta Pepita Letamendia aizarnarra. Oñatiarrak berrogeita hamasei urte eman ditu Urduñan, eta duela seitik dago Bergaran; aizarnarra, berriz, hainbat komentutan egon da: Erroman, Valladoliden eta Donostian, besteak beste.

Eceolazak eguna atzeratzea espero du. Erabakia "konturatu gabe" etorri dela dio Letamendiak: "Duela hiru hilabete jakinarazi ziguten Irunera joan beharko genuela, eta bajoi handia eman dugu. Hartu duten erabakia onartu egin

dugu. Orain ikusten dugu ez gaudela hemen jarraitzeko moduan".

Mariaren Lagundia, zergatik?

Hogeitaz inguru zituztela erabaki zuten biek moja sartzea. Euren egitekoa etxeko-lanak egitea izan da, eta, oraindik, horretan jarraitzen dute. Oñatiarrak aitortu du hasieran ez zuela Mariaren Lagundia ezagutzen. "Nik ez neukan ikasketarik, baina mila etxeko lan daude egiteko. Berdin zitzaidan zer egin. Haurrekin ere ibili naiz jangelan. Oso gustura egon naiz". Leta-

"DUELA HIRU HILABETE JAKINARAZI ZIGUTEN IRUNERA JOAN BEHAR GENUELA, ETA BAJOI HANDIA EMAN DUGU"

mendiaren kasuan, bi ahizpa zituen Jesus Maria komunitatean eta beste bat Mariaren Lagundian: "Nire ahizpek bi aldeetara tiratzen ninduten. Azkenean, komunitate honek ateak ireki zizkidan, eta ez naiz damutu".

Jarraipenik ez

Erlijioa indarra galtzen ari dela nabaritu dute Koldo Eceolazak eta Pepita Letamendiak: "Lehen, moja berriak urtean hiru egunetan sartzen ziren. Horrek asko animatzen gintuen. Euskal Herrian oso pobre gaude. Atzetik ez datoz, jarraipenik ez dugu eta hor lan asko dago egiteko". Arrazoiaz galdetuta, ez dute erantzunik.

Haurrak, bizipoza

Ez dira irakasle lanetan aritu: "Erantzukizun handia da haur bat hezte gaur egun". Hala ere,

egon diren lekuan egon direla, haurrak gertu izan dituzte beti. Horren adibide da Bergarako kasua ere, seiehun ikasle inguru baitaude Mariaren Lagundia ikastolan. "Guk ahizpa izatea erabaki genuen; beste batzuk, berriz, irakasle izan dira. Asko gustatzen zaigu haurrak ondo zaintzen ditugula esateak, guk ez zaindu arren. Indarrak ematen dizkigu horrek, hobeto tratatzen jarraitzeko".

Gainera, etxeko txikiek kalean ere ezagutu egiten dituzte. Eceolazak barrez kontatu du aurreko batean haur batek supermerkatuan ezagutu zuela eta amari moja zela esan ziola: "Horrek asko bete ninduen". Halaber, ikasleek ere badakite laster joango direla, eta "esnatu egin direla dirudi. Kalean kasu egiten digute, eta badirudi bizi garela".

Maiatzaren 21ean, Mariaren Lagundia ikastolako jaia ospatu zuten, eta bertan omenaldia jaso zuten mojek. Letamendiaren hitzetan, "zerbait berezia eta ona izan zen ekitaldi hura. Oso gertu sentitu gintuzten. Lehen, urtean behin elkartzen ginen meza egunean, eta eurekin egoten ginen, baina orain, haurrek jolastu egin nahi dute".

"AZKEN EGUNEAN, IRRIBARRE ETA OTOITZ BATEKIN AGURTUKO DITUGU BERGARARRAK"

"Jasotakoagatik eskerrak ematea dagokigu"

GOTZON IPARRAGIRRE
MARIAREN LAGUNDIA
IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Gotzon Iparragirre zuzendariak adierazi duenez, bazekiten erabakia lehenago edo geroago etorriko zela.

Nola hartu duzue albistea?

Zenbat dauden eta euren egoera zaurgarria dela ikusita, ez da sorpresa izan. Hala ere, albistea orain jasotzea ez genuen espero.

Komunitateak zer eman dio ikastolari?



GOIENA

Dena eman digute. Hazia eurek jarritakoa da, eta haiek hasitako lanari jarraitu diogu. Komunitatea murrizten joan da, eta harremanak ere puntualak izan dira, adinagatik. Jasotako guztiagatik eskerrak ematea dagokigu.

Pandemiak nola eragin du harremanean?

Azken bi urteetan, ez ginen ausartzen eurengana joaten, eta telefonoz hitz egin dugu.

Agur, Bergara

Momentuz, irteera eguna abuzturako finkatuta daukate mojek, eta, lekualdaketarekin lotuta, bergararrak "dena ematen" ari direla diote: "Baina, aldi berean, herriari kosta egiten ari zaio gu goazela onartzea. Joateko eguna iristen denean, "irribarre eta otoitz batekin agurtuko ditugu bergararrak".

Hiru agur ekitaldi

Alde batetik, San Pedro egunaren bueltan San Pedro parrokian izaten den kontzertua Mariaren Lagundiko elizan izango da, ekainaren 18an. Bestetik, Musika Eskolak diploma banaketa eta azken jaia egingo ditu elizan, hilaren 21ean. Azkenik, Ikastolak aurreratu du agur ekitaldi ofiziala uztailaren 1ean izango dela; Udalak eta herriko zenbait eragilek hartuko dute parte.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Casado Arsuagaren figuratik, Aroztegira

Bergaran ikusiko du argia aurrenekoz Luis Candaudapen eta Txus Melendezen 'JLC (Dibujos-Marrazkiak)' erakusketak; Jose Luis Casadoren figura du oinarrian, eta hainbat istorio kontatzen dituzten berrehun marrazkitik gora egin dituzte irailetik hona

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Luis Candaudapen eta Txus Melendezen *JLC (Dibujos-Marrazkiak)* erakusketa izango da ikusgai gaurtik ekainaren 26ra bitartean Aroztegi aretoan. Bergaran jarriko dute lehendabiziko berrehundik gora marrazkik osatzen duten obra; tartean koadro batzuk eta oihalak ere badaude. Bi artistak EHUKo Arte Ederren Fakultatean lizentziatuak dira. 1980ko hamarkadaren bigarren erdialdean erakusketetan parte hartzen zuten eta ez diote pintatzeari inoiz utzi. Nork bere bidea egin badu ere, elkarlanean ere aritu dira urte hauetan.

Erakusketa hurrengo ordutegian bisitatu ahal izango da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; domeka eta jaiegutetan, 12:00etatik 14:00etara.

Beste lan bat abiapuntu

Herrian aurkeztuko duten erakusketaren oinarrian, Jose Luis Casado Arsuaga Arte Ederren Fakultateko irakasleak eginiko koadro bat dago. Txus Melendezek adierazi du "keinu bitxia" igarri ziola Luis Candaudapek bientzat ezezaguna zen Casado Arsuagaren koadro bateko figu-



Luis Candaudap eta Txus Melendezen marrazkiak izango dira ikusgai Aroztegin. T.M.

rari: "Poseagatik, keinuren bat eskuan, pintura modernoaren aitzindari batzuk ere ikusi zituen; Picasso, adibidez. Haren figura batzuekin erlazioz gertatu genuen. Ideia tuntuna zirudien hasieran, baina gero, fintzen joan ginen".

Candaudap marrazten hasi zen Casado Arsuagaren lana abiapuntu hartuta, eta marrazkiak Melendezi bidali zizkion. Hor hartu-emanen sortu zen eta biak koadroen figurarekin hasi ziren lanean. Txus Melendezek gaineratu du "paraleloan halako segida bat" egin dutela, irudiak

gurutzatuz: "Batak bestearen iruditik zerbait hartu du edo errepikatu egin du bestearen marrazkia. Elkarbanatu egin ditugu gure irudiak, eta elkarriketa modukoa izan da". Melendezek baieztatu du Casado Arsuagaren lana ere izango dela ikusgai Aroztegin.

Hamaika istorio kontatzeko

Melendezek dioenez, norberak sortu ditu istorioak, kezkak, gorrotoak, haserreak eta zailtasunak, besteak beste. Halaber, Casadoren obratik abiatuta fa-

A5 tamainako papera, nagusi

Candaudap eta Melendez 2021eko irailaren amaieran hasi ziren marrazten; egunero pare bat marrazki. Azken egunetan ere lanean ibili dira, erakusketa aurkeztu baino pare bat egun lehenago amaitu baitute koadroren bat.

A5 tamainako orrietan margotu dute. Dena den, badira A4 neurriko irudiak eta oihalean margotutakoak ere. Jatorrizko lana, Casadorena, bertikala denez, formatu hori lehenetsi dute, baina Melendezek adierazi duenez, "noiz edo noiz horizontalean" ere egin dute, "baita formatu irregularretan ere". Papera izan da nagusi bikotearen lanean, eta, ondorioz, hainbat teknikaz eginiko lanak ikusi ahaliko dituzte Aroztegi aretora bertaratzeko direnak. Egileek aurreratu dutenez, "arkatza, grafitoak, tinta txinatarrak, akuarela eta collagea" erabili dituzte, besteak beste.



Casado Arsuagaren figura. J.L.C.

miliak osatu dituztela dio: "Akrobatak, gerra zibila, Mundu Gerra, Ukrainako gerra, Lenin errepikatzen da, Stalin, Franco eta errege emeritua... Elementu horiek guztiak agertzen dira".

Xabier Agirre lagun

Xabier Agirre artista bergararra ezaguna dute Melendezek eta Candaudapek, duela hogeita hamar urte baino gehiagotik: "Lankidea izan dugu unibertsitatean, hura irakaslea izan baitzen". Gainera, "hamar urte luzez" Bilbon hirurak tailer berean pintatzen aritu zirela aitortu du Melendezek: "Gero, nor bere aldetik joan zen, baina lagunak gara".

Aroztegi aretoan izan dira bi margolariak dagoeneko, eta sarrerako horman zerbait jartzea pentsatu dute agur moduan; aspaldiko koadro bat, hain zuzen

ere, inoiz erakutsi ez dutena. Xabier Agirreren tailerrean egon zirenean aurkitu zuten behar zutena. 1992an bi protagonistek egindako lan bat zeukan gorde-ta bergararrak: "Oso polita da; gainera, elementu batzuk igartzen dira egin dugun horretan".

Lan hori osatu nahi izan dute. Horregatik, laguntzeko Melendezek dioenez, Luisek koadro bat egin du, eta hark ia duela bi urte egindako margolan bat hartu du tailerretik: "Aretoaren sarreran, hirukotea jarriko dugu agurtzeko, eta ondoren, familia guztia".

XABIER AGIRREK GORDETA ZUEN BI EGILEEN MARGOLANA JARRIKO DUTE ARETOKO SARRERAN

Koldo Eleizalde lehiaketako sari-banaketa egingo da bihar

Seminarixoa irabazleei emandako gonbidapenekin bete da; ekitaldia 'streaming' bidez jarraitu ahal izango da

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Eguerdiko hamabietan emango dituzte 37. Koldo Eleizalde lehiaketako sariak, Seminarixoan. Aretoa beteta dago, baina, zuzenean, *streaming* bidez jarraitu ahal izango da ekitaldia.

Beste urte batez, lau genero-multzotako lanak aurkeztu ahal izan dituzte parte hartzaileek, eta bakoitza adin taldeka bereizita dauden kategorietan banatu da.

Ipuin-idatzietan, lehenengo eta bigarren kategorietan sari-

dunen artean ez da postuen bereizketarik egin. Alde batetik, Lea Alberdiren, Ekhi Irizarren eta Anouk Izagirreren lanak saritu dituzte; bestetik, Aimar Arzelusena, Elene Contrerasena eta Garazi Eizmendirena.

Laugarren kategorian, irabazlea Maite Errasti izan da, *Lagun bereziak* izeneko ipuinarekin. Julen Badiolak eta Gorka Morenok eskuratu dituzte bigarren eta hirugarren sariak. Poesian, Libe Ugartek lortu du lehen saria, *Ur azpian* idatzia.



2021eko lehiaketako irabazleak, sari-banaketa. GOIENA



DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

"Nora goazen eta nor garen jakin behar dugu"

JOSE RAMON VITORIA KONPOSITOREA

'Txistu eta kantuz mendira' ekitaldiak Arrolaren ibilbideari omenaldia egingo dio bihar. Vitoriak Antzuolako mendi taldeari egindako kantua entzungai izango da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Arrolaren 50. urteurrena dela eta, Jose Ramon Vitoria musikari eta konpositore arrasatearrak kantua oparitu dio Antzuolako mendizale taldeari. Taldearen izaerarekin eta historiarekin bat datorren abestia egin duela dio.

Nola jaio zen ideia?

Iñigo Ramirez de Okariz Arrolako kide eta sustatzaileetako bat da; lankidea eta laguna ere badut. Harekin izandako solasaldiaren ostean jaio zen kantua egiteko ideia. Hala, Arrolaren leloak eta ideiak aztertzen jardun dut, eta ondoren, kantua konposatu dut, hitz eta guzti. *Arrola* kantua 50. urteurrena ospatzeko egin dago, baina baita mendizale guztiak omentzeko ere.

Bandarako nahiz txisturako da.

Nire helburua da ikuspegia zabaltzea, eta bestelako estetikak musikalari ere edukitzea. Jazz eta rock taldeendako egokitu daiteke, beraz, kantua. Bihar, txistulari taldeak aurkeztuko du herriararen aurrean, Torresoroako ekitaldian, baina ikusi dugu banda oso baterako edo metal talde batendako bertsioak ere egin daitezkeela eta bestelako aukerak ere eskaintzen dituela kantuak. Gainera, bihar-



Jose Ramon Vitoria, *Arrola* kantuaren partitura eskuan duela. M.A.

"ARROLAREN 50. URTEURRENA OSPATZEKO ETA MENDIZALE GUZTIENDAKO DA"

ko estreinaldiaz gain, Antzuolako jaietan Bergarako Udal Bandak kantua jotzea ere bada asmoa.

Omenaldia ere bada.

Konposatzeko garaian, buruan izan ditut Ramon Eraña Gallas-

tegi euskaltzalea eta Jose Inazio Jauregi *Barberito* txistularia. Beharrezkoa baita atzera begira jartzea eta zenbait pertsonaren lana gogoaraztea. Nondik gatozen eta nora goazen, alegia. **Arrasateko Rugby Taldeari ere egin diozu kantua.**

Bultza eta bultza izeneko kantua egin diet. Errugbi taldearen balioak –tartean, trataera inklusibo– goraipatzeko eta eskertzeko bide ematen duen kantua egin dut. Sanjuanetan estreinatuko du Arrasate Musikaleko Bandak.



Ibai Larrea, erdian, bigarren eta hirugarren sailkatuekin. 'CARRERASDEMONTANA.COM'

Larrea, Espainiako txapeldun Albaceteko lasterketan

Atleta antzuolarra sasoi betean dago eta asteburuko Espainiako mendi lasterketan garaipena eskuratu du

M.A. ANTZUOLA

Atletismo Federazioak antolatzen duen Trail Running Classic txapelketa irabazi du Ibai Larreak Albacetén, 23 urtez azpikoetan. Horrez gain, seigarren amaitu du, maila absolutuko atletak ere kontuan hartuta. 18,5 kilometroko mendiko lasterketa izan zen, 750 metroko desnibelarekin. "Oso korrika egitekoa zen; bazen zati teknikoren bat, baina dena zen korrika egiteko modukoa", zioen Larreak. Lasterketa hasi aurretik ez zuen buruan irabaztea: "Ez nuen aukera handirik ikusten, lehenago garaitu izan

nauen jendea zegoelako. Hasieratik egin genuen taldetxo bat 23 urtez azpikook, lau bategi edo, eta absolutu batzuk aurrerago joan ziren. Lehenengo bost kilometroak hala egin genituen, baina ikusten nuen indartsu nindoala, eta erritmoa bizitu eta aurrera jo nuen. Ez ninduten segitu, eta bakarrik jardun nuen. Mendi gainera iristerako harpatu nituen absolutu batzuk, eta haiekin egin nuen falta zena". Larreak 1.24.21 egin zuen, eta minutu erdi eta minutu pasatxo atera zizkien bigarren eta hirugarren sailkatuei.



M.A.

Haritza gaixorik dago berriz ere

Plazako haritza gaixo dago berriro, eta jada tratamendua egin diote. "Koleoptero ziranbizido batek –intsektu bat– jota dago. Aditu batekin hitz egin ondoren, nekazaritza ekologikoan onartutako tratamendua egitea erabaki dugu. Tratamenduak irauten duen bitartean, zuhaitzaren ingurua hesituta egongo da", ohartarazi du Antzuolako Udalak.

'Txistu eta kantuz mendira' ekitaldia

Arrolaren mendi ibilbideari omenaldia egingo diote bihar Torresoroan, 18:30ean. Izan ere, testu, irudi, musika eta kantu bitartez, Arrolaren sasoi bateko mendi irteerak nolakoak ziren irudikatuko dute. Irteera haietan sortutako emozioak, sentsazioak eta harremanak ere islatuko dituzte. Alborada taldeak eta abesbatzak ere parte hartuko dute.



Mendizale taldearen kanpaldietako bat. ARROLA



Pandemia aurretik ospatutako AKE eguna. AKE

Berriro ere gorriz jantziko dira bazterrak

Ekainaren 18an ospatuko da AKEren jaia. Hala, herritar ororendako kirola eta festa uztartzeko eguna izango dela aurreratu dute. Bestalde, hilaren 16an, klubaren ibilbidea eta historia jasoko duen testigantza-dokumentala estreinatuko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Baietz Antzuola gorritu! Jantzi danok gorriz! lelopean, indartsu dator aurtengo AKE Eguna. Izan ere, egun osoko festa antolatu du herriko futbol klubak. Merezitako festa izango dute herriko kirolariek, azken unera arte izan baitute lehen taldeak kategoriari eusteko bidea izango ote zuen ardura. "Aurten sumatzen duguna da herritarrek AKE Egunerako gogoz daudela. Bazkarirako ere txartel guztiak agortuko dira, gainera. Orain dela bi urte, 320 inguru izan ginen, eta aurten, 380-390 izango gara", esan du Ibon Gezalagak, AKEko presidentea. "Lehen taldeak mailari eutsi dio, eta poza igartzen da", gaineratu du.

Hala, goizean, 10:00etatik 12:00ak inguru arte veteranoek—egungo jokalariek eta jokalarizandakoak nahiz animatzen diren herritarrek—lagun arteko partidua jokatu dituzte Ez-talan. "Partiduen ostean, Antiguana hasiko dugu *karro-poteoa*,

herriko giroa alaitzeko asmoz. Asmoa da herritar ororengana iristea, eta 14:30ean, eskolako patioan bazkaria egingo dugu. Sorpresak ere izango dira, eta, urtero legez, aitortzaren bat edo beste eta sari banaketa izango dira bazkalostean. 18:30ean, aldiz, elektrotxaranga borobil-duko du festa.

Balorazio ona

Era berean, denboraldiaren balorazio ona egin du AKEko presidentea. Izan ere, lehen taldearekin kamiseta izerditu arren, azkenean, mailari eustea lortu dute. "Denboraldiaren balorazio oso ona egiten dugu; lehen taldearekin sufritu egin dugu, baina kadeteek, infantilek, gaz-

teek eta nesken taldeak ere ondo jardun dute. Orain, denboraldi berrira begira, aldaketak egon egongo dira. Entrenatzaile guztiak aldatuko dira; oraindik, baina, adosten eta elkarrizketekin ari gara. Jokalariei dago-kienez, zehaztuta ez dagoen arren, lehen taldeko zenbaitek utzi egingo dute. Abuztura bitartean, gazteetatik ea zenbat igoko diren eta lehen taldetik zenbat joango diren aztertu beharko dugu. Abuztuko azken astean abiatuko ditugu entrenamenduak".

Dokumental emanaldia

Ekainaren 16an, AKEren historia eta ibilbidea jasotzen duen dokumentala emango du klubak Torresoroan. Bi saioa izango dira, umeendako 17:00etan eta helduendako 18:30ean. Pasarte eta testigantza hunkigarriak jasotzen ditu Antzuolako futbol sailaren inguruko dokumentalak. Herritik sortutako herriko taldea dela azpimarratzen da, besteak beste.

KLUBAREN HISTORIA JASOTZEN DUEN DOKUMENTALA EKAINAREN 16AN TORRESOROAN

Aranguren eta Alonso izan dira Iralako kronoigoeran onenak

Aurreko asteburuan abiatu zuen Aiastui txirrindulari taldeak gaztetxoek *challenge* denboraldia. Hala, Iralako kronoigoera izan zen lehen hitzordua, eta mutiletan Lier Arangurenek esku-ratu zuen garaipena, hiru minutu eta hamar segundoan Antiguatik Iralarako bidea eginda. Nesketan, berriz, Maddi Alonsok lortu zuen denborarik onena, lau minutu eta hogeita hamaika segundoko eginda.

Bihar, berriz, Uzarragako igoe-raren txanda izango da, 12:00etan hasita. Horrez gain, ekainaren 25ean, Kalebarrengo jaien baitan ginkana egingo dute, 12:00etan, eta uztailaren 3an San Martzial-eko igoera egingo dute.

OHARRAK

Erakustaldia

Gimnasia erritmikoko erakustaldia izango da ekainaren 15ean, eguaztena, 16:30ean, pilotalekuan. Hala, Ariznoa gimnasia taldean ikasturtean zehar ikasitakoak erakutsiko dituzte.

Trikiti emanaldia

Torresoroan trikiti emanaldia egingo dute ikasleek ekainaren 15ean, eguaztena, 19:00etan.

Lokatzaren lasterketa

Ekainaren 18an, zapatua, Lokatza txirrindularitza taldearen eskolarteko lasterketa jokatu da, 16:00etan hasita.

'Gela birtuala' metodologia berria jarriko dute abian

Bergarako Musika Eskolaren eskaintza berrituta dator. Izan ere, ikasturte berrirako *Gela birtuala* deritzon metodologia berritzailea abian jarriko dute Antzuolan. "Orain arte Bergaran erabili dugun metodologia orain Antzuolan ere eskainiko dugu, Olanen berrituak eskaintzen duen aukerari esker. Hezkuntza musikala beste modu batean

irakasten dugu pantaila interaktiboan bitartez, eta orain, Antzuolako ikasleek ere aukera hori izango dute. Ikasleek, gainera, klabe batzuen bitartez etxetik landu dezakete. E-maila onak ematen ditu, eta etxekoekin ere landu eta jolas egin dezakete musika ikasleek, gainera", kontatu du Marije Ugalde zuzendariak.

Izena emateko epea zabalduko dago eta interesa dutenek Bergarako Musika Eskolara jo dezakete.



NFK

Leire Galeano, txapeldunorde

Nafarroa Arenan (Iruñea) 1.600 zaleren aurrean jokatu zituzten Nafarroako Foru Komunitateko Torneoak azken norgehiagokak pilotariek aurreko asteburuan. Gazteen lau eta erdikoan, Leire Galeano antzuolarrak finala jokatu zuen, baina ezin izan zuen txapela jantzi eta mendean hartu Leitzako Goiuri Zabaleta aurkaria (18-10).

Gaur, bizikleta lasterketa, zezenak eta musika

Atzo jaurti zuten Beheko kaleko jaietako suziria eta gaur jarraituko du festa giroak Torrealdea auzoan. Bizikleta lasterketa, disko-festa, auzo afaria eta erromeria daude egitarauan. Berrikuntza, aurten, neska-mutikoendako zezenak dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Taberna jarrita dago eta auzo afarirako txartel gehienak salda. Atzokoen ondoren, bizikleta lasterketarekin berrekin-gio diote egitarauari Torrealdea auzoan. Neska-mutikoendako den mendi kriteriuma 16:30ean hasiko da, eta ohiko ibilbidea eta formatua izango ditu.

Zezenen entzierroa etorriko da jarraian, eta hortik aurrera eta afaltzeko ordua heldu arte musikak hartuko du lekukoa. Amaia DJren disko festa izango da lehenengo -18:30ean-, eta Unai Cantabranaren kontzertua gero -20:30ean-.

Auzo afaria eta erromeria

Umeen afaria 21:00etan izango da. Txartel guztiak saldu ez bada, gutxi geldituko dira. Eguazten arratsalderako, zortzi besterik ez zen gelditzen. Helduen afarirako ere 50 txarteletik gora saldu dira; beraz, ehun lagunetik gora elkartuko dira auzo afarian.



Amaia DJ, Beheko kaleko jaietan. L.Z.L.

Urtero moduan, Gauargi taldeak girotuko du afalostea. Asier Castrok eta Laura Cantarinok betiko erromerietan entzuten diren kantuek abestuko dituzte, baita kantu berriagoak ere. "Auzo txikia da, baina antolatzaileek

eta auzotarrek gogotsu hartzen dituzte jaiak. Guztiak egoten dira prest dantzan egin eta ondo pasatzeko. Urtero primeran hartu izan gaituzte eta geu ere oso gustura joaten gara", azaldu dute Gauargitik.



Unai Cantabrana Gaztea Cover lehiaketako finalurrekoan. GAZTEA COVER

Finalaren aurretik, saioa herrian

Beheko kaleko jaietako klasikoetako bat da Unai Cantabrana elgetarraren kontzertua. Bihar egingo du emanaldia, 20:30ean. Kontzertu berezia izango da; izan ere, Gaztea Cover lehiaketako finalerako sailkatu da Cantabrana aurten, eta hurrengo martitzenean, hilaren 14an, jokatu da final hori EITBren Miramongo egoitzan.

Zalantzarik gabe, lanpetuta dabil elgetarra. Gaur bertan amaituko ditu Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioko probak (USE) eta aipaturiko finala du lau egun barru. "Denbora gutxi dut Beheko kaleko jaietako kontzertua prestatzeko. Pentsatuta daukat Gaztea Cover lehiaketako kantua jotzea, eta sartuko ditut, baita ere, nireak diren kantu berriak -euskaraz zein gazteleraz-. Gero, gaur egungo musika eskainiko dut", azaldu du.

Ikasten jarraitzen du Cantabranak. "Programazioa egiten ikasi dut aurten, pista desberdinetatik grabatzen, eta Harry Styles artistaren *Golden* abestia oso berezia da alde horretatik".

Kantu bera abestu beharko du hilaren 14ko finalean. Sei hautagai izango dira lehia horretan eta Beheko kaleko jaietako kontzertua aukera polita izango da lehiaketan jo aurretik beste behin jendaurrean egiteko. "Ez nago urduri. Finalurrekoa ondo joan zen, jende oso jatorra ezagutu nuen eta esperientzia polita izan zen. Egia esan, pentsatutakoa baino hobeto joan zen".

FRONTENIS TXAPELKETA

FINAL-LAUDENAK, EMAITZAK

Eñaut Aranzeta - Enrike Elkoro / Mikel Arkarazo - Eneko Ojanguren
25-16

Josu Mañarikua - Beñat Arabaolaza / Eneko Maguregi - Ibon Unzetabarrenetxea
16-22

Enaitz Solaguren - Xabier Bikuña / Gontzal Azkarraga Urizar - Unai Hernalttes
25-12

FINALERDIAK

DOMEKAN, HILAK 12

09:00 Ihintza Imaz - Lierni Asurabarrena / Iratxe Bravo - Irune Errasti

09:45 Mireia Rubio - Maitena Mañarikua / Rakel Zamaioa - Idoia Serna

10:30 Eneko Maguregi - Ibon Unzetabarrenetxea / Erabakitzeke

11:30 Eñaut Aranzeta - Enrike Elkoro / Enaitz Solaguren - Xabier Bikuña

12:30 Emakumezkoen txapelketako 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida.

13:15 Gizonezkoen txapelketako 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida.

14:00 Emakumezkoen finala.

15:00 Gizonezkoen finala.

Azken final-laurdena, gaur Gizonezkoen txapelketako azken final-laurdena gaur, barikua, jokatu dute Belamendia-Azkarraga Urizar eta Rodriguez-Kortabarria bikoteek, 20:00etan.

Sari banaketa

Bi finalak jokatu ostean egingo da sari banaketa, domekan.

Musika jaialdia Josu Azkarateren omenez irailaren 3an

Musika munduko lagunak gogoan dute elgetarra, eta oharkabean pasako ez den jaialdia antolatu dute haren omenez.

Irailaren 3rako iragarri dute, 15:00etan hasita. Elgetan egingo dute, eta askotariko taldeen parte hartzearekin izango da, gainera. Hain zuzen, Never Surrender, Orreaga 778, Sindy Berbenas, Kaleko Urdangak, Fridays Crew, Material Rechazado, Hell Beer Boys, Jonny Gerriwelt, Porron & Kuantanueba, Neallta Fola, Des-kontrol eta Arkada Social. Ostiada Oi! talde elgetarra ere jaialdian izango da. Berriz elkartuko dira Josuren omenezko kontzertuan parte hartzeko.



NEREA VILLA

Ludotekako horma-irudiak, prest

Izar Han Xue Irazabal Gillegi elgetarrak irailean marraztu zituen irudi berriak ludotekako hormetan; baserriko animaliak, gehienbat. Erabiltzaileen lana izan da ikasturtean zehar horiek margotzea, eta bete dute eginkizuna. Egunotan itzuli da Irazabal neska-mutikoek egindako lanari azken ukituak ematera.

Hamaiketakoa egiteko, fruta eta ogi ekologikoak

Azaroa ezkerro, 'Hamaiketako osasuntsua' izeneko egitasmoa dute martxan Elgetako Herri Eskolan. Jangela eredua aldatzeko lanetan sortu zen ideia, eta gertuko ekoizleen produktu ekologikoekin osatutako mokadutxoak egiten dute orain ikasleek

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Landaola sarietarako izendape-na jaso du ikasturte honetan Elgetako Herri Eskolako *Hamaiketako osasuntsua* egitasmoak. "Izendapena sorpresa handia izan zen eta saria, azke-nean, beste proiektu batek jaso bazuen ere, izendapena aitortza bat izan da guretzat", azaldu du Maala guraso elkarteak ordezkari Ikuska Lizarralde. "Gu gurean ari gara, jakin barik egindako lanaren oihartzuna noraino heltzen den", zehaztu du Lizarralde.

Hamaiketako osasuntsua iraultza txiki bat izan da eskolan. Hasiera batean, guraso elkarteak finantzatu zuen egitasmoa, baina gaur egun familia bakoitzak bere ekarpena egiten du. Makina bat zalantza eta informazio bileraren ostean, azaroa ezkerro hamaiketako bera egiten dute ikasleek. Fruta eta ogia izaten dituzte eta inguruko ekoizle txikiak dira hornitzaileak.

Ohitura aldaketa

Astean hirutan fruta izaten dute neska-mutikoeek hamaiketakoa egiteko. Sasoiko fruta izaten da, eta, gehien-gehienetan, bertakoa. Mandarinak eta laranjak ere ekarri izan badira ere, jakinek ekoizleei zuzenean es-

katutakoak izan dira. Asteko beste bi egunetan ogi ekologikoak eta oliba-olioa heltzen da eskolara.

Egitasmoaren helburuak hainbat dira: elikadura osasungarria eta sasoikoa lantzea, opil industrialak kentzea eta bertako

GURASO ELKARTEAK LANEAN JARRAITZEN DU ESKOLAKO JANGELA EREDUAN ERE ERAGITEKO



Elgetako Herri Eskolako ikasle talde bat hamaiketakoa egiten. GOIENA

produktu ekologikoen kontsumoa bultzatzea, hamaiketakoaren orduan ikasleen artean desberdintasunik ez egotea eta hondakin kopurua murriztea.

Gaur-gaurkoz, balorazioa, orokorrean, positiboa da. "Beti daude lanketa zehatza behar duten kasu zehatzak, eta egongo da zer hobetu, baina halako proiektuek denbora behar dute egunerokoan guztiz txertatzeko. Azken finean, ohitura aldaketa bat dakarte, baina duela gutxi egindako balorazioan jasotako iritziak positiboak dira".



Musika ikasle talde txiki bat antzokian biharko emanaldia prestatzen. L.Z.L.

Berriz ere jendaurrean jotzeko gogotsu daude musika ikasleak

Hiru urte dira antzokian emanaldirik egiten ez dutela; baina zapatuan bai, ikasturte amaierako saioa dute

L.Z.L. ELGETA

Hainbat gurasoren laguntzarekin martitzenean lekualdatu zuen pianoa Elgetako musika gelako irakasle Lorea Larrañagak. Antzokian da ordutik, eta ikasleek bertan egin dituzte aste honetako musika saioak. Bihar 12:00etan eskaintzekoa duten jendaurreko emanaldia prestatzen aritu dira. Aste honetako eskolak oso bereziak izan direla azaldu du Larrañagak: "Hau antzoki bat da, ez gure betiko musika gela. Han eroso daude, hau espazio handia da... Aulkiak ere prest daude, eta bati baino gehiagori

atentzioa eman dio zenbat dauden. Esango nuke emanaldia egiteko desiratzen daudela; urduri, baina gogotsu".

Pianoa, gitarra, soinua, bonbardinoa eta biolina joko dute neska-mutikoeek biharko emanaldian. Tailerreko umeek kantuan egingo dute, eta musika hezkuntzakoak ere bai.

Aurreko ikasturteak ez dira errazak izan. Musika eskolek aurrera egin dute beti, baina neurri berezi askorekin. "Zoragarria izan da nolabaiteko normaltasunera itzultzea. Desiratzen geunden", esan du Larrañagak.

Gaztekonkis lehiaketa hilaren 25ean Asentzion

Elgetako Udaleko gazteleku zerbitzutik antolatua, LH-6ko, DBH-1eko eta DBH-2ko gazteei zuzendutako proposamena da. Troka Abentura Natura enpresak gidatuko du Elgetako Gaztekonkis lehiaketa, eta gazteek sei bat proba egin beharko dituzte Asentzioko putzu inguruan.

Izen-ematea zabalik da, *Elgeta.eus* atarian, eta berandue- nez hilaren 23an egin behar da. Parte hartzeke ezinbestekoa da haurren arduradunek baimena sinatzea. Agiria udal webgunetik deskarga daiteke. Prezioa 5 euro da, eta hoge plaza daude. Lehiaketa 11:00etan hasiko da eta pare bat ordu iraungo ditu.

OHARRAK

Garbigune ibiltaria

Salbador kalean egongo da, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

Antzezleak behar dira

Irailaren 17an *Elgeta erdi aroan* antzezlana egiteko adin guztietako antzezleak behar dira. Kontaktua: Nerea Villa.

Kantsatzeke taldea

Puttarrira izango da irteera, hilaren 19an. Izen-ematea zabalik da, hilaren 16ra arte.

Haziak nola gorde

Nola gorde haziak eta nola egin hazitegia. Hori izango dute hizpide hilaren 16an Elgetako baratze parkean 18:00etan izango den tailerrean.

Patxikobaso baserriko ogia astean bitan

Iurretan du baserria Monica Irazolak, eta ogi ekologikoa egiten dute. Irazola astean bitan joaten da eskolara. Umeek, egun horietan, ogi xerra dute hamaiketakoa egiteko, olio birjina estrarekin. "Gurasoak ari dira jantokian ere bertako produktuak sartu nahian, eta garrantzitsua da osasunerako, elikadura burujabetzarako eta beste gauza askorendako".



Monica Irazola, eskolan, ogia banatzen. GOIENA



Hilaren 3an Mutrikuko Buceo Euskaditik etorritako bi urpekariak Usakoko putzua garbitzen. I.M.

Bainu sasoia zabalik egongo da bihartik

Ekainaren 11tik irailaren 11ra bitartean soroslea egongo da arratsaldeetan Usakon, eta Eltzia pareko ur uhinen parkean, ura. Azken bi udetan ez bezala, aurtan ez da edukiera mugarik egongo eta ez da txandarik hartu beharrik egongo

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pandemia aurreko zaintza neurriekin hasiko da udako bainu denboraldia bihar, zapatua. Usako eta San Lorentzoko ur txorrotak ez ezik, Zubikoan ere zabalik egongo da, sasoi horretan, kanpoko belardiaren eta terrazaren eta barruko igerilekuaren arteko pasoa.

Soroslea Usakon

Bainu denboraldiak irailaren 11ra arte iraungo duen arren, kiroldegiko belardia eta terraza herriko jai nagusiak heldu arte izango dira erabilgarri.

Usakon zapatutik aurrera egongo da soroslea, egunero, 15:00etatik 21:00etara bat eta errefortzurako beste bat 16:00etatik 20:00etara. Aurtan ez da edukierarik egongo putzuan bainatzeko eta ondoko belardian ere ez partzelak markatuta. Pandemia aurretik zegoen baldintzetan egongo da erabilera.

Urtero egiten duten moduan, aurtan ere egun batzuk lehe-

nago izan dira putzua garbitzen urpekariak. Hilaren 3an etorri ziren, Mutrikutik. Zuhaitzeta-ko adarrak eta kristal handi bat atera zituzten putzutik, tamaina txikiko beste zikin batzuez gain. "Amuarrainak eta karramarroak ere ikusi ditugu, tamaina dezentekoak, gainera, azken horiek, eta horrek poztu egin gaitu. Seinale oso ona da hori. Ur garbia dagoen seinale", zioen bi urpekarietako batek.

Ur txorrotak, goiz eta arratsalde
Herribusa astelehenetik aurrera joango da Usakora: 16:00etan eta 19:30ean Ugarkaldetik irteten diren autobusak. Ekainaren 13tik uztailaren 31ra arte eta

**LAPURRETAREN BAT
EDO ARAZOREN BAT
BADA, ABISATZEA DA
UDALTZAINEN
ESKAERA**

abuztuaren 22tik irailaren 10era arte izango da zerbitzu berezi hori astelehenetik egubakoitzera bitartean.

Eltzia aurreko ur uhinen parkean ere bihar zabalduko dituzte ur txorrotak. 11:00etatik 21:00etara egongo da ura, irailaren 11ra arte. Aurtan ez da zaintzailerik egongo eta umeekin doazenak izango dira haien arduradunak.

Udaltzainen abisuak

Ibilgailuendako aparkalekua egokitu dute aurtan ere Usako ondoko belardi batean, eta debekatuta dago Olaterako bide ertzetan zein Zuazolako zubian aparkatzea. Hori adierazten duten kartelak badaude jarrita eta errepidean ere adierazita; udaltzainak dagoeneko hasi dira isunak jartzen. Horrez gain, eremua zaintzeko gogorapen kartelak ere jarri dituzte, baita bizikletak zein eramandako guztia begi-bistan uzteko gomendioa dutenak ere.

Aste osoan ekitaldiak gaztetxearen 10. urteurrenerako

Hilaren 18an da jai nagusia eta ordura artekoak ere urteurrenaren ospakizun egitarauan sartu dituzte

O.E.G. OÑATI

Antixena gaztetxeak 10. urteurrena beteko du datorren ekainaren 18an. Orduan egingo dute jai nagusia, baina datozen egunetan ere egongo dira ekitaldiak urteurrena ospatzen hasteko. Komiki aurkezpenak, bizikletak apaintzeko tailerra eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Antolatutako ekitaldietako lehena martitzenean izango da. Mikel Albisu *Mikel Antza* etorriko da, *Arroz urez* liburuarekin, 18:30ean. Eguaztenean, zapatuan egingo duten bizikle-

ta-poteorako bizikleten apainketa egingo dute, era guztietako lelo eta aldarrikapenez, Potx eta Lotx pailazoen laguntzarekin. Eta egunean izango da antolatutako lehen kontzertua: Etxekalte eta Habi taldeek joko dute. Talde bakoitzak bere ibilbidea duen arren, elkar ondo ulertzen dutela erakutsi dute *Arimak denboran* izeneko single bikoitzean, eta hori aurkeztuko dute. Jaialdi bezperan, hilak 17, Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiak etorriko dira, *Bidea da borroka* komikiarekin.

Elkar Hezi eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza

Tailerrak, musika emanaldia, orla banaketa eta beste egingo dituzte gaur, egubakoitza, 17:00etatik aurrera, Santa Marinaran, Elkar Hezi eguna ospatzeko. Ordura arte, jaialdiaren emanaldia eta jolasak, HHko eta LHko eraikinean. Bigarren ospakizun txanda, senideendakoa, hilaren 16an eta 17an izango da, lorategian.

Iguaran, Arzallus eta Pagola datoz 25eko hika-bertso bazkarira

Oihana Iguaran, Amets Arzallus eta Eli Pagola bertsolariek hartuko dute parte ekainaren 25ean Oñatin egingo den hika-bertso bazkarian, Ingo Xonau! taldearen ekimenez. Antixena parkean izango da bazkaria, 14:00etan, eta sarrerak dagoeneko salgai daude, 20 eurotan. Txokolateixan. Tikitika Egunaren barruan ospatuko da.

NIRE USTEZ



JOSU ZUBIA

Egin daigun

Herrigintza, saretzea, elkarlana eta tankerako hitzek beti eman izan didate nagi maila oso handia; hain zuzen ere, erabiliak izan direlako itxura bat emateko, desio bat irudikatze... Eta argi geratu da, askotan, hitzoi zentzua eta mamia falta izan zaiela maiz. Horregatik, distantzia nabarmena izan dut beti hitz hauekiko –ez ekintzekiko–. Hala ere, azken urteetako bideak argi erakutsi digu zentzuz betetako harremanek eta ekintzek hazi bat ereiten dutela eta inguruak laguntzen badu, hori loratu egiten dela.

Oñatin, Irazanen ikusi dugu hori: behinola ereindako haziak bospasei antzerki talde/proiektu loratu ditu, besteak beste. Debagoienean ere, antzerki arloan, haziak erein ditugu aurtan, eta loratuko dira. Imaginatzen duzue horrelako zerbait, baina kultur esparru zabalera eramanda? Debagoieneko proiektu kultural zabal bat? Sortzaile eta artistok elkarrekin lan egitea.

Hasierako hitz horiek denak duintasunez, zentzuz eta mamiz betetzea?

Oñatin ere egingo dituzte Goienagusiren ekintzak

Udalak eta Goienagusi kultura elkarteak urtebeteko hitzarmena sinatu dute 55 urtetik gorakoei heziketa emateko Esperientziaren Gelaren bitartez. Urrian hasiko den ikasturtean, hamabostean behin egingo dute hitzaldi bat Oñatin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Haurrei eta nerabeei ez ezik, helduei ere eman gura die heziketa Oñatiko Udalak, eta Esperientziaren Gela martxan jartzea proiektuen artean zuen. Goienagusi kultura elkarteak ikusi dute elkarlanerako eragile aproposa, eta harekin batera jarriko dute Oñatin Esperientziaren Gela datorren ikasturtetik aurrera. Maiatzeko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, alde bien arteko urtebeteko hitzarmena egitea, eta aste honetan gauzatu dute, kultura etxean egindako aurkezpenean.

Bailara izaerako proiektua

Goienagusiren hamaikagarren urteurrena izango da hurrengoa eta Oñatin ere egingo dituzte hitzaldiak zein tailerrak. "216 bazkide ditu gaur egun Goienagusik. Erdiak pasa dira Arrasatekoak eta gainerakoa bailarako beste herrien arteko osatzen dute. Eskualde izaera duen proiektua da eta Oñatira etortzeko gogoia ere baguen. Udala jarri zen gurekin harremanetan, zer eta nola egiten genuen azaltzeko, eta urritik aurrera Oñatin ere izango gara", dio Goienagusiko presidente Rosa Urretak.

Urritik maiatzera bitartean, hamabostean behin izaten dira hitzaldiak, 10:00etatik 11:30era, eta tailerrak eta irteerak ere antolatzen dituzte. "55 urtetik gorako debagoiendar guztiei daude zuzenduta eta helburua da euren jaki-mina asetzeaz gain euren arteko harremana ere sortzea", Urretaren esanetan. Izaro Elorza alkateak azaldu duen moduan, Udala bat dator helburu bikoitz horrekin, "heziketa eskaintzeaz gain, sozializatzeko bidea ere izan gura du Esperientziaren Gelak", eta saiatuko dira Oñatiko ekitaldietan tartetxo bat hartzen, aurretik edo ostean, parte-hartzaileak elkarrekin egoteko. Martitzene-



Martitzen goizeko aurkezpenaren ostean ateratako talde argazkia. O.E.

ko aurkezpenaren aurretik, esaterako, elkarrekin gosaldutuzen joandakoek.

Lehen ikasturtea, doan

Bazkide eginda har daiteke parte Goienagusik antolatuta-

ko ekintzetan: 80 euro dira ikasturte osoa. Oñatiko lehen ikasturtea, baina, doan izango da; baita urritik abendura bitartean Arrasaten eta Bergaran egingo diren ekintzak ere oñatiarrendako.

Goienagusi ezagutzen dute



ROSA URRETA
PRESIDENTEA

"Batetik, 55 urtetik gorakoen jakin-mina betetzen lagundu gura du elkarte honek, baina, bestetik, baita parte-hartzaileen arteko harremana sortzea ere. Adibidez, hitzaldiak, gai askori buruzkoak, tailerrak zein irteerak antolatzen ditugu eta eskaintza bailara osorako da".



JESUS MARI UGARTE
PARTE-HARTZAILEA

"5G-ri buruzko hitzaldi batera joan nintzen, sare sozialei buruzkora ere bai, eta baita klima aldaketari buruzkora ere. Oso interesgarriak, eta hizlariak onak eta pazientzia handikoak. Aztirira egindako irteerara ere joan nintzen. Esperientzia positiboa izan da. Badut jarraitzeko asmoa".

Amaia Azpiazu eta Aitor Olea, domekan, Madinaren piezekin

Ahots eta organorako kontzertua egingo dute parrokan, Aita Madinari eskainitako musika zikloari ekiteko

O.E.G. OÑATI

Amaia Azpiazu Anduaga soprano oñatiarraren eta Aitor Olea Juaristi organo-jotzaile durangarraren ahots eta organo kontzertua egongo da domekan, hilak 12, San Miguel parrokan, 19:00etan. Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrenaren harira antolatu den musika ziklo bereziaren lehen kontzertua izango da.

Aita Madina musika konpositore oñatiarrak Buenos Airesen eta New Yorken sortutako piezak aukeratu dituzte emanaldi ho-

netarako. Horietako zazpi organoarekin bakarrik joko dituzte eta beste horrenbeste baino gehiago kantuairekin lagunduta.

Udalaren laguntza izan du Artixak antolatu duen ziklo bereziak honek, eta, kontzertu gehiagotz gain, Suhar abesbatzaren disko aurkezpene eta mahai ingurua ere egingo dituzte. Domekan hasi eta azarora bitartean egingo dira antolatutako ekintza guztiak, Musikegunak egitasmoaren barruan denak. Kontzerturako sarrera bost euro da.



URGAIN

Eskola jasangarria da Urgain

Eskola jasangarria ziurtagiria jaso du astean Urgain Errekalde herri eskolak, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik, jasangarritasunaren eta ingurumenaren alde egindako lanaren aitortza gisa. Lorea Jimenez ikastetxeko zuzendaria eta Aintzane Agirre ikasketaburua izan ziren Busturiako Madariaga dorretxean egindako ekitaldian.



AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Badira bi aste San Migel parrokiako kanpaiek Corpus ospakizuna iragartzen dutena. Egune-ro lau aldiz entzuten da egun horretako soinu adierazgarria, eta datozen bi asteetan ere horrela izango da. Ekainaren 16a, eguna, da Corpus Eguna eta ondorengo asteburuan egingo dira ospakizunak Oñatin.

Prozesioa, hilaren 19an

Ekainaren 19an, domeka, izango da prozesioa. Herriko kaleetan barrera izango da, eguraldi ona egiten badu; eta eliza barruan egingo duten ekitaldia izango da horren ordezkia, txarra egin ez gero. 11:00etako meza nagusiaren ostean izango da hori. Aurretik egingo dute goiz-eresia txistulariek zein musika bandak eta ordu laurden lehenago eramango dituzte andariak irudiak parrokia barrura, txistularien eta dantzarien laguntzarekin. Prozesioa amaitzean egingo du musika bandak Corpus Egune-ko kontzertua, *Corpusetako zortzikoa* izanik joko duen lehen-dabiziko pieza. Arratsaldean izango dira, pandemia aurretik bezala, Oñatz dantza taldearen dantza emanaldia plazan eta ondorengo dantzaldia parrokiaren atarian. Oñatzeko egubakoitzean ikastetxeetan eta auzoetan eta zapatuan plazan ere egingo dituzte Corpuseko dantzak.

Zapatuan, hilak 18, Xabier Mendizabalek egin duen *Sebastian* erraldoiaren aurkezpena izango da; herriko txorimaloekin eta erraldoiekin batera ibiliko da herriko kaleetan.

Haur eta gaztetxoendako antzezlan ere egongo da, 17:30ean, Etxaluze plazan. *Butterfly effect* lanarekin etorriko da Astrola-



San Migel, apostoluak ondoan dituela, 2019ko prozesioan, parrokia parean. GOIENA

Ohiko osagaiekin datoz aurtengo Corpusak

Kofradiak dena du lotuta prozesioa kalean egiteko. Egitarauan aipatzekoa da, bestalde, prozesio bezperan, ekainaren 18an, Xabier Mendizabal oñatiarrak egindako 'Sebastian' erraldoiaren aurkezpena. Pake Lekuk hitzaldia eta bisita antolatu ditu

bium Teatroa. Gizakiaren ebo-luzioaz jardungo dute Asier Oruesagasti eta Daniel Gomara aktoreek. Aktoreek historian gertaturiko aurrerapen teknologikoen zerrendatze bat egingo dute eta, aldi berean, giza esku-bideei lotutako hainbat pasarte antzektuko dituzte. Egun horretan, barraketako soinu-ekipoak eta sirenak itzali egingo dira bi

orduz arratsaldean, aniztasun funtzionala dutenendako.

Hitzaldia astelehenean

Horren guztiaren aurretik, baina, kanpaien iragarpena bezala, Pake Leku erretiratu elkartearen hitzaldia egongo da kofradiaren historiari zein prozesioaren parte hartzen duten elementuei buruz; dantzariak eta irudiak

tartean. Gaiak asko dakiten Jesus Irizar eta Josu Amondarain izango dira hizlariak. Astelehenean izango da hori, ekainak 13, 17:30ean, Pake Leku elkartearen. Apostoluak eta San Migel prozesiorako nola prestatzen diren ikustera ere joango dira erretiratu elkartetik prozesio egunean, ekainaren 19an, Santa Ana antzokira.



Horazio Argarate. O.E.

Parrokoaren estreinakoa izan daiteke

w2019ko sanmigeletan iritsi zen Oñatira Horazio Argarate parrokoa; harrezkero egin diren Corpus ospakizunak pandemiak baldintzatutakoak izan dira eta ez da prozesiorik antolatu. 2020ko meza Goienak eman zuen, zuzenean, telebistaz, eta 2021ekoa ere ohikoa baino apalagoa izan zen eta eliza barruko ekitaldira mugatu zen. Beraz, eta eguraldi ona egiten badu, behintzat, herriko kaleetan egingo da berriz ere Corpus domekako prozesioa, eta Horazio Argarate horrela biziko duen lehena izan daiteke. "Txantxak eta adar-jotzeak ez dira falta, ez. Umore sanoz bizi dut, baina ea eguraldi ona egiten duen", dio, barrez, Argaratek.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Aurten bai!
Ondo ibili!!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Jose Ramon Arrazola, ezkerrean, eta Josu Amondarain, eskuinean, San Kristobalen estatua inguratzen. GOIENA

Elizbirarako, zaintzaileen urtebeteko itxaronaldia

Hamabost santuren irudiek osatzen dute Oñatiko Corpus Christi prozesioa. Urte guztian izango dira fededunen jagole, baina irudiek ere zaintzaileak behar dituzte urrezko eguna heldu bitarte. Hainbat auzotan banatzen dira zaintzaren ardurak

Beñat Alberdi OÑATI

Berpizkunde igandetik hirurogei egunera izaten da Corpus Christi eguna, eta Pazkoko lehen ilargiak ebazten ditu egunok egutegian. Datak, orduan, aldatu egin daitezke urtetik urtera; ez, ordea, egunean bertan ospatu beharrekoak eta ospakizunak. Oñatin jakina da prozesioa egingo dutela, eta hamabost santuren

irudiak aterako dituzte, San Migel patroia. Urtetik urtera, hala ere, zaintzaileak zaindu behar izaten dituzte.

"Santu irudi bakoitzak dauka bere kargu egiten den arduradun bat", argitu du Josu Amondarainek, Kofradiako kideak. "Eurak arduratzen dira gordetzeaz". Hamabost dira, guztira, eta banaketa ezarrita dago: Dukearen

etxean, Pragako Jesus haurra; San Esteban ermitan, Lezesarrin, San Krispin eta San Krispiniano; Trianan, San Jose, San Sebastian, San Mikel Aozaraza eta Arantzazuko ama birjina; Casablanca, San Isidro; San Martinen, San Martin eta San Roke; Santa Anan, San Migel goiaingerua; Gomendion, San Juan; Galartzan, Sortze Garbia; Bi-

daurretan, San Frantzisko; eta, Olabarrietan, San Kristobal.

Protokoloa prestatua dute Corpus Christi egunerako. Bizpahiru egun lehenago, irudiak gordetzen dituzten tokitik mugitzen dituzte, anden gainean jarrita. Kofradiak badauka lantalde bat azpiegitura lanetarako; hau da, objektuok mugitzeko. Udalak uzten die furgoneta horretarako. Hala ere, zenbait kasutan euren kabuz moldatzen dira lan taldebatzuk, Santuaren zaintzaren kargu egiten direnak; San Martinen eta Olabarrietan, esaterako.

Elizbiran atera aurretik atondu egiten dituzte figurak: loreak jartzen dizkiete, tentu handiz gordetako jantziak jantzi... "Hiru eta urte igaro eta gero itzuliko da prozesioa. Beharko dute atontzea", gaineratu du Josu Amondarainek.

Corpus Christiko ibilbidea

Behin elegante jarrita, egunean bertan ateratzen dituzte santuak kalera. Zehaztuta daukate non izango dituzten esperoan, eta zein ordutan, ahalik eta dantzariak iritsi arte. Izan ere, parrokiara eramaten dituzte andariak, dantzariak bidelagun, bertan meza entzun eta, ostean, prozesioan atera ditzaten.

Alderantzizko itzulia egin behar dute behin eguneko lanak bukatuta. Prozesiorako atondu zituzten tokira itzultzen dituzte, hasiera batean, astelehenean bertan jagoten dituzten espaziora eraman ditzaten, hurrengo urtera arte.

Kofradiak gainbegiratzen eta koordinatzen ditu lanak, baina, aurrez esan bezala, zenbait lantaldek bere gain hartzen ditu lanak. San Martin eta Olabarrietan dira bi adibide; Olabarrietan, ordea, San Kristobal izaten dute,

Corpus Christi egunetik gandi egutegi propioa daukan santua.

Uztailaren 10a da haren eguna eta oraindik ere ospakizunak bermatzen dira. "1961ean sortu zen San Kristobal ermandadea", azaldu du Jose Ramon Arrazola Urkiagak, ermandadeko kideak. "Gidariak sortu zuten. Orduan ez zegoen Gizarte Segurantzarik, eta elkarri babesa emateko zen".

Uztailaren 10ean, San Kristobal

Urteetan mantendu den tradizioa izan da gidariak elkartu, ermandadeko kideak zein kideak ez direnak, eta santua andetan jarrita arratsaldeko mezara eramatea. Denetarik elkartu izan dira: kamioiak, autoak, motorrak eta traktore bat. Loreak eta guzti jartzen zutela esan du Arrazolak. Suziriak botatzen zituzten martxa hasi aurretik eta karabanen eramaten zuten elizaraino. "Eskandalua izaten zen".

Elizatik pasatu eta gero itzultzen zuten Olabarrietara eta talde argazki bat atera ohi zuten, afaldu aurretik.

Aurten asmoa daukate eguna ospatzeko, hiru urte igaro eta gero. Dena den, oraindik goiz da egongo dela esateko, kontuak dauzkate-eta ixteko. Besteak beste, igandean tokatzen da aurretik, eta parrokoa ezingo da ohiko orduan bertaratu.

Ibilgailuak abadeek bedeinkatu ahaliko dituztela uste du ermandadeko kideak, ur bedeinkatua botata santua gordetzen den ermita aurrean.

**SANTU IRUDI
BAKOITZAK DAUKA
BERE ZAINZAREN
KARGU EGITEN DEN
ARDURADUN BAT**



OÑATI
dabilen herria

**Dantzan jartzen
gaituzten
Corpusetako koloreak**



Beñat Alberdi OÑATI

Dantzariak non, musikariak han, edo, kasu honetan, txistulariak han. Beste modu batera ere esan daiteke; hau da, txistulariak non, dantzariak han, baina, normalean, musika eskaintzen dutenen presentzia ez da igartzen, gerria mugitzen dutenena bai.

Corpusetako aste bukaeran, dena den, Oñatz dantza taldekoek beste konpromiso izaten dute txistu jotzaileek, askotan egitarauan agertzen ez diren arren. Lau pertsonak osatzen dute Oñatiko txistu taldea eta agenda dantzarietara lotuta dutela azaldu du Aitor Madinak, taldeko zuzendariak: "Dantzaldi bat izaten duten aldiro joaten gara eurekin". Jaso berri dute urterako aurreikusten diren saioen egutegia. Urteak 53 aste bukaera baldin badauzka, hogeitan izango dute konpromisoren bat.

Betebehar horiei agenda propioa ere erantsi behar zaie. Oraindik Udalarekin adosteko dute zenbat kontzertu, kalejira edo diana eskainiko dituzten, baina lanen bat irtengo da.

Hamabostean behin izaten dituzte entseguak lau kideek; betiere, agendaren beharretarako prest egon daitezten. Oñatzek urtero data finko batzuk dauzka, gehiago irteten zaizkie-eta, baina egun horiek markatzen dute musikarien egutegia. Izan ere, egun seinalatu horiek iritsi baino hilabete lehenago, gutxi gorabehera, hasten dira batera

Dantzarien beharrezko bidelagun ezezagunak

Doinu bat ezinbestekoa da gerria mugitu ahal izateko, eta, zer esanik ez, dantzaldi ofizial batean baldin bada. Corpus Christi egunean argazkietan agertzen dira San Migel, santuak eta dantzariak; ez, ordea, txistulariak, egunerako ezinbesteko piezak



Txistulari taldeko hainbat kide, eguazteneko entseguan. GOIENA

entseatzen txistulariak eta dantzariak.

Corpus Christi aste bukaera

Aurten, egubakoitz goizean hasiko dira dantza emanaldiak, eskoletan eta lehen orduan, eta, noski, dantzariak non, han egongo dira txistu jotzaileak. Ostean, landa auzoetatik bira osatu behar dute. Auzo guztietara ez dira joango, baina euren presentzia bermatuta egongo da askotan; berdin arratsaldean Casablanca, Ugarkalde eta San Martin bisitatzean.

Larunbatean, berriz, kalean ibiliko dira dantzarien pausoa markatzen, goiz eta arratsalde. Dantza taldekoek ez dute deskantsurako tarte askorik izaten, txistulariek ere ez. Hala ere, lauk osatzen dute txistu taldea eta lauren artean banatuko dituzte ostiraleko eta zapatuko lanak.

Bestelakoa izango da domeka. Hasteko, egunak izango duen martxa kontuan hartuta, hau da,

jendez lepo egongo dela kalea eta beste mila soinu, bederatz txistulari arituko dira. Txistu taldeak kanpo kolaborazioa eskatuko dute. "Soinua ondo entzuteko da, besteak beste", argitu du Madinak.

Goizeko bederatzietan hasiko dute eguna, dianarekin. Ostean, dantzariak santuen bila joaten dira auzoetara, elizara laguntzeko. Txistulariek eliza inguruetan itxarongo dituzte, azken tarteak musikaz egiteko. Bestalde, San Migel goiaingerua txistu soinuekin lagunduko dute udaletxetik parrokiara. Udaleko ordezkariak ere elizan sartzeko pasilloa egingo diete. Esan gabe doa dantzariak eliza barruan eskaintzen duten ikuskizunaren partaide direla musikariak ere.

Elizbira dantzak alderik alde eskaintzen dituzte oinkariak, eta alderik alde ibili beharko dute bidelagun ezezagunek, Corpus Christi eguneko abesti propioak joaz.

Domeka arratsaldean izaten dute azken lana. Izan ere, dantza guztiak eskaintzen dituzte plazan bederatz ordezkariak. Dantzarako musika beharko dute, noski, eta txistu taldekoen esku.

**URTEAK 53 ASTE
BUKAERA BALDIN
BADITU, 20TAN DUTE
KONPROMISOREN BAT
TXISTULARIEK**



Aurten bai! Ondo ospatu eguna!

• AKER • ALDAPA • ETXE AUNDI • GAROA • HELMUGA
• IZARRAITZ • MAUXKA • SORALUZE • TXOPEKUA • URTIAGAIN

Dantzan aterako ez diren dantzarien atzeko lana

Bederatzi dantzarik izaten dute fokua euren gain Corpus Christi egunean. Artisten lana, ordea, ez da egun bakarrera mugatzen; ostiral zein zapatu herrian dantzaten dute, ikastetxeetan barne. Oñatz dantza talde ia osoak parte hartzea behar izaten da

Beñat Alberdi OÑATI

Corpusetako estampa ohikoa da dantzariak, kapitaina urdinez eta gainontzekoak gorritz, San Migel goiaingerua inguratzen. Bederatzikoak lortzen du eguneko protagonismoa. Aste bukaera, hala ere, ez da domekan hasten eta, are gehiago, egunaren prestakuntza hiru hilabete lehenagotik dator, gutxi gora-behera. Bederatzik jarduten dute Corpusetako dantzaldi bakoitzean, baina Oñatz dantza talde osoaren lana dago atzetik.

Inauteriak amaitu eta gero iristen zaie dantzarietako Corpus dantzak entseatzeko lehen saioak. "Dantzari eguna baino lehen egoten dira asteko bat edo bi", zehaztu du Jon Irizarrek, Oñatzeko kideak, eguna baino hiru hilabete lehenago. Izatez, urteko egun garrantzitsuen harira antolatzen ditu entseguak dantza taldeak; hau da, ikuskizuna eman behar badute, egun horretako dantzak entrenatzeko batzen dira. Hiru dira ohiko datak: Inauteriak, Dantzari Eguna eta Corpus Christi.

Behin Dantzari Eguna pasatuta, asteen hiru entsegu izaten dituzte, eta nagusien taldeko partaide guztiek dauzkate ateak zabalik. "Batzuk, hala ere, oraindik ikasketa prozesuan daude,



Oñatz dantza taldekoak Corpusetarako dantzak entseatzeko. OÑATZ DANTZA TALDEA

eta aurten ez dute egunean dantzatzeko aukera izango", gaineratu du Irati Aranburuk, dantza taldeko partaidea. Aranburuk eta Irizarrek, berriz, aurten entseguetan parte ez hartzea erabaki dute. Ez dute, beraz, irteko aukerarik izango. Dena den, bestelako lanetan dabilta buru-belarri. Izan ere, nagusien taldera pasatu berri direnei falta dituzten pausoak irakasten ari dira, hurrengo urtean aukera izan dezaten. Corpusetako dantzak irakasten dituzte, motzean esanda.

Egunetarako azken aukeraketa

Oñatzeko Corpusetako taldeak ebatziko du nortzuek egingo duten dantza. Domeka goizean bederatzik jardungo dute, baina egubakoitzean eta zapatuan eskainiko dituzte dantzak, eta aste bukaerako lana ez da bederatziren kontua bakarrik izango. Astebete lehenago, gutxi gora-behera, argituko dute nork dantzatzeko duen noiz.

Dantzariak zehaztu ostean, prestaketak datoz. Materiala da puntuetako bat, baina kriskitinak, arkuak eta materialak

beharko dituzte, ez dauka aparteko lanik. Jesus Irizarren, dantza taldeko koordinatzailearen, autoan egon ohi dira, beharra dagoenerako. Bestelakoa da, dena den, arropena. "Neskak dantza egiten hasi zirenean egokitutako prakak erosi genituen", azaldu du Aranburuk. Kontua da emakumezkoek Oñatiko dantzak egiteko bakarrik balio die-la praka zuriak izateak, eta urtean ez dituzte maiz egiten dantzok. Gizonezkoek, berriz, beste dantzatarako ere balio die. Nahiago dute norbere praka zuriak erostea eta erabiltzea.

Dantza taldearen txupinazoa

Egubakoitzean hasten dute aste bukaerako martxa. Aurreko urteetan, goizetan landa auzoak bisitatu izan dituzte eta arratsaldeetan eskoletan dantzak egin, zein zenbait auzo berritara bertaratu, larunbateko biratik kanpo zeudelako. Aurten, goizean joango dira auzoetara eta eskoletara, eta arratsalde zapalduko dituzte Casablanca, Ugarkalde eta San Martin.

Laneguna denez, posible duena agertzen da egubakoitz goizean. Taldeka banatu, autoa hartu eta etxe aurreraino abiatzen dira. Zuriz jantzita bisitatuko dituzte baserriak, baina trajeriak gabe. Kriskitinak jotzen dituzte atarian eta baserritarrek pixka bat hitz eginda abiatzen dira hurrengora. "Oso erritmo estua izaten dugu", argitu du Irizarrek. Aurrez Errekalde eta Olabarrietako baserriak bisitatu izan ditu. "70 etxebizitza bisitatzen ditugu hiru orduan, gutxi gorabehera".

Eskoletan eta aurrez aipatutako auzoekin egubakoitza boroilduta, zapatuaren txanda iristen da. Herria alderik alde gurutzatzen dute dantzak eskai-

niz, nagusiki banakoa eta arku dantza. "Herriko etxe guztietatik gutxienez dantza bat ikusi dezaten dago antolatuta bira", nabarmendu du Aranburuk.

Bi erritmo daude bezperan, dena den: alde batetik, dantzariak gerria mugitu beharko dute, baina, beste aldetik, laguntzaileek badute lana. Lehendabizi, protagonistek dena daukatela bermatzen dute, izan beharreko materiala eta edateko ura; bigarrenez, zaintza lanak bete behar izaten dituzte, kide bat zuriz jantzita ere izaten da inork min hartuz gero; eta, azkenik, etxerik etxe pasatzen dira itsulapikoa eskuetan. 400 aldiz, behintzat, dantzatzeko dantzariak, baina ez dituzte etxe gutxiago bisitatzen diru eske.

Azken eguneko ikuskizuna

Bederatzi dantzariak izaten dute lana Corpus Christi goizean, eta Oñatzeko bi kideek azaldu dute euren ikusle papera hartzen dutela, dena egoki doan adi egoteaz gaildi. Egund hasieran santuak laguntzen dituzte elizara mezetara eta, gero, prozesioan dantza egiten dute. Goiza "motza" baina "intentsua" dela azaldu du Irizarrek, ez dutelako deskantsatzeko tarterik izaten.

Arratsaldean plazan egiten dituzte dantza guztiak bederatzik dantzariak. "Inguruan gaudenatik askok nahi dute bederatzik horien artean egon", esan du Aranburuk. "Baina ingurukoaren lana ezinbestekoa da".

ETXE GUZTIENTATIK GUTXIENEZ DANTZA BAT IKUSI DEZATEN DAGO ANTOLATUTA HERRIKO BIRA



ezagutzen
adimen emozionala
adimen gaitasun handiak

San Lorentzo 98, behea
20560 OÑATI
Hitzordua: 669 360 558
lezagutzen@gmail.com

ADIMEN EMOZIONALA...

Zertarako?

Gure emozioak behar bezala kudeatzen ikasteko eta, ondorioz, gure sentimenduak hobetzeko.

Zer lortzen dugu horrekin?

Autokontzeptua hobetzea (autoezagutza, autoestimua, autoerrealizazioa), lasaigo bizitzea, zorientsuagoa izatea, hobeto erlazionatzea; hau da, **ongizate emozionala**.

Norentzat da aproposa?

Familientzat, nerabeentzat, helduentzat... emozionalki hobetzeko interesa duen edozeinentzat.

ADIMEN GAITASUN HANDIAK...

- Zer dira?
- Zeintzuk dira adimen gaitasun handiko pertsonen ezaugarriak?
- Nire alabari/semeari adimen gaitasun handiak detektatu dizkiote edo dituen susmoa dut, eta orain zer?

Horrelako edo antzerako egoera batean bazaude, zatoz eta dituzun zalantzak argitzen eta aurrean duzun bide berria egiten lagunduko dizut.

Lourdes Sarasketa

"Afantxori bere kantxan irabazi diogu jada"

ARATZ KORTAZAR ETA MIKEL ALKAIDE ESKORIATZA KE-KO ORDEZKARIAK

ARETO FUTBOLA Zapatuan, 19:00etan, Afantxok eta Eskoriatzak 'play-off'-eko partidua jokatu dute Pasaian. Eskoriatzarrek, gutxienez, hiru autobus beteko dituzte

Xabier Urtzelai ESKORIATZA

Eskoriatzak klubaren historia-ko areto futboleko partidurik garrantzitsuena jokatu du zapatuan (19:00, Pasaia). Izan ere, Mikel Alkaidere eta Narciso Pavoren mutilek Bigarren B Mailara igotzeko lehen pausoa eman beharko dute, zer eta liga irabazi duen Afantxoren kontra. *Play-off*-eko beste partidua, berriz, Tolosako Laskorainek eta Antiguokok jokatu dute. Eta irabazten dutenek datorren astean izango dute azken partidua erabakigarria. Eskoriatzarrek pausoz pauso joan nahi dute, biharko partidua irabaztea da lehentasuna. Eta Pasaiaiko Donibane kantxan ez dira bakarrik egongo: eguaztenerako, hiru autobus beteta zituzten jada. Eta laugarrena antolatzeke gertu zeuden.

Dagoeneko atzean utzi duzue Mondrateren kontra irabazitako derbia...

Mikel Alkaide: Kostako zaigu partidua hori ahaztea, zapatukoa sekulakoa izan zen. Eta ez emaitzagatik bakarrik, bi taldeetako zaleek zelan bete zuten Musakolako kantxa, ze giro egon zen, Eskoriatzatik zenbat jarraitzaile etorri ziren, ondorengo ospakizunak... Partidua ederra izan zen, baina baita partidua bueltan sortu zen dena ere. Eta



Aratz Kortazar eta Mikel Alkaide, astelehenean Goiena telebistan. X.U.

"DERBIAN BI TALDEETAKO ZALEEK IZANDAKO JARRERA AZPIMARRATZEKO IZAN ZEN"

bailarako areto futbolarendako sekulako bultzada izan da.

Aratz Kortazar: Nik Eskoriatzan daramatzadan hamasei urteetan ez dut halakorik bizi izan. Partidua aurretik aipatu genuen moduan, partidua ikusten gazte

mordoa batu ziren, eta hori da garrantzitsua. Duela bost urte ez nuen pentsatu ere egingo bailarako bi taldek halako kategorian halako partidua garrantzitsua jokatu zutenik.

Eskoriatzak irabazi zuen partidua, baina kantxan lehia oso parekatua izan zen?

A.K.: Bai, eta partidua aurretik aurreikusten genuen halako partidua izango zela, detaile txikiek erabakiko zutela irabazlea. Intentsitatea gailenduko zela norgehiagokan, eta izandako aukerak aprobetxatu egin

behar genituela. Eta horixe egin genuen.

M.A.: Atezainak bikain ibili ziren eta gu bereziki ondo defendatzeko asmoz kantxaratu ginen. Gero, lehenengo golak min egin zien, berdinketak ez zien balio eta erasora jo zuten. Hor erabaki genuen norgehiagoka, Mondratekoek zenbait arrisku hartu zituztelako, atezain jokalariekin jokatzeko hasi ziren eta bigarrena egin ahal izan genuen. **Zaleek hamarrekoa merezi izan zuten.**

A.K.: Bai; nahiz eta kantxan tentsio handia izan, ez zen inolako arazorik egon, eta harmailetan beste partidua bat bizi izan zen. Zaleek izugarri animatu zuten eta giro ederra egon zen. Egia da bi klubak artean harreman ona dagoela, jokalariek asko Eskoriatzan ibilitakoak dira, lagunak gara.

Amestutako play-off-ak datoz orain...

M.A.: Bai, eta badakigu helburua ez dela batere erraza. Afantxok liga irabazi du, gure aurretik geratu direlako euren kantxan jokatu dugu partidua, eta, gainera, luzapenik balego eta hor ere berdindu egingo bagenu, ez genituzke penaltiak jokatu. Zuzenean Afantxok egingo luke aurrera. Baina gauza bat esan behar dizut, badakigu Afantxori euren kantxan irabaztea zer den, aurtengo denboraldian egin dugu hori; zergatik ez dugu errepikatuko?

Etiket kanpora jokatu duzue, baina, Arrasaten gertatu moduan, zaleen babesa izango duzue.

M.A.: Aste barruan zabaldu dugu sare sozialetan Pasaia joateko klubak autobusak jarriko dituela, eta konturatu orduko bi autobus beteta zeuden. Kluba oso errotuta dago herrian, eta igarri egiten da.

Linazisorok urrea eta Guenetxeak brontzea

ESKALADA Madrilen, Espainiako Kopako lehen proban, bailarakoak nabarmendu dira

X.U. ARRASATE

Espainiako blokeko eta abiadurako Kopako lehen proba puntuagarria leku oso berezian jokatu dute, Madrilgo Plaza España aukeratu dute-eta antolatzaileek lehenengo hitzordu hori antolatzeke. Madrilgo erdiguneko plaza horretan bertan muntatu zituzten hormak, eta, bero egin bazuen ere, eskalatzaileendako berezia izan zen halako leku batean lehiatzea. Bada, Kopako lehen proba puntuagarria, Bergarako Mikel Linazisoro eta Aretxabaletako Irati Guenetxea nabarmendu ziren.

Domeka goizean egin zituzten kategoria txikietako txapelketak, eta gazte mailan, 18 urtez azpiko kategorian Irati Guenetxea aretxabaletarra hirugarren sailkatu zen, Ana Torregrosaren eta Andrea Rodriguezen atzetik. Arratsaldean, berriz, senior mailako txanda izan zen, eta hor Mikel Linazisoro izan zen onena, Francesco Boscoren eta Eneko Carreteroren aurretik. Bergarako izan zen lehenengo blokea amaitzen bakarra, eta inork ez zuen hirugarrena gainditu. Hala, 2024an Parisko Olinpiar Jokoetan egon nahi du Linazisorok, eta horretan dihardu lanean.

ESKORIATZA, BIGARREN B MAILARA IGOTZEKO LEHIAN

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILATIK' SAIOA
EKAINAREN 13AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Edonork egin dezake eta gaztetatik egin daiteke

TRIATLOIA Domekarako antolatu du Antxintxikak neska-mutiko gazteak triatloira hurbiltzea helburu duen laugarren topaketa. 'Briefing' edo azalpenak emateko batzar batekin hasiko dute goiza, eta 10:30ean hasiko dituzte lasterketak

Xabier Urtzelai ARRASATE

Triatloia gaztetxoaren artean sustatzeko helburuarekin sortutako Triatloi Txikiaren seigarren edizioa egingo dute domekan. "Triatloia geroz eta ezagunagoa den kirola da. Hiru kirolen batura denez -igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa-, kirol betea dela esan genezake. Beraz, hiru aldiz dibertigarriagoa eta aberasgarriagoa da. Antxintxikak proba txiki honekin haurrei triatloia ezagutarazi nahi die, umeen dibertsioari lehentasuna emanez, noski", adierazi dute klubetik.

Hala, gazteek 09:00etan (Agorrosin) dortsalak jasoko dituzte,



Gazteak korrikako tartean, 2016an egindako lasterketan. GOIENA

eta jarraian, boxetan materiala prest utzi beharko dute. Horren ostean (09:45), probaren gaineko *breafing*-a edo azalpenak eman-gotuzte antolatzaileek, triatloia-aren araudia azalduko diete gazteei modu arinean eta lasterketaren ezaugarriak azalduko dizkiete. Hala, benjaminak izango dira lehenak lasterketa egiten (10:30), ondoren etorriko dira alebinak (11:00) eta azkenik infantilak (11:30). Eta, antolatzailen aurreikuspenen arabera, 12:30ean izango da sari banaketa ekitaldia.

Bizikletako tartean aldaketak

Kategorien arabera zehaztuko dute zirkuituaren zailtasun maila, eta bi modalitate egongo dira aukeran: lasterketa osorik egitea edo erreleboka. Hala, bizikletako zirkuituan, Zubietako kalea obragatik itxita dagoenez, aldaketak egingo dituzte. Ipintzan kokatutako boxetatik Matxiategi kalera irtengo dira gazteak, Osintxuko noranzkoan. Ernai kalea eta Urarte kalea zeharkatuko dituzte Lazpiur enpresaraino joateko eta han buelta erdi hartuko dute.



Maddi Barrocal. GOIENA

PILOTA Gipuzkoako finala etxean du Barrocalek gaur

Ezker Hormako Klubaren Arteko Gipuzkoako Txapelketako hainbat final izango dira asteburuan, eta horietako bat Bergarako pilotalekuak hartuko du. Ez da edozein final izango, Maddi Barrocal bergararra da eta finaleira iritsi den ordezkarietako bat. Gaur, egubakoitza, 19:15ean hasita, lau eta erdiaren barruan lehiatuko dira Barrocal eta Izurungo Miren Arraiza.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45



Ekinez jaialdiaren antolakuntzako Oier Aperribai, Beñat Etxebarria eta Julen Iñarra, atzo, Agorrosinen. JOKIN BEREZIARTUA

COVIDaren ezina, Ekinezekin egina

Gaur irekiko ditu ateak Bergarako Agorrosin futbol zelaian egingo den Ekinez jaialdiak: ia 20 ordu iraungo duen etenik gabeko zuzeneko musika, Euskal Herriko 18 musika talde, DJak, azoka alternatiboa, atsedeen-gunea eta 4.000 lagundik gora, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Azken egunotako prestaketa lanen ostean, itxura ederra zuen atzo eguerdian Bergarako Agorrosin futbol zelaia. Asteburuan, sekula ezagutu ez den rock jaialdi baten topaleku izango da Agorrosin. Izan ere, gaur eta bihar artean, Euskal Herriko "musika alternatiboaren" parte diren 18 taldek hartuko dute parte Ekinez izeneko jaialdian. Kultur elkarte moduan aurkeztu dute Ekinez, besteak beste, kontzertuak antolatzeke, taldeei legezko laguntza emateko eta kontzertuen gaineko aholkularitza zerbitzua emateko sortu dutena, eta jaialdi hau "ibilbide luzea" izango duen proiektu baten hasiera izatea espero dute.

Jatorriaz eta helburuaz

Jaialdia, antolakuntzako kide Oier Aperribai gogoratu duenez,

Brigade Loco eta Kaleko Urdangak taldeen azken diskoaren aurkezpenaren bueltan sortu zen: "Brigade Locoren disko berria Bergarako plazan aurkeztu nahi genuen jaialdi berezi batekin, baina pandemiagatik dena geratu zen bertan behera. Pandemia garaian ere atera zuen disko berria Kaleko Urdangak taldeak, eta pentsatu genuen bi taldeon artean jaialdi indartsu bat egin genezakeela. Egoera hori eta Udalarekin berba egin ostean uda honetan Agorrosingo belar naturala betirako kendera dutela aprobetxatuz, ikusi

JAIALDIAK IRAUNGO DUEN BI EGUNETAN ESPERO DUTE 4.000 LAGUNDIK GORA ELKARTZEA

genuen Agorrosin leku ezin aproposagoa izango litzatekeela". Jaialdiaren helburua da kaleko musikari "merezi duen lekua" ematea. "Musika alternatiboa edo kaleko musika beti egon da hor, baina ez du izan merezi zuen lekua Euskal Herriko panoraman. Bergarari halako jaialdi bat emateaz gain, kaleko musikari bultzada bat ematen badiogu, ondo baino hobeto", gaineratu du Aperribai.

Urduri, baina motibatuta

Sarreraren salmentari dagokionez, espero ez zuten arrakasta izan dute eta aurreikusten dute 4.000 lagundik gora pasatuko direla Agorrosindik asteburuan zehar. "Ziztu bizian saldu ziren sarrerak eta erabaki genuen edukiera handitzea. Bergaran aspaldi ez da halako jendetzarik elkartu jaialdi baten bueltan eta hori

18 talde, itzulera "bereziak" barne

Ekinez jaialdian Euskal Herriko "musika alternatiboaren" barruan kokatzen diren hemezortzi taldek joko dute. Kontzertuez gain, besteak beste, "azoka alternatiboa" ere antolatu dute, "askotariko marketako" produktuak salgai izango dituen. Edariak erosteko bi barra egongo dira eta jateko aukera ere egongo da. Kontzertuen arteko denbora tarteak girotzeko zuzeneko DJak ere egongo dira: Tx3, Azken Erromantikoak, Suizidio Kolektibo eta D Jota.

Egubakoitza, ekainak 10

•Ate irekiera, 17:00etan. Kontzertuen hasiera, 18:00etan.

Honako talde hauek joko dute, jarraian zehazten den ordenan: No Limits, Pubik Enemy, Streetwise, Unidad Alavesa, Rotten XIII, Dinamita, Kaleko Urdangak, Azken Sustraiak eta Barne Guda –azken kontzertua izango da–. Kontzertuak 04:00 bueltan bukatuko dira.

Zapatua, ekainak 11

•Ate irekiera, 17:00etan. Kontzertuen hasiera, 18:00etan.

Honako talde hauek joko dute, jarraian zehazten den ordenan: Alerta Gorria, The Lio, Arene 6, Labana, Des-kontrol, Iheskide, Jonny Gerriwelt –itzuleran datorren taldea–, Neallta Fola –itzuleran datorren taldea– eta Brigade Loco. Kontzertuak 04:00 bueltan bukatuko dira.

Oharrak: Beste edozein jaialditan moduan, sarrera erosi duten 15 urtera artekoek adinez nagusia den guraso edo tutore legal batekin sartuko beharko dute Agorrosinera, sinatutako baimen batekin. 16 eta 17 urteko adingabeek, berriz, tutore legal batekin sinatutako dokumentu batekin sartuko beharko dute; dokumentu hori eskuratzeko aukera dago Ekinez-en Instagram kontuan.

erronka moduan hartu dugu, baina baita motibazio moduan ere. Sektore profesionalak bagara ere, erronka handia da guretzat. Etxean gaude eta badakigu jendea luparekin ari dela begiratzen; urduri gaude, baina prestaketak ondo joan dira. Hortaz, oso gogotsu gaude bihar [gaur] ateak ireki eta jendeari ongietorria egiteko", dio Julen Iñarrak. Azken sarrerak eskuragai daude Bergarako Arrano tabernan eta Entradium plataforman.

Iñarrak espero du etorkizunean ere Ekinez jaialdia Bergaran errotzea: "Bergaran jaioetako jaialdi bat izan da eta gustatu litzaiguke Bergaran jarraitzea. Proiektuarekin jarraitu nahiko genuke, kaleko musika alternatiboak dagokion lekua izan dezan".

Talde bakoitzak, 50 minutu

Agertoki bakarra izango du jaialdiak eta talde bakoitzak 50

KALEKO MUSIKA ALTERNATIBOARI "DAGOKION LEKUA" EMATEA DU HELBURU EKINEZ JAIALDIAK

minutu jotzea dago aurreikusita; bi egunetan 04:00 aldera bukatuko dira kontzertuak. Bi barra jarriko dituzte eta atsedeen-gunea batean jateko aukera ere egongo da. Bestetik, azokarako espazioa egongo da, non musika taldeek, arropa markek eta hainbat zigiluk euren produktuak aurkeztuko dituzten; musika talde bakoitzak bere disko, kamiseta eta bestelako materiala ere erango du. Jaialdiak autobus zerbitzu berezia izango du gaur eta bihar; Arrasatetik, Aretxabaletatik, Eskoriatatik, Eibartik, Soraluzetik, Antzuolatik, Elgetatik eta Oñatitik joateko, gau osoan egongo dira autobusak; geltokia Amillaga kalekoa izango da.

Kalean bolo-bolo dabilen galetako bat da Agorrosin azpian garai baten izan ziren meategiak direla-eta zelaia hondoratzeko arriskurik egongo den, jendetza elkartuko delako. Antolatzaileek diote baimen guztiak jaso dituztela, eta, alde horretatik, behintzat, jaialdiaren segurtasuna bermatuta dagoela. Udalean galdetuta, adierazi dute gaia aztertu dutela eta ez dela, horren harira, arriskurik aurreikusten.

Euskal Herrikorako sailkatzea ere jokoan

Sari bikoitza du Arabako Bertsolari Txapelketako aurtengo finalak, irabazlearentzako txapelaz gain, buruz burukoan jardungo duten bi bertsolariarentzako Txapelketa Nagusirako txartelak daude-eta jokoan. Finaleko seien artean, lau dira aramaioarrak

Julen Iriondo M. de Zuazo ARAMAIO Arabako txapela janztea gutxi ez, eta Txapelketa Nagusirako bi txarteletako bat eskuratzeak ere motibatuko ditu biharko –zapatua, 17:30ean, Europa jau-regian– finalean parte hartuko duten sei bertsolariak: aramaioarrez gain, lautan txapeldun eta beste hainbestetan bigarren izandako Oihane Perea, eta egungo txapelduna, Iñaki Viñaspre, 2004tik final guztietan egon dena.

Finalaren aurkezpenean, "oso harro" agertu zen Manex Agirre, bertso eskola bereko lau lagun izango direlako finalean, eta aspalditik egindako "lanaren emaitza" delako.

Saioa "gozatu" nahi lukeela zioen Peru Abarrategik, lortuz gero, gozarazi eta "edozeini aurre egiteko moduan" legokeela sinetsita. "Irabaztea" gustatuko litzaiokeela aitortu zuen.

Xabi Igoaren ustez, finaleko seikoteaz gain, "askok eta asko" egin dute bertsotan txapelketan, eta horrek "bete" du. Bete-bete txapela "lehiatza" doan "lehen aldia" izango dela zioen.

Paula Amilburu, azkenik, "izugarri pozik" agertu zen, "egindako lanarekin eta finaleko seikotearekin". Aurten, lehen aldiz, txapelketan "oso kontzentratuta" jardun duela zioen.



Biharko finaleko protagonistak. ALEA

Finaleko aramaioarrak

Manex Agirre Arriolabengoa (1982)

- 2011 eta 2015ean txapeldun; lautan txapeldunorde. Binakako txapelketa, Kuadrilla Arteko bi zein Eskolartekoa ere irabaziak.

Paula Amilburu Izargarai (1994)

- Lehen finala. Eskolarteko txapeldun 2012an.

Peru Abarrategi Sarrionandia (1997)

- 2019an bosgarren. Lautan Arabako Eskolarteko txapeldun.

Xabi Igoa Eriz (1992)

- Laugarren finala –2019an hirugarren–; Eskolarteko bat eta Kuadrilla Arteko bi irabaziak.

Osinaga eta 'Sarri', Huhezin

Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatuta, Literatur Topaketen azken saioa egin zuten eguazten goizean. Olatu arteko txalupa arraroa izenpean, Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga izan ziren poesia errezitaldiaren protagonistak; lehena abestien letrak azaltzen aritu zen, eta bigarrena, berriz, hitzei musika jartzen.



ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Goienakideen txokoa

EKAINEKO SARIAK

Tableta

InnJoo Superb Plus tableta



Parte hartzeko sariaren izena: tablet



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen DPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu biltze horien helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, baina ez zuzentzeko edo ezabatzea. Helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bergarako Udaleri esker

Gari & Maldanbera kontzerturako sarrerak ditugu.

Bergara / Seminarioa / Ekainak 17 / 20:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Kontzertua"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen DPO 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu biltze horien helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, baina ez zuzentzeko edo ezabatzea. Helbide honetan idatzi: goienakide@goiena.eus

